



# 2022KO JARDUERA TXOSTENA

 **Pays  
Basque  
euskal  
Herria**

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE  
ELKARGOA

COMUNAUTAT  
D'AGLOMERACION



# 2022KO JARDUERA TXOSTENA

## EUSKAL ERAKUNDE INDARTSU ETA BEREZIA

Dudarik gabe, eta aktibitate-txosten honetan irakurriko duzuenek, 2022an, gure lurraldearen, gure gazteen eta gure biztanleen aldeko ekintzak zalutu ziren. Urte osoko aloimenduarendako harturiko neurriak, osagarri etxeak edo kiroldegiak, gure edateko uraren zaintzarako politika, Urrezko Pass-aren lortzea gure mugikortasun-sarearendako eta lurralde-proiektuaren onartzea izan ziren segurki gure ekintza nagusiak, politikoenak, Euskal Hirigune Elkargoaren engaiamendua erakusten dutena lurraldeko biztanleen alde.

Hala ere, dokumentu hau gure ekintza askoz zabalagoen lekukoa da, eta gure lurraldearentzat etorkizun sendo eta iraunkorra eraikitzeko dugun erabakiarena. 2022an eman dugun urrats bakoitza, iraunkortasunaren eta ingurumena errespetatzearen ikuspegitik pentsatua izan da, etorkizuneko belaunaldientzat etorkizun hobea eraikitzeko. Plangintza Ekologikoaren eta trantsizio energetikoaren Idazkaritza nagusiaren sortzea 2023ko martxoan, ikusmolde trukadak hainbat hilabetez elkarrekin egin ondoren, hori da hain zuzen ere, antolaketaren adierazlea, gai horretan gure ekintzak bizkortzeko eta sisteman arazoitzeko dugun betebeharra. Beraz, gure ekintzen eta gure Klima Planaren orientazioen arteko lotura hertsia aurkituko dituzue txosten honetan. Klima plan horrek gure urraspideak gidatzen ditu, gure lurraldea klima-aldaketaren desafioari egokitzeko.

Dokumentu hau urte guziz egingen dugu, urte erditsutan, kontuak egonkortu ondoren. Honi esker, irakurle bakoitzak gure ardurapean ditugun politika publikoen hedapen eraginkorra egiaztatzen ahalko du.

Aktibitate-txosten hau aukera ona da ere gure ekintzetan laguntzen gaituzten guziak eskertzeko. Gure tokiko zerbitzu publikoa osatzen duten hautetsien eta Euskal Elkargoko eragileen engaiamendua goretsi nahi dut. Gisa horretan, gure lurraldeko bizian parte hartzen duten elkarte eta herritar guzietan ere eskerrak eman nahi dizkiet. Ipar Euskal Herriaren indarra eta berezitasuna egiten dutenak dira, mehatxu garaikide askoren geriza, eta horretaz oroitzen jakin dezagun, gure Ipar Euskal Herriaren enbor sendoa.

Zuen konfiantza eta engaiamenduarendako eskertzen zaituztet, eta irakurketa atsegina desiratzen dizuet.

**Jean-René Etchegaray**  
*Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria*

## UNE INSTITUTION PAYS BASQUE FORTE ET SINGULIÈRE

À n'en pas douter et vous le lirez dans ce rapport d'activités, l'année 2022 fut celle de l'accélération de notre action en faveur de notre territoire, de nos jeunes et de nos habitants. Nos mesures pour le logement à l'année, les constructions d'équipements tels que les crèches, les maisons de santé, ou les salles de sport, notre politique en faveur de l'eau potable, l'obtention du Pass d'or pour notre réseau de mobilité et l'adoption de notre projet de territoire furent assurément nos actions les plus prégnantes, les plus politiques, qui montrent l'engagement de notre Communauté d'Agglomération Pays Basque pour ses habitants.

Pour autant, ce document est le reflet beaucoup plus large de nos actions, et celui de notre détermination à construire un avenir solide et durable pour notre territoire. Chaque pas que nous avons franchi en 2022 a été pensé dans une optique de durabilité et de respect de l'environnement, avec pour objectif de construire un avenir meilleur pour les générations futures. La création au 1<sup>er</sup> mars 2023, après plusieurs mois de concertation, de notre Secrétariat général à la planification écologique et à la transition énergétique en est la traduction organisationnelle, celle également de notre obligation à accélérer nos actions en la matière et à raisonner en système. Ainsi, vous trouverez dans ce rapport les liens étroits entre nos actions et les orientations de notre Plan Climat qui guide nos démarches vers un territoire adapté au défi du changement climatique.

Ce document sera produit chaque année à la mi-année, une fois les comptes stabilisés, et permettra ainsi à chaque lecteur de constater le déploiement efficient des politiques publiques dont nous avons la charge.

Ce rapport d'activités est l'occasion de remercier vivement toutes les personnes qui contribuent à la réalisation de nos actions. Je tiens ainsi à saluer l'engagement des élus et des agents de la Communauté d'Agglomération qui donnent corps à notre service public local. Je souhaite également remercier, et tout aussi vivement, les associations, les entreprises, et chaque citoyen impliqués dans la vie de notre territoire. Ils sont ceux qui font la force et la singularité du Pays Basque, ils sont les digues à bien des menaces contemporaines, et sachons nous en souvenir, le socle solide de notre institution Pays Basque.

Je vous remercie pour votre confiance, votre engagement, et je vous souhaite une agréable lecture.

**Jean-René Etchegaray**  
*Président de la Communauté d'Agglomération Pays Basque*

## UA INSTITUCION PAÍS BASCO HÒRTA E SINGULARA

Que v'ac legeratz en aqueth rapòrt d'activitats, l'annada 2022 qu'estó la de l'acceleracion de la nòsta accion en favor deu nòste territòri, deus nòstes joens e deus nòstes abitants. Las nòstas mesuras entau lotjament a l'annada, las construccions d'equipaments com las ninoèras, los ostaus de santat, o las salas d'espòrt, la nòsta politica en favor de l'aiga bevedera, l'obtencion deu Passa d'aur entau nòste hialat de mobilitat e l'adopcion deu nòste projècte de territòri qu'estón solide las nòstas accions màgers, las mei politicas, qui amuishan l'engatjament de la nòsta Comunautat d'Aglomeracion País Basco entaus sons abitants.

Totun, aqueth document qu'es lo rebat de las nòstas accions hèra mei larjas, e lo de la nòsta determinacion a bastir un avièner solide e duradís entau nòste territòri. Cada pas qui hasom en 2022 qu'estó pensat en ua optica de durabilitat e de respècte de l'entornament, dab com objectiu de bastir un avièner mei bon entà las generacions futuras. La creacion au 1èr de març de 2023, après mantun mes d'escambis, deu nòste Secretariat generau a la planificacion ecologica e a la transicion energetica que n'es la traduccion organizacionau, la tanben de la nòsta obligacion a accelerar las nòstas accions en aqueth maine e a rasonar en sistèma. Atau, que trobaratz en aqueth rapòrt los ligams estrets enter las nòstas accions e las orientacions deu nòste Plan Climat qui guida las nòstas afranquidas cap a un territòri adaptat au desfís deu cambiament climatic.

Aqueth document que serà produsit cada annada a la mieitat de l'an, un còp los comptes estabilizats, e que permeterà atau a cada lector de constatar lo desplegament eficient de las politicas publicas dont avem la carga.

Aqueth rapòrt d'activitats qu'es tanben l'escadença de mercejar hòrt tots los qui contribueishen a la realizacion de las nòstas accions. Que tieni atau a saludar l'engatjament deus elejuts e deus agents de la Comunautat d'Aglomeracion qui balhan còs au nòste servici public locau. Que desiri tanben mercejar, e autan hòrt, las associacions e cada ciutadan implicats en la vita deu nòste territòri. Que son los qui hèn la fòrça e la singularitat deu País Basco, que son las estancas a un haish de miaças contemporanèas, e sapiam brebar-nse'n, la sòla solida de la nòsta institucion País Basco.

Que'vs mercegi entà la vòsta hidança e lo vòste engatjament, e que'vs desiri ua lectura agradiva.

***Jean-René Etchegaray*** *President de la Comunautat d'Aglomeracion País Basco*


<b>LEHEN ATALA: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA</b> //	<b>6</b>
1. Gure historia: Lurraldearen zerbitzuko den instituzioa . . . . .	8
2. 2. Gure gobernantza: Ekintza publiko partekatua . . . . .	12
3. 2022. urteko gertakari garrantzitsuak . . . . .	22
<b>BIGARREN ATALA: LURRALDE-PROIEKTUA 21 POLITIKA PUBLIKOTAN</b> //	<b>30</b>
1. Ipar Euskal Herriaren erresilien-tziaren alde: Gure baliabideak zaindu . . . . .	32
Klima, airea, energia, bioaniztasuna . . . . .	33
Ur-zikloaren kudeaketa integratua . . . . .	36
Itsasbazterra eta itsasoa. . . . .	40
Hirigintza eta espazioaren antolaketa . . . . .	43
Elikadura iraunkorra . . . . .	48
2. Herritarrez beteriko Ipar Euskal Herri bizi baten alde: Gure hiri eta herriak bizkortu . . . . .	52
Bizilekua eta jende ibiltaria . . . . .	53
Herriei eskainitako elkargo-ingeniaritza, hiri eta baserri-garapena . . . . .	57
Kultura partaidetzak . . . . .	61
Hizkuntza politikak . . . . .	64
Lurraldearen antolaketa numerikoa eta erabilera numerikoak . . . . .	67
Mendia . . . . .	70
Hiri-politika . . . . .	73
Gizarte kohesioa . . . . .	75
Kirol, kultura eta herritarrentzako zerbitzu ekipamenduak. . . . .	78
3. Ipar Euskal Herri engaiatu baten alde: Gure garapen ereduak berriz asmatu . . . . .	80
Garapen ekonomikoa . . . . .	81
Goi-mailako Irakaskuntza, ikerketa eta formakuntza . . . . .	83
Azpiegiturak eta mugikortasunak . . . . .	89
Laborantza, elikagaigintza, arrantza . . . . .	92
Mugaz gaidiko eta Europarekiko lankidetzak . . . . .	97
Hondakinen prebentzioa, bilketa, balorizazioa eta tratamendua . . . . .	100
Turismo iraunkorra . . . . .	103
<b>HIRUGARREN ATALA: JITEKOAK DIREN MEMENTO AZKARRAK</b> //	<b>107</b>
<b>ELKARGOKO ADMINISTRAZIOA 2022AN</b> . . . . .	<b>119</b>
Gure antolaketa: Politika publikoen eta elkargoko politiken garapena lagundu. . . . .	120
Gure finantzak . . . . .	128
<b>GEHIGARRIAK</b> . . . . .	<b>133</b>
Derrigorrezko eskumenak . . . . .	134

Lehen atala:

# euskal HIRIGUNE eLKARGOa

## 1. GURE HISTORIA: LURRALDEAREN ZERBITZUKO DEN INSTITUZIOA

# 1.1 LURRALDEAREN mapa





# 1.2 euskal HIRIGUNE ELKARGOa BEGI KOLPE Batez

LURRALDE zAbala	
euskal HIRIGUNE ELKARGOAREN HEDADURA Da	<b>2 968 KM<sup>2</sup></b>
100 km Luze eta 70 km zAbal	

BIZtanLERia
<b>318 709 BIZtanLE</b> 2022an
HERRIKO BIZtanLERia 2023KO URTARRILAREN 1ean
HOTS, AKITania BERRIKO 2. POPULakUNTza eremu HANDiena
FRantzia mailako 5. HIRIGUNE ELKARGO JENDEtsuena


## GOBERnANTza

232 elkargoko kontseilari titular eta  
143 kontseilari ordezko  
• hauetarik 73 hautetsi Kontseilu iraunkorreko kide  
• hauetarik 35 hautetsi Kontseilu betearazleko kide

## Finantzak


Aitzinkontu nagusi 1 eta 10 aitzinkontu gehigarri

## 2022KO INBERTSIO GASTUAK



## 2022KO FUNtzIONAMENDU GASTUAK

aitzinkontuen arteko kontularitza operazioen ondoriozko doitzeak eginik



## URA, saneamendua

**190 600 abonatu**

edateko uraren banaketa zerbitzura

22,1 milioi m<sup>3</sup> edateko ur banatuak 2022an

## GARRAIOAK

**11 MILIOI**

bidaiari TxikTxak sarean 2022an

**202**  
IBILGAILU

Txik Txak  
**GELDITZEN DA**  
**931**  
**GELTOKITAN**


## HONDAKINEN BILKETA eta TRATAMENDUA

**197.340 TONA HONDAKIN**  
**2022an TRATATUAK**

Hondakinen %68 balorizatuak 2022an  
(%68 2021ean ere)

176.113 biztanle 2022ko bukaeran bilketaren  
erreformaz baliatu direnak (helburu ziren 230.075en  
gain) hots, biztanleriaren %76a

Gizabanako hondakin-ekoizpena



## GIZA BALIABIDEAK

**1 196 agente**

Ipar Euskal Herri osoan banatuak

%53.62 emazteak eta %46.39 gizonak

%22 A kategoriako agenteak, %20 B kategoriako  
agenteak, %58 C kategoriako agenteak

# 1.3 sei URTE JADANIK

**Euskal Hirigune Elkargoa 2017ko urtarrilaren 1ean sortu zen. “NOTRe legea” izena hartzen duen Errepublikaren lurralde antolaketa berriari dagokion 2015eko agorrilaren 7ko legeak finkaturiko orientazioetatik sortua, hautetsiak eta gizarte zibila elkartzen dituen engaiamenduaren emaitza da.**

158 herri kidez eta 318.000 biztanle baino gehiagoz osaturiko Euskal Hirigune Elkargoak, aniztasunez aberats den lurraldeak etorkizun partekatuaren baitan aitzina egiteko duen xedea irudikatzen du. Sei urtetan, eztabaidatuz eta deliberatuz, hautetsi eta gizarte zibila elkartzen dituen aldarrikapen instituzional zahar hau haren ekintzen bidez egikaritzea lortu du Elkargoak. Gaur egun erakundeak kasik 1.200 langile ditu, Ipar Euskal Herri osoan banatuak eta 21 politika publikoren zerbitzuko.

Eraikuntza komuna hobetzekoa bada ere, erakunde hau lurraldeaz haratagotik behatua da eta tokiko ekintza publikoaren eragile saihestezin gisa eta ideia laborategi gisa agertzen da oraindik.

Herri elkargo honentzat hautaturiko ereduak ekintza estrategikoa eta hurbiltasunezko ekintza bermatzen ditu aldi berean. Proiektu kolektibo original eta anbiziotsua plantan ematen du, lurralde osoari aplikatzen zaiona, eta elkargoko zerbitzuei esker hedatzen da tokiko errealitatea kontuan hartuz. Langileen %70ak zerbitzu deskontzentratuetan eta elkargoko ekipamenduen kudeaketarako lan egiten du egunerokoan.

## **2022ko uztailaren 9an, Euskal Hirigune Elkargoak Gobernantza itunaren, Urte anitzeko inbertsio planaren eta Fiskalitate eta Finantza itunaren ondorio den Lurralde Proiektua onartu zuen.**


Lurralde Proiektuak Euskal Hirigune Elkargoaren ekintza agerian uzten du eta lurraldean indarrean diren proiektuak erakusten ditu. Euskal Elkargoaren webgunean telekargatzen ahal den dokumentuak Euskal Hirigune Elkargoak agintaldiaren iraupenaren baitako 21 elkargoko politika publikoetarako dituen xede guziak biltzea ahalbidetzen du.

Lurralde Proiektuaren eraikuntza 2020-2026 agintaldiko beste desmartxa egituratzaileen baitan sartzen da, Urte Anitzeko Inbertsio Planaren (UAIP, fr. PPI) eta herriarteko Finantzaketa eta fiskalitate planarekin batera, eta baita Gobernantza Itunarekin batera ere.

Partaide instituzionalekin loturiko hitzarmenak erraztuak dira. Lurralde proiektuaren ardatz estrategikoez Lurralde estrategia integratuaren (LEI, fr. STI) ardatzekin bat egiten dute, etorkizuneko europar funtsen lurralde atalen programaketa eta Akitania Berria Eskualdearekin eginen diren hitzarmen berriak aitzinetik itxuratzen dituen.

## 2. GURE GOBERNANTZA: EKINTZA PUBLIKO PARTEKATUA

# 2.1 ELKARGOAREN INSTANTZIAK



### EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO LEHENDAKARIA:

Euskal Elkargoaren legezko ordezkari, gobernuaren buru da eta hartan dagozkion funtzioak betetzen ditu: bereziki Euskal Elkargoaren zerbitzuak zuzentzen ditu, gastuen agindu emalea da eta sartzeak agintzen ditu, herriarteko administrazioen funtzionamendu onaren ardura du.

Bestalde, Euskal Elkargoaren funtzionamendu arrunta faboratzeko gisan, Elkargoko kontseiluak haren esku utziriko ahalmen batzuren jabe da. Horretarako Euskal Elkargoko lehendakariordeetan eta kontseilari ordezkarietan bermatzen da, zeinen esku, eskumen eremuen arabera, funtzioen eta sinaduren ordezkaritza utzi baitu.

# 427

**DELIBERO HARTUAK  
ELKARGOKO  
KONTSEILUAREN  
ORDEZKARITZA  
BIDEZ eta  
LEHENDAKARIAREN  
64 ERABAKI 2022an**

## ELKARGOKO KONTSEILUA

bilkuraren instantzia den Elkargoko kontseilua, haren esku utziriko eskumenen baitako delibero bidez herri elkargoen aferak kudeatzeko ardura duen organo erabakitzailea da. Hartara, Elkargoko kontseiluak legeak espreski aitortzen dizkion egitekoak betetzen ditu, hots, ondokoei loturikoak:

- aitzinkontua (aitzinkontuen bozka, administrazioko kontuen onarpena, instituzioa eta tasen, prezioen eta zerbitzu-zergen finkatzea);
- estatutuak (herri elkargoaren funtzionamendurako baldintzak, Elkargoaren eskumenak, etab.);
- zerbitzu publikoen kudeaketa besteren esku uztea;
- herriarteko antolakuntzari, lurraldeko bizitegiaren oreka sozialari eta hiri-politika mailako orientazioari dagozkien xedapenak.

Elkargoko kontseilua Euskal Elkargoaren dokumentu estrategikoenei buruzko iritzia agertzera deitua da.

Lehendakariari eta Kontseilu iraunkorrari ahalmenak eman dizkio Elkargoaren funtzionamendu arruntean eraginkortasun eta arintasun handiena faboratzeko eta Elkargoko kontseiluetan gai nagusien inguruko eztabaidarako espazioa handitzeko gisan.

Elkargoko kontseilua 232 elkargoko kontseilari titularrez eta 143 elkargoko kontseilari ordezkoz (jarleku bakarreko herrientzako) osatua da. Haren saioak publikoari irekiak dira, Euskal Elkargoaren YouTube katean zuzenean hedatuak eta uneoro ikusgai plataforma horretan berean.

## KONTSEILU IRAUNKORRA DA:

- Euskal Elkargoaren informatzeko, trukatzeko eta eztabaidatzeko instantzia;
  - Elkargoko kontseiluaren lanen prestaketarako instantzia, Elkargoko kontseiluari aurkeztu behar zaizkion gai edo proiektuen azterketaren bidez egiten dena;
  - eta delibertzeko instantzia, Elkargoko kontseiluak haren gomendio utziriko ahalmen ordezkaritzaren arabera.
- Kontseilu iraunkorra 73 kidez osatua da:
- Lehendakaria;
  - 72 kide, hauen artean 15 Lehendakariorde eta 57 elkargoko kontseilari

<b>6</b>	<b>ELKARGOKO KONTSEILU SAIO 2022an</b>
<b>291</b>	<b>ELKARGOKO KONTSEILUAREN DELIBERO 2022an</b>

<b>10</b>	<b>KONTSEILU IRAUNKOR 2022an</b>
<b>426</b>	<b>KONTSEILU IRAUNKORRAREN DELIBERO 2022an</b>

## KONTSEILU BETEARAZLEA:

35 kidez osatua da.

Lehendakaritzaren inguruan, Kontseilu betearazlea da:

- Elkargoaren orientazio handien eztabaidatzeko eta trenkatzeko instantzia;
- Elkargoaren Txosten estrategiko nagusien hausnarketarako eta prestaketarako instantzia.

### LEHENDAKARIA



**Jean-René Etchegaray,**

Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria,  
Baionako auzapeza

### LEHENDAKARIORDEAK



**Renée Carrique**

1. Lehendakariordea, Giza baliabideak eta elkarrikeria soziala, Idauze-Mendiko auzapeza, Xiberoa



**Kotte Ecenarro**

2. Lehendakariordea, Finantzak eta aitzinkontuak, Hendaiako auzapeza, Hego Lapurdiko eremua



**Martine Bisauta**

3. Lehendakariordea, Trantsizio ekologiko eta energetikoa – Elkargo herritarra, Baionako hautetsia, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Daniel Olçomendy**

4. Lehendakariordea, Turismo iraunkorra – Lurraldearen helgarritasun unibertsala, Izura-Azmeko auzapeza, Iholdi-Oztibarreko eremua



**Maider Arosteguy**

5. Lehendakariordea, Ekonomia urdina – Saneamendua eta euri-urak, Biarritzeko auzapeza, Euskal Kostalde-Aturriko eremua




**Claude Olive**

6. Lehendakariordea, Estrategia eta lur-funtsen ekintza – Elkargo antolaketarako eta elkargo-intereseko prozedurak eta operazioak, Angeluko auzapeza, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Sylvie Durruty**

7. Lehendakariordea, Ekonomia eta berrikuntza, Baionako 1. axuanta, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Roland Hirigoyen**

8. Lehendakariordea, Bizilekua, etxebizitza – Hiri-politika – Jende ibiltarien harrera eta bizilekua, Mugerreko auzapeza, Errobi-Aturriko eremua



**Isabelle Pargade**

9. Lehendakariordea, Laborantza eta biharko elikamoldea, Biharko hiri ttipiak programaren gidaritza eta segimendua, Hazparneko auzapeza, Hazparnealdeko lurraldea



**Antton Curutcharry**

10. Lehendakariordea, Hizkuntza politikak Euskara eta Gaskoia - Kultura eta elkargoko kultura ekipamenduak, Baigorriko 2. axuanta, Garazi-Baigorriko eremua



**Jean-François Irigoyen**

11. Lehendakariordea, Mugikortasun iraunkorrak eta berritzaileak – Portuak eta Arrantza, Donibane Lohizuneko auzapeza, Hego Lapurdiko eremua



**Bruno Carrère**

12. Lehendakariordea, Lurralde antolaketa Iraunkorren Estrategia – Hiri, ondare eta publizitate-planifikazioa, Uztaritzeko auzapeza, Errobiko eremua



**Jean-Yves Bussiron**

13. Lehendakariordea, Hondakinen prebentzioa, bilketa era balorizazioa, Gixuneko auzapeza, Bidaxunealdeko eremua



**Jean-Pierre Laflaquière**

14. Lehendakariordea, Goi-mailako irakaskuntza, ikerketa eta formakuntza – CPERen gidaritza – Eskaera Publikoa, Angeluko 7. Axuanta, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Arnaud Fontaine**

15. Lehendakariordea, Kohesio soziala, prekaritatea, familia eta osasuna – Elkargoko kirol ekipamenduak, Ozaraine-Erribareitako auzapeza, Amikuzeko eremua

## GAIKAKO KONTSEILARI ORDEZKARIAK




**Edouard Chazouillères**

Kontseilari Ordezkarria, Politika publikoen ebaluazioa, Biarritzeko 3. axuanta, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Emmanuel Alzuri**

Kontseilari Ordezkarria, Edateko ura – Itsasbazterra, GEMAPI eta ingurune naturalak, Bidarteko auzapeza, Euskal Kostalde-Aturriko eremua




**Francis Gonzalez**

Kontseilari Ordezkarria, Fiskalitatea eta finantza prospektiba, Bokaleko auzapeza, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Jean-Baptiste Laborde-Lavignette**

Kontseilari Ordezkarria, Euskal Mendia, tokiko ibilbide plana eta ibilbideak, Sarako auzapeza, Hego Lapurdiko eremua



**Joseba Erremundeguy**

Kontseilari Ordezkarria, Mugaz gairdiko, Europako eta nazioarteko lankidetzak, Baionako hautetsia, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Maitena Curutchet**

Kontseilari Ordezkarria, Ekonomia sozial eta solidarioa – Ekonomia zirkularra, Arrangoitzeko 2. axuanta, Errobiko eremua




**Olivier Alleman**

Kontseilari Ordezkarria, Numerikoa eta lurralde adimentsua, Baionako hautetsia, Euskal Kostalde-Aturriko eremua



**Philippe Aramendi**

Kontseilari Ordezkarria, Antolaketarako ingeniari eta aholkularitza – Hirigintza baimenak, Urruñako auzapeza, Hego Lapurdiko eremua



**Solange Demarcq-Eguiguren**

Kontseilari Ordezkarria, Ingurumenaren eta eremu naturalen zaintza eta balorizazioa - Bioaniztasunaren zaintza - nagusien prebentzioa, Biriatuko auzapeza, Hego Lapurdiko eremua



## LURRALDE KONTSEILARI ORDEZKARIAK



**François Dagorret**

Hazparnealdeko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Bastidako auzapeza



**Alain Iriart**

Errobi-Aturriko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Hiriburuko auzapeza



**Anthony Bleuze**

Euskal Kostalde-Aturriko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Angeluko 3. axuanta



**Eneko Aldana-Douat**

Hego Lapurdiko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Ziburuko auzapeza



**Eric Narbais-Jaureguy**

Amikuzeko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Arboti-Zohotako auzapeza




**Gilbert Oçafraïn**

Garazi-Baigorriko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Aintzilako auzapeza, Sustengu misioa lan eremuen gain, 7. Lehendakariordearen aldean



**Jean-Marc Baranthol**

Xiberoko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Sustengu misioa laneko bizi-kalitatearen gain, 1. Lehendakariordearen aldean



**Muriel Houet**

Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Sustengu misioa lehen haurtzaroaren eta haurtzaroaren gaitan 15. Lehendakariordearen aldean, Bidaxuneko 1. axuanta



**Peio Etxeleku**

Errobiko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Kanboko hautetsia



**Xavier Lacoste**

Ihaldi-Oztibarreko Lurralde eremuko Erreferentea eta animatzailea, Irisarriko auzapeza

**17**  
KONTSEILU  
BETEARAZLE 2022an

## 2. GURE GOBERNANTZA: EKINTZA PUBLIKO PARTEKATUA

# 2.2 Gaikako BATZORDEAK

Batzordeak elkargoko eta herrietako hautetsiz osatuak dira. Gaiaren arabera Elkargoko kontseiluak bozkatu behar dituen deliberoak prestatzen dituzte. Izaera iraunkorreko 13 Gaikako batzorde daude Euskal Hirigune Elkargoan:

- Laborantza eta biharko elikamoldea;
- Lurraldearen antolaketa (hiri-planifikazioa, mugikortasunak...);
- Kohesio soziala;
- Kultura
- Uraren zikloa (Edateko ura, Saneamendua, GEMAPI);
- Hondakinak
- Garapen ekonomikoa eta goi-mailako irakaskuntza
- Finantzak, finantzaketak eta kontratuzko baliabideak
- Bizileku iraunkorra – Jende ibiltaria
- Hizkuntza politikak
- Turismoa
- Trantsizio ekologiko eta energetikoa - Elkargo herritarra
- Mugaz gaidikoa

### Osagarri gisa badira:

- Elkartek eta gizarte zibileko kideak biltzen dituzten izaera iraunkorreko ohiz kanpoko bi gaikako batzorde: Emazte eta gizonen arteko berdintasuna eta Euskal mendia
- Aldi baterako izaera duten Elkargoko 3 gaikako batzorde “berezi”
  - Ondarea
  - Kirol ekipamenduen eskema nagusia
  - Numerikoaren erabilpena

# 2.3

## BAITEZPADAKO BATZORDEAK

### **HELGARITASUNERAKO HERRIARTEKO BATZORDEA (HEB, FR. CIA)**

Sortu zelarik, Euskal Hirigune Elkargoak helgarritasunerako herriarteko batzordea sortu zuen, egun Lurrealdeko helgarritasun unibertsalaren ardura duen Daniel Olçomendi Lehendakariordea buru duena. Batzorde honek, arauzko izaeraz bestalde, kolektibitatearen baitan lantzen diren “helgarritasun unibertsalerako” baloreak sustatzeko zinezko eginkizun akuilatzailea du, hots: “denentzako balios, praktiko, baliagarri egitea”.

Eraikuntzaren, numerikoaren, bideen edo mugikortasunaren arloak ere hunkitzen ditu. Bestela erranik, denen egunerokoa. Helburua, Ipar Euskal Herriko lurraldea gero eta inklusiboagoa eta denei irekia bilakatzean datza. Xede horren plantan ezartzea lurraldeko eragileen gain da, bereziki elkartean, hautetsien eta teknikarien gain.

### **TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN AHOLKU BATZORDEA**

Kolektibitateko kidez eta ingurumenaren babeserako eta kontsumitzaileen babeserako elkarteez osatua, urte guziz zerbitzu publikoaren ordezkariak dituztenen jarduera txostenak, erakundeen baitan autonomia finantzarioarekin ustiatzen diren zerbitzuen jarduera txostenak eta uraren, saneamenduaren eta hondakinen kudeaketa zerbitzuen prezio eta kalitateari buruzko txostenak aztertu ditzan eskatzen zaio batzorde honi..

### **ZUZENEKO ZERGEN HERRIARTEKO BATZORDEA**

HeLEPetan derrigorrezko eta zerga bakarreko araubidearen menpe, merkataritza egoitzei eta ondasun desberdinei dagozkien tokiko zuzeneko zergen gaitan esku hartzen du. Euskal Elkargoko Lehendakariak edo honen ordezkariak gain, hamar batzordekide titular eta 10 ordeko batzordekide barne hartzen ditu.

### **ESKUALDATURIKO KARGEN TOKIKO EBALUAZIO BATZORDEA**


HeLEPetan derrigorrezko eta lanbide zerga bakarreko araubidearen menpe, Euskal Elkargolari eskualdatu zaizkion eta honen eskumenekoak diren karga eta diru sartzeen zenbatekoaren ebaluazioa egiteko ardura du. Herri guztiak ordezkatzeko ditu eta 158 batzordekide titular eta 158 ordeko batzordekide barne hartzen ditu.

### **ESKAINZA PUBLIKOEN BATZORDEA ETA ZERBITZU PUBLIKOAREN ORDEZKARITZAREN BATZORDEA**

Lehendakariak edo honen ordezkariak eta 5 batzordekide titularrez eta 5 ordeko batzordekidez osatua, formalizaturiko merkatu publikoaren esleipenaren edo zerbitzu publikoaren ordezkariarako hautagaien hautaketaren baitan esku hartzen dute.

2. GURE GOBERNANTZA: EKINTZA  
PUBLIKO HITZARTUA

# 2.4 10 eremutan ANTOLATURIKO LURRALDEA



**Euskal Kostalde-  
Aturriko eremua**  
● Baiona

**Hego Lapurdiko  
eremua**  
● Urruña

**Errobiko-Aturriko  
eremua**  
● Lehuntze

**Errobi  
eremua**  
● Itsasu


**Hazparnealdeko  
eremua**  
● Hazparne

**Bidaxunealdeko  
eremua**  
● Bidaxune

**Amikuzeko  
eremua**  
● Donapaleu

**Iholdi-Oztibarreko  
eremua**  
● Iholdi

**Garazi-Baigorriko  
eremua**  
● Donibane Garazi



# 3

## 2022. URTEKO GERTAKARI GARRANTZITSUAK

### URTARRILA



#### Finantzak

2022ko urtarrilaren 1ean, aitzinkontuaren sinplifikatzearekin segitzea, Edateko uraren 3 aitzinkontu gehigarrien eta Saneamendu kolektiboaren 3 aitzinkontu gehigarrien bateratzearekin.



#### Laborantza

etxaldeetako mozkinen transformatzeko tailer kolektiboaren abian ezartzea Senperen.



#### Gemapi

2021eko abenduaren 21eko eta urtarrilaren 10eko uholdeak eta kaltetu herrirentzako laguntza prozeduraren plantan ezartze txostenen osatzeko laguntza.



#### URA

Errobi/Helbarrun interkonexioa egiteko lanak.



#### BIZILEKUA

eraikuntzarako laguntzen eskumena besteren esku uzteko 3 motako hitzarmenaren izenpetzea, Euskal Elkargoak instrukzioa haren gain hartzea ondorioztat duena.



#### KOHESIO SOZIALA

COVID izurriteak berriz ere haurtzaindegi eta AGAZetan eragina du.

### OTSAILA



#### Laborantza

IZARBEL (Bidarte) laborantza inkubagailu bidezko baratzezaintza aktibitatearen entseguaren abiatzea.



#### saneamendua

Senpereko ur araztegiaren eraikuntza lanen abiatzea.



#### HONDAKINEN KUDEAKETA

Laneko Osasuna eta Segurtasuna desmarxaren GidaBa – 1. Fasea egoeraren azterketa

MARTXOA



**MUGIKORTASUNAK**

martxoaren 3an, 2020-2030 Mugikortasunen Planaren onarpena eta prospektiba finantzarioaren eta Mugikortasunen Sindikatuaren 2022-2026 UAIParen bozkatzea.



**LABORANTZA**

tokiko laborantza sailentzako laborantzako datu irekien ZABAL plataformaren garapena.



**TRANTSIZIO EKOLOGIKO eta ENERGETIKOA & ELKARGO HERRITARRA:**

- martxoaren 4an, "Life Stop Cortaderia" proiektuko koordinatzaileekin eta tokiko eremuen kudeatzaile batzuekin "Panpako belarra" espezie inbaditzailearen kontrolatzeko moldeei buruzko mugaz gaidiko mintegi baten antolaketa.
- martxoaren 8ko Emazteen eskubideen egunaren kariatara "Respectées / Errespetua!" lemapean eginiko kanpaina.



**KOHESIO SOZIALA**

Euskal Elkargoko eta EAeko Lehendakariak Irunen bildu ziren Estatuek Europan aplikatzen dituzten migrazio politikak eta erbesteratuek bizi dituzten arrisku egoerak salatzeke.



**KULTURA**

Ipar Euskal Herriko kultura eragileak galdekatuz sarean eginiko inkesta batek Euskal Elkargoaren kultura proiektuaren eraikuntza elikatu duten 200 erantzun eskuratu ziren.



**ONDARE ERAIKIA - ENERGIA**

ELENA kontratuaren izenpetzea, Europako Inbertsioen Bankuarekin, Euskal Elkargoko ondare eraikiaren trantsizio energetikoa zalutzea ahalbidetzeko.



**TRANTSIZIO EKOLOGIKO eta ENERGETIKOA**

DECLICS Ura-Energia desafioren 6. saioaren bukaera. Aipatu desafioren xedea herritarrek eko-jestuak garatzea da, haien aitzinkontua emendatu gabe eta aietasunik galdu gabe haien energia eta ur kontsumoa guttienez %8z apaltzeko gisan. 46 familia engaiatu ziren, hots, 120 parte hartzaile inguru.



**HIZKUNTZA POLITIKA**

Korrika, helduek euskara ikastearen alde burutzen ekimen erraldoiak lurraldea iragan zuen. Euskal Elkargoko hautetsiek Arnegin egin zioten harrera.



**HONDAKINEN KUDEAKETA**

Bakoitzak bere konpostagailua" konpostatzearen aldeko komunikazio kanpaina.

## maiatza



### ONDARE ERAIKIA - ERAIKIN BERRIEN ERAIKUNTZA

Mamurrak haurtzaindegi berriaren eraikuntza lanen hastapena Ezpeletan. Proiektu hau, Euskal Hirigune Elkargoak haren eraikinen eraikuntzetan agertu nahi duen ingurumen eta energia eredugarritasunaren aitzindari da: zurezko egitura, lastozko isolatzea, lur adreiluzko murrak, putzu kanadiarra / probentzala, etab.



### TRANTSIZIO EKOLOGIKO eta ENERGETIKOA

Elikamolde sano eta iraunkorraren aldeko DECLICS Elikadura desafiaren 2. edizioaren abiatzea 54 familiaren parte hartzearekin, hots, 138 parte hartzaile.



### LURRALDEKO INFORMAZIOA

Geobasque, Euskal Hirigune Elkargoaren datu geografikoen azpiegitura berriaren abiaraztea.



### HIZKUNTZA POLITIKA

Kalakaño euskarazko lehen haurtzaroaren hilabetearen antolatzea, familiei eta LEHA labelarekin lotura duten lehen haurtzaroko profesionaleri zuzendua.



### KOHESIO SOZIALA

Ipar Euskal Herriko Prekaritateen Behatokiaren 1. edizioa aurkeztu zen, urgentziazko ostataleku eta etxebizitzari eskainia zaio.



### EKIPAMENDUAK

Ipar Euskal Herriko "igerileku plana" onartu zen. Eskolaren baitan lurraldeko haur guzietan igeriketa egin ahal izatea ahalbidetzea du xede eta, beraz, kolegiara arribatu aitzin igeri egiten ikas dezaten ahalbidetzea.



### KULTURA

Orkestra eskolan" proiektua 3 urterako abiatu zen, Arrueta-Sarrikitako RPI AMOBA eskolan.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

Bereizketarako aginduen hedatzea pilotu herria den Ziburun.

## ekaina



### PARTAIDETZAK eta FINANTZAMENDUAK

Ekainaren 17an, Ipar Euskal Herriko Lurralde Estrategia Integratuaren Hautagaitzaren pausatzea, Ipar Euskal Herriko proiektuak diruztatzeko estrategia bakarra (11 M€ inguru Europako finantzamenduetatik).



### MUGIKORTASUNAK

Ekainaren 27an, Hendaiako PEMaren estreinatzea maila gorenean ordezkatuak ziren finantzatzaile guzietan presentziarekin (RNA, CD64, Euskal Elkargoa, Mugikortasunen Sindikatua, Herria, SNCF Gares&Connexion, Euskal Gobernuak). PEM (Harremanetarako Eredu Multimodala) horrek Topotik trenera edo TxikTxak sarera molde arinean iragatea ahalbidetzen du.



### HIRI-POLITIKA

Ekonomia sozial eta solidarioari eskainiriko eremu baten eraikuntza proiektuaren abiatzea.



### HIZKUNTZA-POLITIKA

La Passem, okzitaniaren aldeko errelebo lasterketak, lurraldea zeharkatzen du. Euskal Hirigune Elkargoko hautetsiek ongi etorria egiten diote Aturri-Beherean eta Bidaxunealdean.





## BIZILEKUA

Biztanleen etxebizitzarako sarbidea hobetzea ahalbidetzen duten etxebizitza sozialaren eragileak biltzen dituen Etxebizitzaren Herriarteko Konferentziaren instalatzea.



## TRANSIZIO EKOLOGIKOA eta ENERGETIKOA & ELKARGO HERRITARRA

Festetan gertatzen diren eraso sexual eta sexisten aurka borrokatzeko protokolo baten sortzea.



## FINANTZAK

Kontuen Eskualdeko Ganberaren (KEG) behaketa txostena.



## EKIPAMENDUAK

France Service publikoari irekitzea Atharratzen, Euskal Elkargoaren eta Atharratzeko Herriko Etxearen baltsako harrerarekin.

# UZTAILA



## ONDARE eraikia - energia

Gasaren hornikuntza merkatuaren arraberritzea.



## MUGIKORTASUNAK

Uztailaren 4an, "TXIK TXAK" mugikortasunen marka bakarraren abiatzea: prezioak, webgunea, etab.



## LABORANTZA eta URA

ERREKARGI "Ura eta laborantza" baliabidearen abiaraztea.

## UZTAILAREN 9an

Lurraldeko proiektuaren, Urte Anitzeko Inbertsio Planaren eta Herriarteko finantza eta fiskalitate elkertasunerako itunaren onarpena.



## BIZILEKUA

Erabilpenaren aldaketarako arau berriaren onarpena, turismorako etxebizitza mublatuak arautuko dituen eta gaur egun epe laburreko alokairuaren baitakoak diren bigarren etxebizitzaren parte bat urte osoko alokairuaren merkatuan sartzea xedetzat duena.



## BIHARKO HIRI TTIPIAK

Biharko Hiri Ttipiak oinarri-hitzarmenaren onarpena, Lurraldearen Suspertze Operazioaren (ORT) parekoa.



## TRANSIZIO EKOLOGIKO eta ENERGETIKOA

Tokiko faunaren inbentario parte hartzailearen abiaraztea lurraldeko Trama Berde eta Urdinen erronken kartografia lanen baitan.

## AGORRILA



### URA

Lehen aldiko, Ipar Euskal Herriak prefekturaren krisi mailako uraren erabilpenaren murrizketa erabakia bizi izan du (95 herri hunkituak). Erabiltzaileei erne ibiltzeko galdegina, idortearen baitan ur zerbitzuaren jarraitasuna bermatzeko (abendura arte).

## IRAILA



### ONDARE ERAIKIA - ENERGIA

Soiltasun neurrien plantan ezartzea elkargo eraikinetan: gehienez 19°C neguan; 26 °C azpiko klimatizaziorik ez udan.



### BIHARKO HIRI TTIPIAK

Bizilekuaren hobetze programaturako operazioaren azterketa aitzin-operazionalaren abiaraztea, biharko hiri ttipiak baliabidean integraturiko herrietan.



### ELKARGO-INTERESEKO PROIEKTUEN ANTOLAKETA

Baionako Aturri eskuinaldeko elkargo-intereseko antolaketa proiektuaren hirigintza programaketa azterketaren abiaraztea.



### HIZKUNTZA POLITIKA

Euskal Elkargoa/EEP eta Ipar Euskal Herriko parlamentariak Hezkuntza Ministerioarekin elkartzea murgiltze sistemako irakaskuntza aitzinarazteko.



### KOHESIO SOZIALA - OSASUNA

Euskal Elkargoa/ARS 1. proiektu deialdi komunaren abiatzea, Ipar Euskal Herriko Tokiko Osasun Kontratuaren baitan ekimenak sustengatzeko.



### KULTURA

Maurice Ravel Kontserbatorioa goi-mailako irakaskuntza eskola aitortza eskuratu zuen. Jagoitik dantza eta musikako ikasleek estudiante estutua izanen dute.



## TRANTSIZIO EKOLOGIKOA eta ENERGETIKOA

Hirigune Elkargoaren ibilgailu parkearen elektrifikatzearekin segitzea, 6 ibilgailu elektriko berriren erostearekin. 40 ibilgailu zirkulazioan dira jadanik (ibilgailu arinen parkearen %15a).



## MUGIKORTASUNAK

- TXIK TXAK irudia soinean duten lehen autobusen zirkulazioan ezartzea: 2022an prezio harmonizazioaren eta webgune bakarraren ondotik, autobusen kanpoko itxura progresiboki berdintzen joan da 2023ko martxora arte.

- urriaren 20an, Baionako PEMaren estreinatzea: inbertsio publikoko 30 M€ trenaren, TXIK TXAK sarearen, eskualde autobusen, eremu publikoen eta obretan den aparkaleku baten faboretan, Euskal Hirigune Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuak, Baionako Herriak, Akitania Berria Eskualdeak, Estatuak eta SNCFek kofinantzatuak. Hiriak eginiko osasun poloa osoki berriz egina izan den hiri eremu hori osatzera heldu da.



## PARTAIDETZAK eta FINANTZAMENDUAK

urriaren 5 eta 6an, lehen Mugaz Gaindiko Topaketak Baionan.



## ELIKADURA

Lurralde Elikamolde Proiektuaren Segimendurako Batzordearen instalatzea.



## TRANTSIZIO EKOLOGIKO eta ENERGETIKOA & ELKARGO HERRITARRA

- Urriaren 8tik 16ra 2022ko Klimaren Astearen iragatea antolaketaren gaiaren inguruan.

- Ipar Euskal Herriko hidroelektrizitate ekoizleen eta Euskal Elkargoaren arteko hitzarmenaren izenpetzea, lurraldeko 12 zentral hidroelektrikoren baimenen berritzeko operazio koordinatua eramateko helburuz.



## KULTURA

Baionako Karrikako artearen Point de vue #6 festibala Irulegin, Izturitzen eta Uztaritzen plantatu zen.



## HIZKUNTZA POLITIKAK

Euskaraldia, euskararen erabilpena garatzeko xedea duen mugaz gaindiko desafioa abian.



## KIROL EKIPAMENDUAK

Euskal Elkargoak Munduko Pilota Txapelketako partidak Cassin Lizeoko ezkerparetan hartu zituen.



## LURRALDEKO INFORMAZIOA

Partaidetza hitzarmenaren onarpena, eskala biziki handiko plan funtsa baten sortzeko Karrika Gorputzaren Plano Sinplifikatua (PCRS) formatuan.



## HONDAKINEN KUDEAKETA

“Ontzi beltzean gutiago ematen dut” Hondakinen trantsiziorako kanpaina instituzionala

## azARoa



### PARTAIDETZAK eta FINANTZAMENDUAK

Azaroaren 7an, Ipar Euskal Herriko Lurralde Estrategia Integratuaren Hautagaitzaren hautaketa, Ipar Euskal Herriko proiektuak diruztatzeko estrategia bakarra (11 M€ inguru Europako finantzamenduetatik).



### BIZILEKUA

Lurraldeko tentsio eremuko 24 herrietan alokairuen arautzea plantan ezartzeko hautagaitzaren pausatzea.



### GIZARTE KOHESIOA

Elkargoko 6 hartzaindegik "Eco cert" labela eskuratu zuten, biologikoak, tokikoak eta sanoak diren ekoizpenei esker eta baita sukaldeetako hondakinen kudeaketa onari esker ere haurrei eskaintzen zaizkien apairuen kalitatea aitortuz.



### EUSKARA

Nafarroa Garaiko Irulegiko indusketa arkeologikoetan brontzezko esku batean atzemaniko inskripzioek euskararen idazketari buruzko ezagutza irauli zuen.

## abendua



### MUGIKORTASUNAK

«Ville, Rail & Transports»-en urrezko passa TXIK TXAK sareari ematea, 30 urtetan metro eta tranbiarik gabeko sare batek eskuratzen duen lehena. Bereziki lurralde biziki handi bateko garraio zerbitzua, prezioak eta bidaiariari eskainiriko informazio harmonizatua da garraioaren profesionalak goraiatu zutena.



### PARTAIDETZAK eta FINANTZAMENDUAK

Abenduaren 10ean, Euskal Elkargoaren Mendi Politikaren bozkatzea.



### LABORANTZA

Laborantzako Lur-funtsei buruzko biltzarra: gaiaren inguruan urte batez buruturiko lanen eta emaitza nagusien itzultzea (SAFER-Euskal Elkargoa hitzarmena, lege proposamenari buruzko lanak, laborantzako lur-funtsak kontuan hartzeko tresnen Agendaren argitaratzea, ZAD prozedura).



### Jende IBILTARIA

Baionan 200 lekuko pasaia handiko eremu baten sortzeko proiektuaren onura publikoko aitortza adierazpena.



### LURRALDEKO INFORMAZIOA

Baltsako zerbitzu komun baten sortzea, helbideratzeen eguneratzean laguntzeko, eta hitzarmenak herriekin.



### ANTOLAKETA eta ekonomia

Beskoitzeko Mendiko Borda Lan eremuaren bururatzea.



### KULTURA

Euskal Kultur Erakundearen proiektua, Euskal Elkargoarenarekin artikulatua, partaideek onarturiko 3 urteko iraupenerako.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

- Bereizketarako aginduen hedatzeari buruzko kanpaina – "estalki eta paper guziak bereizten dira".

# eta 2022 URTEAN ZEHAR ere...



## MUGIKORTASUNAK

Tarnose eta Maubec karrikaren arteko Tram'busaren lanekin segitzea, Baionako lanen abiatzea.



## ONDARE ERAIKIA

Eraikin berrien eraikuntza:

- Eraikin berrien eskuetaratzea 2022an: Bidaxuneko jantokia, Mauleko Diziplina Anitzeko Osagarri-etxea (DAOE, fr. MSP), DPC bulegoak, HPBB zentro teknikoa Europar Formakuntza Zentroan (EFZ, fr. CEF)
- Operazio bat baino gehiagoren obratzea: Turbolab, Amikuzeko Osagarri-etxea, Gixuneko gaztelua, Mamurrak haurtzaindegia
- Proiektu azterketekin segitzea: Baionako ESS poloa, Bankako hirugarren gunea, Amikuzeko, Atharratzeko eta Baigorriko kirol gelak



## PLANIFIKAZIOA

Amikuzeko, Xiberoko, Hego Baxenabarreko elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Planen eta loturiko erronken diagnostikoekin segitzea.



## LURRA, ANTOLAKETA eta GARAPEN ekonomikoa

Egingarritasun-azterketen egitea xede ekonomikoko Euskal Elkargoko 18 sektoretan (Ahetze, Aiziritze-Gamue-Zohazti, Angelu, Bardoze, Bidaxune, Beskoitze, Sohüta, Ezpeleta, Ezpeize-Ündürene, Bastida, Baigorri, Donazaharre, Arrosa, Senpere, Ahurti eta Uztaritze).



## HONDAKINEN KUDEAKETA:

- Laneko Osasuna eta Segurtasuna (LOS) desmartxa – prebentziorako laguntzaile sarearen hilabeteroko bilkuren abiatzea / gaikako 5 lantaldeen abiatzea (14 bilkura).
- Bereizketarako aginduen hedatzera pasatzeko prestaketa (2023ko urtarrilaren 1ean), etxeak edukiontziz hornituz, borondatezko ekarpenerako zutabeak plantan ezarri.

**BIGARREN atala:**

# **LURRALDE- PROIEKTUA**

**Euskal Hirigune Elkargoaren 2022ko jarduera txostenaren helburua, gure lurralde-proiektuan zehaztuak diren orientabideen arabera, urtean zehar gauzatu diren ekintza eta proiektuei buruzko informazio sintetiko eta zehatza ematea da.**

Lurraldeko proiektu horretan zehaztuak diren 3 ardatz eta 21 politika publikoen arabera finkatua da:

**Ipar Euskal Herriaren erresilientziaren alde: gure baliabideak zaindu;**

**Herritarrez beteriko Ipar Euskal Herri bizi baten alde: gure hiri eta herriak bizkortu;**

**Ipar Euskal Herri engaiatu baten alde: gure garapen ereduak berriz asmatu.**

Sail bakoitzak politika publiko horien baitan 2022 urtean zehar burutu diren ekintza zehatzak agerian ezartzen ditu.


Ekintza bakoitzeko, haren testuinguruaren, helburuen eta obratzearen aurkezpen zehatza egiten da. Ekintza horiek gure lurraldean eta haren biztanleengan ukan dezaketen eragina balioestea ahalbidetzen duten neurgailuak ere lotzen dira. Azkenik, 2021ean finkaturiko Lurraldeko Klima, Aire, Energia Planarekin aurkezturiko ekintza desberdinen lotura aipatua da, trantsizio energetiko, berotegi efektuko gasen isurtzearen apaltze eta klima aldaketara egokitze mailan egiten ditugun ahaleginen ikuspegia emateko gisan.

Jarduera txostenaren xedea 2022an buruturiko ekintzen eta proiektuen hedadura ulertzeko eta Lurralde-proiektuaren obratzean lorturiko aitzinamenduak ulertzeko informazio iturri izatea da.

# 1. IPAR EUSKAL HERRIAREN ERRESILIENTZIA- TZIAREN ALDE: GURE BALIABIDEAK ZAINDU



# KLIMA, airea, energia, BIOANIZTASUNA



## IKUSPEGIAREN eta enGaiamenduen OROITARAZTEA

### IKUSPEGIA

Ikuspegi ahal bezain partekatu baten inguruan eraikiriko Lurraldeko Klima, Airea, Energia Planaren estrategia 2050 urtearen zerumugan Ipar Euskal Herria energia mailan soila eta ekologia eta sozial mailan erresilientea bilakatzean datza.

### 1. enGaiamendua

#### ENERGIA POSITIBOKO LURRALDEA BILAKATU

Ipar Euskal Herriaren strategiaren baitan soiltasuna, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarri ekoizlea triptikoan sartu izanagatik.

### 2. enGaiamendua

#### KARBONO APALEKOA ETA GUTIAGO KUTSATZEN DUEN LURRALDEA BILAKATU

2030erako berotegi efektuko gasen isurketa %18z apaltzeko helburuarekin

### 3. enGaiamendua

#### KLIMA ALDAKETARA EGOKITU

Ipar Euskal Herriko biztanleria, aktibitateak eta baliabideak babesteko.

### MARTINE BISAUTAREN HITZA, Lehendakariordea, Trantsizio ekologiko eta energetikoa

2022ko bigarren sei hilabetekoan hausnarketa eta berregituratze lan handia abiatu zen Euskal Hirigune Elkargoan "Trantsizio energetikoaren eta planifikazio ekologikoaren Idazkaritza Nagusia" sortzeko. Idazkaritza horrek gai horretan aterabide zehatz, baliagarri eta humanoa izatea du xede, gure ekintzak zalutu eta handitzeko. Ipar Euskal Herria usu aitzindarienez, antolaketa hori berrikuntza bat da Frantzia mailako Hirigune Elkargo batentzat. Idazkaritza nagusi horrek Euskal Elkargoaren zuzendaritza guziak gaintik gidatzen ditu, trantsizio ekologiko eta energetikoaren aldeko eraginkortasuna zeharkatasunez bermatzeko eta gure ekintzak koherentzian ezarri, handitu eta zalutzeko. Haren herrian trantsizio ekologikoa eta energetikoa gauzatu nahi duen eta hori lortzeko laguntza behar duen auzapez batentzako sarbide naturala da. Idazkaritza horrek lana erraztu beharko dio. Gainera gure elkargoaren zentzuan doa Euskal Elkargoaren ingeniartzan eta finantzamenduan bermatzen ahal diren herri ttipi guzien laguntzaile izatea.

# euskal HIRIGUNE ELKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### KLIMA ALDAKETARA EGOKITU

2019az geroztik Euskal Hirigune Elkargoak tokiko naturalista adituz inguratu nahi izan du, haren lurraldean bioaniztasun mailan jokoan denaren ezagutzan lagun dezaten.

Bioaniztasun mailako erronkak eta sare ekologikoak identifikatzeko eta espazioan kokatzeko ikerketaren abiatzeak, eragileen adoste fase batekin lotua, Xiberoan trama berde eta urdinen lehen elementuak ezartzea ahalbidetu du. Akitania Berriko Ereku Naturalen Kontserbatorioarekin eta lurraldeak onetsiriko Frantziako Kontserbatorio Botanikoekin partaidetzan, Euskal Hirigune Elkargoak Ipar Euskal Herriko trama ekologikoa identifikatzeko lanekin segitu du. Osagarri gisa zientzia programa parte-hartzaile bat abian eman du, animalia-espezie batzuei buruzko oharra biltzeko. Gisa horretan, "iNaturalist" izeneko aplikazioaren bidez, Ipar Euskal Herrian presente diren eremu natural desberdinetako 19 espezie adierazleren panel bati buruzko behaketa argazkiak igortzeko parada eman die herritarrei.

### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza honek 1.1 "Ondare naturala zaindu eta lurraldeko egitura ekologikoa sendotu" ekintza fitxari erantzuten dio. Honen xedea da, bereziki lurraldeko hezurdura ekologikoa eta honi loturiko erronkak hobe ezagutzea, eremu naturalak eta bioaniztasuna babestea eta eragileak, publiko zabala eta ikasleak bioaniztasuna zaintzeko beharri sentsibilizatzea.

#### ZENBAKI BATZUK

# 226

behaketa  
naturalista  
herritarren  
ekarpenei esker

## 2. EKINTZA

### ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA EMENDATU

Ondorioztagarriak izan diren egingarritasun ikerketa berriak egitearekin, berokuntza edo hotz sareen garapena indartu da (Baigorri, Uztaritze, Hazparne). Aipatzekoa, abenduan itsasbaterreko berokuntza/hotz sarearen garapenerako ikerketa abian eman zela 18 herrirekin (Euskal Kostalde-Aturriko eremua, Hego Lapurdiko eremua eta Hiriburuko herria). Ikerketa honek sareak sortzeko kontsumoaren azterketa eta baita sareak elikatze berokuntza/hotz baliabideen azterketa ere (berreskuratzen den energia, geotermia, talasotermia, eguzki termia eta biomasa) barne hartzen zituen.

### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ipar Euskal Herriko Klima Planaren ekintza planeko 7. ardatzaren 4. ekintza, berokuntza eta beroaren berreskuratze sareak garatzen datza. Beroaren baltsako berreskuratzeak irabazte interesgarriak ahalbidetzen ditu energia kostuari, mantentzeari eta sistemen ustiatetari dagokionez.

#### ZENBAKI BATZUK

# 110 GWH

BALIZKO BERO BERRESKURATZAILE,  
hots, C etiketa energetikoa duen 100m<sup>2</sup>-ko  
11.000 etxeren berotzearen baliokidea

# 25 700

CO2 TONA URTEKO, POTENZIALKI  
SAIHESGARRIAK

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### 2022KO KLIMAREN ASTEA

Klimaren astea, ekitaldien arloan, Klima Planaren hari nagusia da. Urriaren bigarren astean iragaten da eta lurraldeko eragileak eta herritarrak mobilizatzea du helburu. 2022ko edizioak Antolaketa eta Arta lelopean iragan zen eta hitzaldien, erakusketen, ibilaldien mahai-inguruen edota zine-eztabaiden bidez hedatu zen. Orotara 62 ekimen proposatu ziren 43 herritan, herriburuen dinamizazioa, eraikin zaharren zaharberritzea, naturaren lekua hirian, itsasbazterreko arriskuen kudeaketa edo uraren kudeaketa bezalako erronkak aipatzeko.




## 2. PROIEKTUA

### IPAR EUSKAL HERRIKO EGUR-PLANAREN ONTZA

Ontze bidean den Egur-plana erabakitzen laguntzeko tresna izanen da hautetsientzako, lurralde mailan egurraren sailaren egoera eta honen balizko garapena ebaluatzea ahalbidetuko baitu. Ikusmolde prospektibo eta parte hartzailean oinarritua, saila egituratzeko behar den guziaz hornituko du, zuraren eta zur hostoen (egur xehatua) hornikuntza faboratuz, emaitza tekniko, emaitza ekonomiko eta ingurumen emaitza onak konbinatuz.

Baliabide kalkulatuari dagokionez, baliabide kartografiatuaren desberdina dena, Ipar Euskal Herriak 87.600ha ( $\pm$  5 900 ha) oihan ditu, %74 pribatua eta %26 publikoa. Bolumenari dagokionez, zutik diren zuhaitzek 29,8 Mm<sup>3</sup> ( $\pm$ 4,6 Mm<sup>3</sup>) ordezkatzeko dute, hots, 340M<sup>3</sup>/ha ( $\pm$  48 m<sup>3</sup>/ha). Gehienak hostozabalak dira (haritza, pagoa, gaztaina), %94a, eta %6a arraxintsua. IGNak 441.000 m<sup>3</sup>ko urteko ( $\pm$  84.000 m<sup>3</sup> urteko) ekoizpen garbia (egur sendoa orotara) kalkulatu du, hots, 5 m<sup>3</sup>/ha/urteko ( $\pm$ 0,9 m<sup>3</sup>/ha/urteko).

## 1. IPAR EUSKAL HERRIAREN ERRESILIENTZIAREN ALDE: GURE BALIABIDEAK ZAINDU



# UR-ZIKLOAREN KUDEAKETA INTEGRATUA

### IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Denen ondasun, kudeaketa publiko eraginkor eta iraunkorra behar duen balio handiko baliabidea da ura. Euskal Elkargoak uraren etxeko zikloa eta ziklo naturala kudeatzen ditu aldi berean. Kudeaketa integratu horrek lurraldean ekintza koordinatu eta koherenteak burutzea bermatzen du, edateko uraren hornikuntzan segurtasun berriak eskainiz eta dentsitate apala duten lurraldeetan obrak eginez.

#### 4. engaiamendua

##### KALITATEZKO EDATEKO URA DENENTZAT ESKURAGARRI DELA BERMATU

eremu kritikoenetan edateko uraren banaketarako baldintzen hobekuntzaren bidez eta bereziki tarifa sozial bat proposatzen duen prezioaren harmonizazioaren bidez.

#### 5. engaiamendua

##### IPAR EUSKAL HERRIKO 500KM ERREKA/IBAIEN KALITATEA HOBETU

ur ingurune horien babes iraunkorraren desmartzaren baitan

### MAIDER AROSTEGUYREN HITZA,

Lehendakariordea, Ekonomia urdina  
– Saneamendua eta euri urak eta  
Emmanuel Alzuri, Kontseilari Ordezkarria  
Edateko ura – Itsasbazterra, GEMAPI eta  
Ingurune Naturalak

2022ko udan bizi izan zen idortearen ondorioek, 2022ko urtarrileko uholde handien ondorioek bezala, gure politika publikoak aurreikusteko eta egokitzeko beharra oroitarazten digute, betiere egiteko ditugun gaitasunen inguruan pragmatikoak izanez. Ondorioz, uraren zikloari buruzko politika publikoak borondate onez eta epe luzeko ikuspegiarekin bideratzen dira.

# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOa AITZINA DOa

## 1. EKINTZA

### EDATEKO URAREN KALITATEa eta KANTITATEa BERMATU BALIABIDEa KONTROLATUZ

- 2022ko idortea menperatzea: biztanleria ez zen luzaz egon ur eskasian eta, banaketari dagokionez, krisi egoera guzietan aterabide bat atzeman zitzaien. Larrialdi egoerako interkonexioak plantan eman ziren.

- Banaturiko edateko uraren osasun arautasunaren menperatzea

- Abiaturiko lanek, ekipamenduen ustiaketa hobetzeak bezala, osasun kontrolak egitean agerturiko kalitate baloreen ez-arautasunaren muga zirenen kopurua molde adierazgarrian apaltzea ahalbidetu dute (2021 eta 2022 artean: %-40 atal bakteriologikoan eta %-70 atal kimikoan)

Ur galtzen menperatzea epe luzean

## KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 1. ardatzarekin lotua da: Klima aldaketari egokitu: lurraldea, haren biztanleak, haren baliabide naturalak eta haren aktibitateak zaindu, ondoko helburuekin:

- lagin hartzeak mugatu,
- gutiago kontsumitu,
- epe luzean Ipar Euskal Herriaren garapena bermatu

### ZENBAKI BATZUK

**%28KO PLUBIOMETRIA  
GUTIAGO 2022an**

IPAR EUSKAL HERRIKO HERRIEN %60a  
MURRIZKETEKIN; 4 HERRI ZISTERNAZ HORNITUAK:  
IDORTEAREN OROTARIKO KOSTUA: 240 K€

**BIZTANLERIAREN %99,67ARI KALITATE ONEKO URA  
HORNITU ZITZAION 2022an**

**%22KO UR GALTZEA SAREETAN**

**OROTARIKO ERABILPENEN KONTSUMOa NAHIKO  
HANDIA DA = 192 L /BIZT / EGUNeko (FRANTZIA  
MAILAKO BATEZ BESTEA BAINO %15 GEHIAGO)**

## 2. EKINTZA

### KALITATEZKO AZPIEGITURETAN MASIBOKI INBERTITU

Tratamendurako prozedura landuak dituzten 5 lantegiek (Helbarrun, Maule, Xoldokogaina, Urdazuri, Errobi) Ipar Euskal Herriko ekoizpenaren erdia inguru bermatu zuten 2022an. Gainerateko beharrak ingurumen naturalean hartuak eta banaketan sartuak izan direnekin bermatu ziren, kasu gehienetan desinfektatze simple baten ondotik.

Ekoizpena optimizatzeko eta hornikuntzen segurtasuna hobetzeko gisan, baliabideari buruzko ikerketa orokorra abian eman zen 2020an eta 2023 hastapenean bururatu. Behin betiko ondorioek, alde batetik, ondarearen ezagutza hobetzea ahalbidetzen dute (ekoizteko gaitasuna) eta, bestetik, lurraldearen beharren arabera baliabideak optimizatzea.

Sareen plan guzietan bat egiteko baliabideak eta hauen ekipamendu egituratzailea mobilizatuak dira, Euskal Hirigune Elkargoaren eskumen guzietan mailan gidaturiko informazio sistema geografikoaren (GIS, fr. SIG) baitan.

- 309 biltegiak bermatzen dute 110.000 m<sup>3</sup>-ko edateko ur metaketa.

- ur hodian 2/3ak 60 urte baino gutiago ditu

## KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 1. ardatzarekin lotua da: Klima aldaketari egokitu: lurraldea, haren biztanleak, haren baliabide naturalak eta haren aktibitateak zaindu, ondoko helburuekin:

- Beharrezkoa den edateko uraren ekoizpena bermatu,
- Ipar Euskal Herriaren garapena epe luzean bermatu

### ZENBAKI BATZUK

**25 MILIOI €**

zerga guziaz barne (fr. TTC) edateko  
urean inbertituak

**138 EKOIZPEN GUNE /  
5.600 KM HODITERI /  
309 BILTEGI**

**92  
BANAKETA SARE**

# IPAR euskal HERRIA ERALDATZEN DUTE PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### EDATEKO URAREN IPAR / HEGO INTERKONEXIO-LANAK

Euskal Hirigune Elkargoak laguntza-interkonezio proiektua abiatu du, Angelun den Errobiko edateko uraren ekoizpen lantegiaren eta Senperen den Helbarruneko edateko uraren ekoizpen lantegiaren artean. Interkonezio horrek euskal kostaldearen ur hornikuntza bermatzea ahalbidetuko du, hazkuntza demografiko handia bizi duten bi ekoizpen nagusietarik batek eskasiarik pairatuko lukeen kasuan. Bidarte herriaren ur beharren erdia hegoaldetik asetzea ere ahalbidetuko du. Interkonezioaren martxan ezartzeko helburua, 2023 bukaera.



© Mathieu Prat

## 2. PROIEKTUA

### URAREN SEGURTASUN SANITARIOAREN PROGRAMA OROKORRA (USSPO, FR. PGSSE)

2021eko agorrilaren 22an promulgaturiko “Klima eta Erresilientzia” legeak eta 2022-2027 Uren Antolaketa eta Kudeaketarako Eskema Nagusiak (UAKEN, fr, SDAGE) baliabide estrategikoen zaintzeko eremuen identifikatzea eta babesa aurreikusten dute, bilakaera demografikoa eta klima aldaketa kontuan hartuz. Hirigintza dokumentuak lurraldearen garapenak eragiten duen ur beharrak satisfatzeko helburuarekin bateragarriak izan behar dira, etorkizuneko oreka kuantitatiboa eta kualitatiboa nahasmendurik sortu gabe.

Aturri-Garona Uraren Agentziak eta ARSak (Pirinio Atlantikoetako departamenduko ordezkariak – DDARS64) lagundurik, Euskal Hirigune Elkargoa ur gordinen eta banatuen kalitatearen zaintza zorrotza barne hartuko duen segurtasun sanitarioarako prebentziozko desmarta plantan ezartzera engaiatzen da.

USSPO horrek edateko uraren zerbitzuaren ekintza guzien desmarta integratzailea osatzen du.



© CAPB - L.Tomassi



© CAPB - L.Tomassi

### 3. PROIEKTUA

## U HOLDE-ARRISKUEN KUDEAKETARAKO TOKIKO ESTRATEGIA ETA U HOLDEEN PREBENTZIORAKO OBREN BERRIZ HARTZEA

2022 urtea uholde arriskuen kudeaketarako tokiko estrategiaren lerro handiak zehazteari eskainia izan zitzaion. Ekintza nagusietako bat, Elkargoak jadanik kudeatzen duen ondarea osatzen ahalko luketen prebentziorako obra pribatuak berriz hartzeko irizpideak zehaztea izan zen.

© CAPB - G.Wimar



© CAPB - G.Wimart


Estrategia 4 ardatzetan oinarritzen da:

- 1. fenomenoaren ezagutza hobetu, ikerketa hidraulikoen eta uholdeen ondoko lurren segimenduari bidez
- 2. krisi kudeaketarako antolakunde bat eta tresnak plantan eman, eta baita etengabeko hobekuntzarako ere (Aitzin-abisu sistemak, herrietako zaintza planak sortzeko laguntza, espreski Elkargoarena den zaintza plana sortu).
- 3. uren igotzea mugatzeko tresna guztiak optimizatu: ibarbasoaren mantentzean ur bazterreko biztanleen laguntza, prebentzio obren kudeaketa (UIKUP eta Euri eta Hiriko Uren Kudeaketa EHUK, fr. GEPU)

- 4. hiriaren planifikazioan eta publikoarentzako informazioan arriskuaren ezagutza sartu

*2023/03/04ko 38. deliberoak eremu horen inguruko xedeak berretsi zituen.*

## IPAR EUSKAL HERRIAREN ERRESILIENTZIAREN ALDE: GURE BALIABIDEAK ZAINDU



# ITSASBAZTERRA eta ITSASOA

### IKUSPEGIAREN eta ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Euskal Hirigune Elkargoak euskal itsasbazterra eta bainu-uren kalitatea zaintzeko lan egiten du, saneamendu mailako lan egitarau handiaren bidez eta baliabide zientifiko eta finantzariak engaiatuz.

#### 6. engaiamendua

##### BAINU-UREN KALITATEAREN ALDE LAN EGIN ,

35 bainu-eremuen kudeaketa aktiborako tresna berritzaileak plantan emanez.

#### 7. engaiamendua

##### HIGADURA eta MURGILKETA ARRISKUEN AURKA BORROKATU,

gorabehera klimatikoetara egokitzea helburu duen programa plantan emanez: Itsasbazterreko arriskuen tokiko kudeaketarako estrategia.

#### 8. engaiamendua

##### BIOANIZTASUNA ZAINDU

bereziki itsasbazterreko eta itsasoko Natura 2000 sarea animatuz.

#### MAIDER AROSTEGUYREN HITZA,

Lehendakariordea, Ekonomia urdina – Saneamendua eta euri urak eta Emmanuel Alzuri, Kontseilari Ordezkaria Edateko ura – Itsasbazterra, GEMAPI eta Ingurune Naturalak

Euskal Hirigune Elkargoa itsasbazterreko herriekin partaidetza desmartxa baten baitan kokatzen da eta hondartza irekia delarik erabiltzaileei ura kalitate onekoa dela segurtatzea ahalbidetzen dien bainu eremuen kudeaketarako tresna aktibo berritzaileak plantan ematen ditu.

Euskal Elkargoak Opstreopsis mikro-algaren garapenerako baldintzen zaintza esperimentalak koordinatzen du, eta baita honek ingurumenean eta osasun mailan dituen eraginaren zaintza ere.

28.000 erabiltzaile berrirekin 2022an eta 800.000 konexio baino gehiagorekin, KALILLO aplikazioa Ipar Euskal Herriko bainu uren kalitatea zuzenean ezagutzeko tresna erreferentea bilakatu da.



## 1. EKINTZA

### BAINU-UREN KALITATEA HOBETU

Bainu-uren kalitatearen segimendu proaktiboa

Uda garaian, Euskal Hirigune Elkargoaren ardurapean eta herriekin lotura eginez, bainu-eremuen kalitatearen eguneroko segimendua egiten da, izan 34 hondartzetan zein Senpereko aintziran. Euskal itsasbaterrean analisia lasterrak egiten dira emaitza 3 orenen buruan (ohiko metodoak 36 orenekoak dira) eta hondartzak ideki aitzin eskuratzeko gisan. Gainera, modelizazio tresnek ingurumen faktore guztiak eta saneamendu sistemen funtzionamendua zuzenean aztertzea ahalbidetzen dute, uren kalitatearen bilakaera aurreikusteko gisan.

Prebentziozko hesteen %95 euria delarik gertatu dira, elkartzan ahal ziren bi fenomenorekin lotuak:

- araztegietatik gora kokatuak diren eta intentsitate handiko gertaldiak kudeatzea ezinezkoa zaien saneamendu sistemak (bilketa sareak eta metatze urmaelak).

- kostaldeko erreka/ibaiei ur handitzeak

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 1. ardatzarekin lotua da: Klima aldaketari egokitu: lurraldea, haren biztanleak, haren baliabide naturalak eta haren aktibitateak zaindu, ondoko helburuekin:

- Bainuaren segurtasun sanitarioa bermatu,
- Erreka/ibaiei kalitatea zaindu (kostaldekoak integratuz)
- Epe luzean Ipar Euskal Herriaren garapena bermatu

#### ZENBAKI BATZUK

### 21 HONDARTZA BANDERA URDIN LABELIZATUAK

ARS-ak kalitate biziki ona edo ona aitorturiko eremuak

## 200 000 PERTSONA egunean

uda betean

%95,7 = HONDARTZEN IREKITZE-TASA MAIATZA ERDITIK IRAILA BUKAERARA (AUTORITATE SANITARIOAK SEGIMENDUA EGITEN DUEN GARAI OFIZIALA)

2022an, 13 M€ ZOB (FR. TTC) KOSTALDEKO saneamendu sistemekin LOTURIKO OBRENTZAKO (EUSKAL KOSTALDE-ATURRIKO ETA HEGO LAPURDIKO SEKTOREAK)

# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK AITZINA DOA

## 2. EKINTZA

### ITSASBAZTERRA HIGADURATIK BABESTU: ITSASBAZTERREKO ARRISKUEN KUDEAKETARAKO TOKIKO ESTRATEGIA (IAKTE, FR. SLGRL)

Legareen arauzko eskakizunei erantzuteko gisan eta gai honetan duen gidari rolaarekin koherentzian, Euskal Hirigune Elkargoak 30 urteko zerumugari eta 100 urteko zerumugari begirako ikerketa egitea IGMBaren (ikerketa geologiko eta meategietako bulegoa, fr. BRGM) esku utzi du, hunkituak diren eragile desberdinekin adosturik (herriak, Estatua, Eskualdea, Departamendua, LuKE Sindikatua, Itsasbaterreko GIP).

Arriskuaren kudeaketa eta prebentziorako egiazko tresna, ekintza programa zazpi ardatz gehigarritan deklinatzen da:

- Arriskuaren ezagutza eta kontzientzia hobetu,
- Higadura eta murgiltze gorabeherak zaindu eta aurreikusi,
- Krisin kudeaketa hobetu
- Hirigintza dokumentuetan arrisku naturalak kontuan hartu
- Jendeen eta ondasunen zaurgarritasuna apaldu,
- Prozesu naturalak segitu (borroka aktibo "goxoa"),
- Kostaldeko babeserako obrak zaindu (borroka aktibo "gogorra")

%65ean europar FEDER funtsek finantzaturiko 2,5 M€-ko diru zamaz horniturik, EZPONDA ikerketa programak itsaslabar arrokatsuen andeatze fenomenoaren ezagutza hobetzeko xedea du.

#### ZENBAKI BATZUK

## 35 KM ITSASBAZTER HAUETARIK 30 KM-KO KOSTALDEA 10 ETA 70 METRO ARTEKO ITSASLABAR ARROKATSUAK IZANIK

ITSASBAZTER ZERRENDAN = BIZTANLERIAREN

# %40

0,2 m-KO BATEZ BESTEKO GIBELATZEA URTEAN KOSTA ARROKATSUAN, ETA 0,5 M-KO KOSTA HONARRETSUAN

# IPAR eUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTE PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

**DONIBANE LOHIZUNEKO ANTOLAKETA PARTAIDETZA  
PROIEKTUA: DONIBANE LOHIZUNEKO IPAR ITSASBAZTERREKO  
GUNEa BERRIZ OSATZEKO PROIEKTUAREN OBRATZEA,  
30 URTEKO ETA 100 URTEKO ZERUMUGEI BEGIRAKO  
KOSTALDEAREN GIBELATZEARI EGOKITZEKO.**

Santa Barbaratik Zenitzera, 2043ko epemugan, kostaldearen gibelatzeak 5 kanpin, 7 ostatu eta jatetxe, etxebizitza zenbait, bide zati batzuk, aparkatzeko guneak eta Artxiloa araztegia mehatxatzen ditu. Horregatik, 2021eko urrian, Frantzia mailako lehen “kostaldearen gibelatzeari egokitzea” Antolaketa Partaidetza Proiektua (APP) izenpetu zen, 2021-2024 epealdian Donibane Lohizuneko kostaldearen gibelatzeari egokitzeko gisan. Gehigarri bidez osatuko da segidarako. Frantzia mailako mota horretako lehen partaidetzaz mintzo gara. 3 obralarik eramaten duten (Euskal Hirigune Elkargoa, Herria eta Mugikortasunen Sindikatua) 5 ardatzetan eta 10 operaziotan deklinatzen da:

1. Gunearen berrantolaketa proiektua (erronken gibelerara egitea) sendotu eta partekatu, kostaldearen gibelatzeari egokitzeko gisan
2. Itsasbazterra berriz naturatu, paisaia balioztatu eta ondare eremu naturalak zaindu
3. Eskaintza turistikoa (kanpinak, ostalaritza) kostaldearen gibelatzeari egokitu eta paisaia mailan hobe integratu
4. Mugikortasuna berrantolatu, itsas aitzinarekin aparkalekuak eta urrun diren aktibitateak lotzeko
5. Kostaldearen gibelatzeaz mehatxatuak diren ur araztegiak lekuz aldatu.

Operazio horren 6,4 milioi euroak Estatuak eta “France Relance” programak 2,6 milioi euroko heinean finantzatzen dituzte.

2022an, Donibane Lohizuneko aldiriko aparkalekuen irekitzea.

2023an, Artxiloako araztegia lekuz aldatzeko elkar aditzea aurreikusia.



© balloide photo



© balloide photo



## HIRIGINTZA eta ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

### IKUSPEGIAREN eta ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Ipar Euskal Herria bizitasun handiko lurraldea da demografikoki zein ekonomikoki. Ipar Euskal Herriaren antolaketa integratua pentsatzea eta horretarako behar dena egitea Elkargoaren sortzearen oinarrietako bat da. Maila horretan, lurralde baten batasuna zaintzea eta berriz asmatzea ahalbidetzen du horrek, herri eta hiriak, itsasoa eta mendia, ondarea eta modernitatea, ekonomia emankorrak eta erresidentzialak... elkartuz

#### 9. engaiamendua

##### IPAR EUSKAL HERRIAREN ANTOLAKETA eta BIZITASUNAREN ALDE EKIN

arrakasta gutiago duten eremuen erakargarritasunaren motorra piztearekin batera euskal kostaldeak eta kostalde ondokoek pairatzen duten presioa erregulatuz.

#### 10. engaiamendua

##### BALIABIDE eta ONDAREAK ZAINDU

bazter gogoangarriez balditzearen eta bazter miresgarriak arunt bilakatzearen arteko oreka xerkatuz, nortasun bat atxikitzeko.

#### 11. engaiamendua

##### LURRALDE-PROIEKTUAREN ZERBITZUKO DEN LUR-FUNTSEN ESTRATEGIA ONDU

laborantza lur-funtsak eta bizi ingurumena babesteko borondatea garapen politikekin artikulatzearen bidez.

#### 12. engaiamendua

##### ELKARGOKO eta HERRIKO ETXEETAKO POLITIKA PUBLIKOAK PLANTAN EZARTZEA AHALBIDETUKO DUEN HIRIGINTZA DOKUMENTU BAT (LUKE ET HTHP) SORTU

#### BRUNO CARRÈREN HITZA,

##### Lehendakariordea, Lurralde antolaketa iraunkorrerako estrategia – hiri, ondare eta publizitate planifikazioa

Euskal Elkargoak erronka anitz ditu aitzinetik, bereziki haren erakargarritasuna ingurumenaren arazoarekin gurutzatzen direnak, baina lurraldearen antolaketa iraunkorraren zerbitzuko den desmartxa aurreikuslearen baitan arazoak eskutan hartzen jakin du. Hori bereziki agerikoa da elkargo azpiko hirigintza dokumentuen ontzearekin, Herriko Etxeetako politika desberdinei erantzuten dioten lur-funtsen estrategiaren plantan ezartzearekin edota “Biharko Hiri Ttipiak” baliabidearen bidez herriak laguntzearekin.

# euskal HIRIGUNE elKARGOa aitZina DOa

## 1. EKINTZA

### GURE LURRALDEKO HERRI GUZIAK PLANIFIKATZE DOKUMENTUZ HORNITU

2021eko ekainean, Euskal Elkargoak 3 herriarteko Tokiko Hirigintza Planen ontzea abian eman zuen barnealderako (Amikuze, Hego Baxenabarre eta Xiberoa). Gisa horretan, 2022 urtea antolaketa eta garapen iraunkorrerako proiektuen (AGIP) diagnostiko eta ontzean kontzentraturiko obren segitzearekin nabarmendu zen.

Aldi berean, Euskal Elkargoak tokiko planifikaziorako dokumentuen aldatze, berrikuste eta ontze proiektuetan laguntzen ditu herriak, bereziki 5 aldaketen onarpenarekin (hauetarik 2 sinplifikatuak), Senpereko THParen berrikuste orokorarekin eta Ziburun THParen ontzearekin, zeinak lurraldearen planifikazio dokumentu mailako horniketa osatzen baitu.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

2. ardatza eta 2.3 fitxa: "trantsizio ekologiko eta energetikoaren helburuak hTHPea agerrarazi eta molde egingarrian hirigintza arauetan deklinatu."

Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plan desberdinen ontzeak, Ipar Euskal Herriko Klima Planaren erronkak lurraldearen antolaketa operazionalen integratzea laboratuko duen tresna-kutxa baten sortzean parte hartzen du, hauen arauzkotasunaren egikaritzearen bidez.

### ZENBAKI BATZUK

#### 6 PROZEDURA ENGAIATUAK

(5 ALDAKETA ETA THP-AREN  
BATERAGARRITASUNERA DARAMAN  
PROIEKTU DEKLARAZIO BAT) ETA  
7 PROZEDURA ONARTUAK

49 AUZIBIDE-PROZEDURA  
BURURATU ZIREN,  
2020AN ONARTURIKO 9 THP-EN  
DOKUMENTUEN AURKA AGERTZEKIN  
LOTURIK

## 2. EKINTZA

### HIRIGINTZA BAIMENEI LOTURIKO ESKAEREN AZTERKETA SEGURTATU

Hirigintza baimenen azterketa lau lurralde eremuetatik (Amikuze, Errobi, Aturri-Errobi eta Hego Lapurdi) abiatu egiten da, 99 herrirentzako. Hein batean notarioen desmartzak errazten dituen eskaera txostenak pausatze sarako leihatilaren plantan ezartzearen eraginez, hirigintza ziurtagiri informatiboaren kopuruaren emendatze handia egiaztatu da.

Orokorkiago, 2022 urtea elkargoko eta herrietako agenteen formakuntza behar izan zuen azterketaren desmaterializazioarekin segitzeak markatu zuen.

Erabilpen aldaketarako baimenen emateko baldintzak finkatzen dituen arau berriaren bozkak aldi baterako baimen eskaera txostenen pausatze masiboa ekarri duzuen.

Azkenik, Hazparnealdeko hautetsiek bultzaturik, obren finitzearen eta araberakotasunaren kontrolerako zerbitzu komuna plantan eman zen esperimendazio epealdi baterako eta honen zabaltzea aurreikusten da.

### ZENBAKI BATZUK

#### 9137 TXOSTEN AZTERTUAK Hauen artean:

1769 ERAIKUNTZA BAIMEN,

125 ANTOLAKETA BAIMEN ETA  
37 SUNTSIKETA BAIMEN

3142 AITZINETIKAKO DEKLARAZIO

4064 HIRIGINTZA ZIURTAGIRI  
(OPERAZIONALAK ETA INFORMAZIOZKOAK)

3000 ERABILERA ALDAKETARAKO ALDI  
BATERAKO BAIMEN ESKAERA TXOSTEN  
BAINO GEHIAGO, 2021EAN 750 IZAN ZIREN

### 3. EKINTZA

## ONDAREAREN ETA PAISAIAREN BABESA SEGURTATU

Ondarearen eta paisaiaren babesa lurralde baten antolaketako erronka nagusia da, partikulariki Euskal Hirigune Elkargoaren baitan, hau haren kultura, arkitektura eta natura ondarearen aberastasun handiaz ezaugarritua baita.

Euskal Hirigune Elkargoak gaia bere egin du Ipar Euskal Herriko Paisaia Planaren (Trantsizio ekologikorako ministerioak labelizatua) ontzearen bidez eta bereziki 2022an gehituriko diagnostikoaren ekoizpenaren bidez, baina baita arkitektura ondarearen inbentarioaren bidez ere, 2022ko uztailean onartu zen herriarteko tokiko publizitatearen araudiaren eta beste sektore batzuetako ondare ohargarri batzuen araudiaren plantan ezartzearekin segitzen zen bitartean.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Euskal Hirigune Elkargoak abiatutako desmarta desberdinak Ipar Euskal Herriko Klima Planaren baitan osoki sartzen dira, ondare naturalaren zaintzan eta ontze bidean diren dokumentu egituratzaile desberdinetan (hTHP, Ipar Euskal Herri-Seinautze LuKE, publizitate araudia...) integratzean parte hartuz. Zeharkako ekintza horrek LuKAEParen 1. eta 2. ardatzei erantzuten die arauzko transkripzio baten bidez:

- Klima aldaketari egokitu: lurraldea, haren biztanleak, haren baliabide naturalak, haren aktibitateak zaindu.
- Antolatu – Artatu: karbono ondoko lurraldea planifikatu eta eraiki.

### ZENBAKI BATZUK

# 1760

eraikin seinalatuak arkitektura ondarearen inbentarioaren baitan, Amikuzeko, Xiberoko eta Hego Baxenabarreko hTHPaz hunkituak diren 108 herrietan.

**60 EGITURA PARTAIDE PAISAIA PLANAREN ONTZEAREN BAITAN GONBIDATUAK.**

### 4. EKINTZA

## LURRALDE GUZIARENTZAKO LUR-FUNTSEN ESTRATEGIA KOHERENTEA SEGURTATU

Bereziki presioaren emendatzeari eta eskuragarritasun eskasiari buru egin behar dion lur-funtsen testuinguru partikulariki behartuan, Euskal Hirigune Elkargoak elkargoko lur-funtsen estrategiaren plantan ezartzea abiatu du. Perspektiba horretan, bi gai mota lantzeko bi gobernantza instantzia daude:

- Lur-funtsen strategiaren Gidaritza batzordea 2021eko martxoaz geroztik, Claude Olive lehendakari dela hamar lurraldeko kontseilarien eta hunkituak diren politika publikoetako lehendakariordeen presentziarekin. Gidaritza batzorde horrek aktibitate ekonomikorako eremuak har ditzaketen eremuetarako eginiko egingarritasun azterketen bilakaera eta TPHari loturiko bizilekuaren lur-funts estrategia segitzen ditu, baina elkargoko politika publikoek berezkoak dituzten gai guziaz ere bere gain har ditzake.
- Ipar Euskal Herri-Seignautze LuKEarekin batera Gidaritza batzorde bat sortu da Antolamendu Gibelatutako Eremuen (AGE) definitzearen baitan. Azken honen helburua tresna horren egokitasunaz hausnartzea da, xede helburuen arabera, bereziki ZAGarekiko (Zero Artifizializazio Garbia, fr. ZAN) eta problematika natural eta laborantzakoekiko, eta baita honen plantan ezartzeko moldez hausnartzea ere.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 2. ardatzarekin lotua da: Antolatu – Artatu: karbono ondoko lurraldea planifikatu eta eraiki. Lurralde mailako lur-funtsaren estrategia baten pantan ezartzeak erronka klimatikoaren erronkak osoki kontuan hartzean parte hartzen du, bereziki laborantza eta natura eremuen kontsumoaren inguruan hausnartzen duen desmarta aurreikuslearen baitan.

### ZENBAKI BATZUK

**18 AZTERKETA 2022an EGINAK**

**6 ZAD GIDARITZA BATZORDE ETA LUR-FUNTSAREN ESTRATEGIARAKO 2 GIDARITZA BATZORDE.**

## 5. EKINTZA

### BIHARKO 5 HIRI TTIPIEN SUSPERTZEKO PROIEKTUAK ONDU ETA PLANTAN EZARRI

Biharko Hiri Ttipien laguntza, herrien helburuen eta hauen lehentasunen menpeko diren tematika desberdinen baitakoa da. Xedeak, ekintzak eta asmoak deklinatzen dituen lurraldea suspertzeko operazioa 2022an izenpetu zen. Aurtengo urtea ere azterketa batzuen abiatzeek markatu dute, bereziki Maule-Lextarreko hiri sartzetako bat den Erresistentziaren plazaren berkalifikazioa, Donapaleuko xerrien merkatuaren eta inguruen bokazioa herriko hautetsiekin eginiko tailerren bidez, Donibane Garaziren zeharkatzearen ikerketak, Hendaiaiko hutsunearen analisia zorrotza edota Hazparneko Ezkien plazako lanak. Ekintza horiekin batera, 2022an Euskal Hirigune Elkargoak BHEPa (Bizilekuak Hobetzeko Eragiketa Programatua) azterketa aitzin-operazionala abiatu zuen 5 herrietan, bizileku pribatuaren azterketa zorrotza eta honi loturiko parkearen zaharberitze eta hobetzeko beharren analisia ahalbidetzen duena. Abiatze operazionala 2024ko hastapenerako espero da.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza honek LuKAEParen 2, 3 eta 4 ardatzei erantzuten die:

- Antolatu: karbono ondoko lurraldea planifikatu
- Bizi: soiltasun eta eraginkortasun energetikoa lagundu

- Mugitu: praktikak "osasunaren" onetan aldatu  
Lagunduriko proiektuak hiriko osasuna, mugikortasunak, hiri antolaketa... bezalako gaietan koka daitezke.

Herri horien laguntzak, bereziki bizilekuaren hobetze programaturako operazioaren bidez, erronka klimatikoari erantzutea ahalbidetzen du, jadanik dagoen parke pribatuaren berriz mobilizatzeko edo hobetzeko gaitasunari buruz hausnartzuz.

#### ZENBAKI BATZUK

### 5 HERRI BIHARKO HIRI TTIPIAK DISPOSITIBOAREN BAITAN SEGITUAK

(Hendaia, Hazparne, Maule-Lextarre,  
Donibane Garazi eta Donapaleu)

3 PROIEKTUBURU ASTEAN BI EGUNEZ ARI DIRA  
ELKARREKIN LANEAN

## 6. EKINTZA

### GÉOBASQUE INFORMAZIO GEOGRAFIKOKO SISTEMAREN OBRATZEA SEGURTATU

GéoBasque izena hartzen duen Euskal Elkargoko datu geografikoen azpiegitura berria 2022ko maiatzean abiatu zen. Euskal Elkargoko lurralde osoan eta politika publiko guzientzako datu geografikoen eskuragarritasuna zentralizatzea, harmonizatzea eta aberastea da helburua. Zeharkako tresna, halakorik bada, agente guzien eskuragarri emana da eta eragiteko beharrei (GIS tresna bereziak), lurraldearen ezagutza beharrei eta erabakiak hartzen laguntzeko beharrei erantzutea du xede.

Lanbideen zuzendaritzarekin partaidetza hertsian Lurralde Informazioa zerbitzuak garatua, hedapena elkargoko lanbide sailen bata bestearen ondoko logikan gertatzen da, 2025eko bukaera arte. 2022 urtea GéoBasque atariaren eta GeoSocle haren aplikazio nagusiaren abiatzeari eskainia izan zaio. Zeharkako aplikazioa, denentzako baliagarriak diren erreferentziazko datuak eta lanbideak biltzen ditu, eta lurraldeko datu geografikoen oinarria osatzen du.

#### ZENBAKI BATZUK

**231 AGENTE FORMATUAK**  
2022KO MAIATZA ETA ABENDUA ARTEAN

**DATU GEOGRAFIKOEN  
700 TAULA**

BAINO GEHIAGO GÉOBASQUE BALIABIDEAREN  
ESKURAGARRI EMAN DIRA EUSKAL  
ELKARGOAREN LURRALDEAN BAINA BAITA  
MUGAKIDE DIREN LURRALDEETAN ERE

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### ATOPIA PAISAIA AZTERKETA

2021eko udazkenean Euskal Elkargoak abiatua, Ipar Euskal Herriko Paisaia Plana diagnostiko batez, horren ondorio den paisaia kalitateko helburuen definizio batez eta 5 urteren baitako ekintza programa batez osatuko da. 2022 urtea 3 gaikako tailerren eta 9 lan partaidetza saioen gauzatzeak eta 4 paisaia ibilaldik markatu zuten, diagnostikoa egitearekin batera.



©CAPB - N.Mabille

## 2. PROIEKTUA

### BIZILEKUAREN HOBEKUNTZARAKO ETA GUNE ANITZEKO HIRI ARRABERRITZERAKO OPERAZIO PROGRAMATUAREN ABIATZEA “BIHARKO HIRI TTIPIAK” 5 HERRIETAN

2022ko irailean hasi zen “Biharko Hiri Ttipiak” baliabideko bost herriei zuzenduriko bizilekuaren hobekuntzarako operazio programatuaren helburuen egokitasuna estimatzea eta helburuak fintzea ahalbidetzen duen azterketa aitzin-operazionala. Laguntza hori, andeaturiko bizilekuaren identifikatzearen bidez, bizilekuaren eta prekaritatearen erronkei ematen zaien erantzuna da, baina baita, molde zabalagoan, Ipar Euskal Herriaren egitura eta lurraldearen garapen orekatuaren baldintzak bermatzen dituzten zentralitate horien suspertzeko erronkei ematen zaiona ere.



## 1. IPAR EUSKAL HERRIAREN ERRESILIENTZIAREN ALDE: GURE BALIABIDEAK ZAINDU



# ELIKADURA IRAUNKORRA

### IKUSPEGIAREN eta engaiamenduen OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Elikamolde trantsizioak, ekoizpen eta kontsumo ereduen inguruan elkarrekin eta sakontasunean hausnartzera eta ekoizpenerako, transformaziorako, banaketarako eta kontsumorako pista berriak esperimatzera behar izan dituzten lurraldeko eragileak. Euskal Elkargoak, "Denentzako elikadura sano eta iraunkorraren sustapen eta sustengua" eskumenaren bidez, denentzako tokiko eta kalitatezko elikadura iraunkor mailako politika boluntarista eta anbiziotsua garatzen du.

#### 13. engaiamendua

##### LURRALDEKO ELIKAMOLDE PROIEKTUA PLANTAN EZARRI

elikadura kate osoa hunkitzen duen eta gainerateko politika publikoekin artikulatzen den estrategiaren bidez.

#### 14. engaiamendua

##### HERRIEI HAIEN OSTALARITZA KOLEKTIBORAKO POLITIKA PLANTAN EZARTZEKO LAGUNTZA EMAN

eta, gisa horretan, laborantza biologikotik eta / edo tokiko sailetatik jiniko ekoizpenen hornitzea faboratu.

#### 15. engaiamendua

##### PUBLIKO ZABALA ONGI / HOBE JATEARI SENTSIBILIZATU

sentsibilizatze tailerren, elikagaien xahutzeari buruzko animazioen edo familiei zuzenduriko Elikadura desafio baten bidez.

#### ISABELLE PARGADEN HITZA, Lehendakariordea, Laborantza eta geroko elikamoldea

Haren Lurraldeko Elikadura Proiektuaren baitan lehentasunezko ardatz gisa sartuz, Euskal Elkargoak herrien ostalaritza kolektiborako proiektuak arreta bereziarekin begiratzeko hautua egin du. Ekintzen panela zabala eta anitza da: merkatuen erredakziorako laguntza, erosketetarako eta hornikuntzarako tresnen eskura ezartzea, elikagaien xahutzearen aurka borrokatzeko diru mailako sustengua eta jantegietatik plastika desagerraraztea.



# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK AITZINA DOA

## 1. EKINTZA

### HERRIEI ZUZENDURIKO ELIKADURA IRAUNKORRERAKO PROIEKTU DEIALDIA

Euskal Hirigune Elkargoak proiektu deialdi bat proposatu du elikagaien xahutzea gutitu eta haien jantegietatik plastika desagerrarazi nahi duten herriak laguntzeko xedez. Proiektu deialdi hori EGALIM legearen eta Ipar Euskal Herriko Elikamolde Proiektuaren helburuen baitan kokatzen da:

- Materialaren erostea sustengatu, plastikoa portzelanazko edo herdoilgaitzezko tresneriarekin (ontzitegia etab.) ordezkatzeko;
- Plastikazko estalkien kantitatea ttipitu, produktu gordin eta freskoak baliatzea ahalbidetuko duten sukaldeko ekipamendu ttipiaren erostea lagunduz;
- Elikagaien xahutzearen kudeaketa ona lagundu, bereizketa mahaien erostearekin adibidez.

Proiektu deialdia, 2022ko maiatzaren 30etik eta 2022ko uztailaren 15eko 12:00ak arte artean irekia, 2023 urterako berritu da.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 6. ardatzaren baitan kokatzen da: "Beste molde batez ekoiztu eta kontsumitu", helburutzat baliabideak zaintzea eta, "Zero hondakin, Zero xahutze" programaren helburuekin lotua, hondakinak saihestu eta balorizatzea duena.

#### ZENBAKI BATZUK

## 8 HERRI

BEREN PROIEKTUAN LAGUNDUAK 2022AN

# 20 828€

## ESLEITUAK

## 2. EKINTZA

### ELIKADURA IRAUNKORRARI SENTSIBILIZATZEDO TAILERRAK LURRALDEKO ESKOLETAN

Euskal Hirigune Elkargoak Sarde-Sardexka elkarte diruz sustengatzen du, publiko gaztea elikadura iraunkorriari sentsibilizatzeko ekintzak burutu ditzan. Joko forma hartzen duten tailer eta tresna desberdinei esker (dastaketa, usaimen eta sukaldaritza tailerrak, maleta pedagogikoak etab.), lehen mailako 3. eta 4. urteko ehunka haurrek animazio horiez baliatu ahal izan ziren 2022an.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 5. ardatzaren baitan kokatzen da: "Hobe jateko lurra landu", helburu nagusitzat elikamolde praktika jasangarriak faboratzea duena. Azken urteetako bilakaera gazteenen sentsibilizaziotik pasatzen da bereziki.

#### ZENBAKI BATZUK

## 300 HAURREK

SARDE SARDEKAREN SENTSIBILIZAZIO  
BATEN HARTZAILE IZAN ZIREN 2022AN

# “ IPAR euskal HERRIA eraldatzen DUTEN PROIEKTU HORIEK ”

## 1. PROIEKTUA

### IPARLAB DISTRIBUTIONEN SORTZEA

Euskal Elkargoak Iparlab Distributionen sortzea sustengatu du (75.000 €-ko laguntzarekin), egingarritasun azterketatik hasi eta gauzateraino. Izuran kokatua, kalitate desmarta batean engeiatuak diren berrogeita hamar etxalde ekoizle inguru biltzen dituen banaketa plataforma horrek (%80 biologikoan eta %30 Idoki-n<sup>1</sup> engeiatuak) lurraldeko elikaduraren profesionalak zirkuitu laburrekin hornitzen ditu: ostalaritza kolektiboa, ostalaritza komertziala, denda berezituak. Sekula ikusi gabekoa eta aitzindaria den inizatiba da, tokiko bezero profesionaleri faktura eta solaskide bakarrarekin tokiko eta kalitatezko etxaldekako mozkinen eskaintza osoa eskura ukaitea ahalbidetzen diena (barazki, fruitu, haragi, zereal, esneki etab.). Plantan ezartze operazionala 2022ko irailean hasi ziren..



© Iparlab

<sup>1</sup> IDOKI labelak jendearen heinekora eta kontsumitzailearekin zuzeneko harremanetan den etxalde ekoizpena definitzen du. Laborantza Herrikoieko praktika « zintzo eta herritarra » baldintzen bilduman deklinatua dira eta kanpoko antolakunde batek kontrolatuak. IDOKIk etxalde ekoizpen arloaren aniztasuna ordezkatzen du




© Iparlab

## 2. EKINTZA

### IPAR EUSKAL HERRI GUZIA “JANARI SALTEGI SOZIAL” GISAKO ZERBITZU BATEZ HORNITZEKO AZTERKETA


Euskal Hirigune Elkargoak, Ipar Euskal Herriko EGEZarekin batera, janari saltegi sozial gisako zerbitzuaren plantan ezartzeari buruzko azterketa gidatu du eremu xurien mailan (janari saltegi sozialez hornituak ez diren lurraldeak). Lurralde batzuk identifikatuak izan dira: Errobi-Aturriko, Errobiko, Hazparnealdeko, Bidaxunealdeko, Amikuzeko eta Iholdiko eremuak.

Antolaketa proposamenak formulatu dira eta lurraldeetako hautetsiei aurkeztuko zaizkie 2023 urtean zehar. Ondoko etapa tokiko ekoizleekin lotura duten saltegi-tako hornikuntzaren kalitatea lantzea izanen da.



# 2. HERRITARREZ BETERIKO IPAR EUSKAL HERRI BIZI BATEN ALDE: GURE HIRI ETA HERRIAK BIZKORTU

# BIZILEKUA eta JENDE IBILTARIA



### IKUSPEGIAREN eta ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Bizilekuari dagokionez, dinamikek herrien logikak aise gainditzen dituzte. Politika publiko hori Ipar Euskal Herriaren heinean eramateak presio pean diren itsasbazerreko eta kostalde ondoko eremuen eta azpimarratzekoak diren abantailak dituen Ipar Euskal Herriaren barnealdearen arteko analisia eta ekintza gehigarriak egitea ahalbidetzen dute. Politika publiko horrek lurraldearen antolaketaren proiektuan osoki parte hartzen du. Hartara, Euskal Elkargoaren Tokiko Bizileku Programak erantzun koherenteak proposatzen ditu, 158 herrietan antolatuz.

#### 16. engaiamendua

### LURRALDEKO FAMILIEN DIRU SARTZEEN ARABERAKO BIZITEGIAK SORTU

SRU legearen menpe diren 16 herrietan aniztasun soziala garatzeko eta kostalde ondoko eta baserrialdeko herriak etxebizitza eskaintza anitzagoa izan dezaten laguntzeko helburuarekin, gutiestekoa ez den ekoizpenaren parte bat asumitzearekin batera.

#### 17. engaiamendua

### JADANIK DAGOEN PARKE ERAIKIA ZAHARBERRITU

bizileku ez duinaren eta prekaritate energetikoaren aurka borrokatuz eta, beraz, hutsik diren bizitegien zaharberritzea eta merkaturatzea faboratuz berriak eraikitzea baino.

#### 18. engaiamendua

### DENENTZAKO BIZITEGI ESKURAGARRIAK ESKAINI

### ROLAND HIRIGOYENEN HITZA, Lehendakariordea, Jende ibiltarien errezipitza eta bizilekua

Lokal mailan bereziki itogarriak diren bizilekuari loturiko erronkek, eskuragarriak, iraunkorrak eta egungo erronka klimatikoari egokituak diren bizitegien eraikuntzaren alde esku hartzeraren eraman dute Euskal Hirigune Elkargoa. Horretarako, ekintza anitz burutu dira etengabe, turismorako etxebizitza mublaturak arautzen dituen 2022ko uztaileko araudi berriaren onarpena bezalako neurri sendoekin adibidez.

# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGO AITZINA DOA

## 1. EKINTZA

### BIZILEKUAREN POLITIKA HEDATU

2022 urtea 2021eko urriaren 2ko Tokiko Bizileku Programaren onarpenaren ondotik jin zen. Dokumentu programatiko horrek, 158 herrien heinean 6 urterako ezarria, bizileku politikarekin eta loturiko helburuak eta hauek erdiesteko eskura diren baliabideak finkatzen ditu. Lehen urte horrek hirigintzako dokumentu batzuk helburu horietara egokitzea ahalbidetu du, hirigintza arauaren bidez bizitegi sozialen ekoizpena faboratuz.

Euskal Elkargoa tentsio handiko eremuetako 24 herrietan 2025ean aplikatuko litzatekeen alokairuak arautzeko baliabidea integratzeko hautagai agertu da. Neurri hau, mublaturistikoaren alokatzea kudeatzen duen araudiaren onarpenari gehituko da, bizitegi iraunkor bat eskuratzearen alde ari den esku hartzearen baitan.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Tokiko Bizileku Programaren plantan ezartzeak, lotuak zaizkion desmarxa guzrien bidez, klima aldaketaren aurkako borrokaren helburuetan osoki parte hartzen du, bizilekuaren trantsizio energetikoaren eskakizunak kontuan hartzearekin batera tokiko beharrei erantzun egokia ematea ahalbidetuz. Ekintza hori LuKAEParen 3. ardatzarekin lotua da: "Bizi: soiltasun eta eraginkortasun energetikoa lagundu".

#### ZENBAKI BATZUK

**578 alokairuzko bizitegi sozial** Euskal Elkargoaren lurraldean

**327 familia lagunduak** Ipar Euskal Herriko Interes Orokorreko Programaren (IOP) eta Baionako BHEP-HBaren (Bizilekuak Hobetzeko Eragiketa Programatua-Hirigintza-Berriztapena) baitan

**6 775 862 €-ko** Euskal Elkargoaren aitzinkontua alokairuzko bizitegi sozialen ekoizpenaren faboretan.

**1 543 535 €** Euskal Elkargoaren aitzinkontua parke pribatuaren zaharberritzearen faboretan

## 2. EKINTZA

### "AIDES À LA PIERRE" DERITZON BIZITEGIEN ERAIKUNTZARAKO DIRU LAGUNTZEN KONTROLA ETA ESLEIPENA SEGURTATU

Euskal Hirigune Elkargoak, Estatuarekin izenpeturiko hitzarmen bidez, eraikuntzarako laguntzen ordezkari hartu du 2016az geroztik. 2022 urtea 2021 urtean epemugara iritsi zen hitzarmen horren berritzeak markatu zuen. 2022ko urtarrilaren 1ean, ordezkari 3. motakoa izatera pasa zen. Horrek Euskal Elkargoarentzat finantzamendu txostenen instrukzioa, diru laguntzen kalkulua, hartzailen publiko edo pribatuarentzako hauen ordainketa, parke pribatuarentzako obrentzako edo obrarik gabeko hitzarmenen finkatzea eta parke publikoarentzako BNL hitzarmenen finkatzea izan zuen ondorioztat. Honi loturik, Agence Nationale de l'Habitat (Anah) hitzarmen bat izenpetu zen, bi izenpetzaileen artean Anahren laguntzen kudeaketa moldeak zehazteko gisan. Eskumen emendatze hori parke publikorako eta pribaturako 3 agente instruktore kontratatuz aurreikusi zen 2021 bukaeran, eta Euskal Elkargoak 2021eko ekainaren 19an onartu zuen esku hartzerako araudi berriaren plantan ezartzeari gehitu zitzaion.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Estatuaren eraikuntzarako laguntzen esleipenean Euskal Elkargoaren posizioa indartzen duen eskumen emendatze horrek lurraldearen erronka klimatikoari erantzutean parte hartzen du, berrikuntza energetikorako eta ingurumen kalitate handiko etxebizitza berrien ekoizpenerako proiektuen finantza mailako laguntza ahalbidetuz. Ekintza hori LuKAEParen 3. Ardatzarekin lotua da: "Bizi: soiltasun eta eraginkortasun energetikoa lagundu".

#### ZENBAKI BATZUK

**3 035 000 €** Estatuak parke publikoarentzako esleitu diru zama

**1 140 000 €** eskasia duten herrietan erosteko lehenitasunerako eskubidea baliatzeko sustenguen baitan eskuraturiko diru zama

**8 110 922 €** Anah kreditu parke pribaturako

### 3. EKINTZA

## LURRALDEAN JENDE IBILTARIAREN HARRERA BEHAR BEZALAKO BALDINTZETAN GERTATZEN DELA BERMATU

Euskal Hirigune Elkargoak jende ibiltarien harrera eremuen antolaketa, mantenu eta kudeaketa gaietarako eskumena du. Lurraldeko herriekin harremanetan egiten den beharren aurreikustea ahalbidetuz laguntza egunerokoa da, baina epe luzeko proiektuen obratzearekin ere egiten da, jende ibiltarien harrera eta bizilekurako eskema nagusiaren ontzearekin bezala.

2022 urtea, Baionan 200 lekuko pasaia handiko eremu baten sortzeko proiektuak onura publikoko aitortza adierazpena eskuratu izanak bereziki markatu zuen. Erabaki horrek, operazio horren gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun higiezinak onez onean edo desjabetze bidez erostea ahalbidetzen dio Euskal Elkargoari. Bururatzean, pasaia handiko eremu horrek euskal Elkargoaren lurraldean jende ibiltariari baldintza egokietan harrera egiteko gaitasuna handitzea ahalbidetuko du, egokitze lanak pairatu dituzten jadanik dauden eremuen osagarri gisa.

#### ZENBAKI BATZUK

**25 TALDERI HARRERA EGINA**  
2022 URTEAN

(12 EREMU OFIZIALETAN ETA 13 ZILEGI EZ DIREN EREMUETAN).

**1 940 KARABANARI**  
HARRERA EGINA 2022 URTEAN

**12 000€-ko**  
**DIRU SARTZEA**

(AITZINEKO URTEAREKIKO EMENDATU DENA:  
9.500 € 2021EAN)

### 4. EKINTZA

## ELKARGO INTERESEKO OPERAZIO PUBLIKOAK OBRATU

Euskal Elkargoak elkargo-intereseko proiektuen kalifikaziorako baldintzak zehazten dituen araudia bozkatu zuen 2018ko abenduan. Gaur egun, antolaketa zuzendaritzako taldeek, egunerokoa eta hunkituak diren zuzendaritza guziekin epe luzeko operazio horiek koordinatzen dituzte: Baionako Aturri eskuinaldea eta Montalibet, Ziburuko Encan... Sektore estrategiko horiek segimendu berezitua, eta obrentzako azterketak behar dituzte, biztanleria partzuer dela zainduz.

Operazio publiko konplexu horien segimendu hobe ahalbidetzeko, Euskal Elkargoak aipatu operazioen azterketak eta lanak epe luzean kudeatzeko gai den Ipar Euskal Herriko Antolaketa TSParen (Tokiko Sozietate Publikoa) sortzea bozkatu zuen.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Erronka klimatikoak gehienetan hiri zaharberritzean diren elkargo-intereseko operazioetan partikularki aurreikusiak dira, proiektuaren ontzeko etapa desberdinetan hunkituak diren eragile desberdinen elkartzeari esker eta tematika horietan bereziki bideratuak diren hausnarketei esker (uraren kudeaketa, lur funtsen soiltasuna, mugikortasun iraunkorrak...). Ekintza horrek LuKAEParen 3. ardatzari erantzuten dio: Antolatu – Artatu: karbono ondoko lurraldea planifikatu eta eraiki eta, berezikiago, “elkargo intereseko antolaketa operazioetan trantsizio ekologiko eta energetikoa integratu”.

#### ZENBAKI BATZUK


**6 TAILER ETA**  
**40 ELKARRIZKETA**  
EGINAK ZOKOAKO GOTORLEKUAREN  
ZAHARBERRITZEAREN HARIRA.

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### TURISMORAKO ETXEBIZITZA MUBLATUAK ARAUTUKO DITUEN ARAUDI BERRIAREN ONARPENA

Euskal Elkargoak, haren TBParen helburuak betetzeaz axolaturik, bereziki haren lurraldean bizitegi iraunkorra faboratuz, erabilpen aldaketari buruzko araudiaren aldaketa eta honi loturiko konpentsazio neurriak bozkatu zituen 2022ko uztailaren 9an. Azken honek, egoitza baten eraldaketaren bidez edo merkataritza eskubideen eskuratzearen bidez, bizitegi berrien ekoizpena edo xede turistikoko bizitegiak berriz merkaturatzea faboratzera eramaten du.



## 2. PROIEKTUA

### ATURRI ESKUINALDEKO ELKARGOAREN OPERAZIOAREKIN SEGITZEA

San Ispiritu eta Henri Grenet zubien artean kokatua den Aturri eskuinaldeko Euskal Elkargoaren operazioa 17 Ha-tan hedatzen da. Hirigintza, ingurumen eta gizarte mailan jokoan dena kontuan harturik, antolaketa hori Baionako herriarentzako eta Euskal Elkargoarentzako erronka handia da. Ipar Euskal Herriko Lur-funtsen Erakunde Publikoak kolektibitateen izenean lur-funtsen erosteko lan handia burutu du 2010az geroztik eta gaur egun bere horretan segitzen du eremuaren nagusitasun osora heltzeko helburuz. Aldi berean, 2022ko uztailaren diseinatzaile batasun bat atxiki zen proiektuaren orientazio programatikoa desberdinak finkatuko dituen plan zuzendari baten osatzeko.



© Cote Sud Photo





## HERRIEI eskainitako ELKARGO- INGENIARITZA, HIRI eta BASERRI-GARAPENA

### IKUSPEGIAREN eta engaiamenduen OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Euskal Hirigune Elkargoak kide diren herriak ingeniartzan laguntzen ditu, ekintza soziala eraginkorragoa izan dadin. 10 herriartekoen elkarteak ahalbideturiko baltsan ezartzeak herri ttipiak hobeto laguntzea faboratzen du, 4 ekintza eremuren baitan: fiskalitatea, helbideratzea, helgarritasuna eta antolaketa.

#### 19. engaiamendua

**HERRIAK LAGUNDU FISKALITATEAN,  
HELBIDERATZEAN, HELGARRITASUNEAN  
ETA ANTOLAKETAN.**

#### **PHILIPPE ARAMENDIREN HITZA,** Kontseilari ordezkarria, Antolaketarako ingeniaritza eta aholkularitza eta lur- zolaren eskubidea

Euskal Hirigune Elkargoak, baliabideen mutualizazioaren bidez, bereziki giza baliabideen mutualizazioaren bidez, herrien beharrei ihardesten die, araubide esparruaren konplexu bilakatzearen eta politika berrien aplikatzearen arteko lotura egiten duen testuinguruaren baitan. Antolaketa proiektuen baitan herriei eskainitako ingeniarietza misioaren bidez baserrialdeko herriei ematen zaien laguntza, Euskal Elkargoak defenditzen duen lurralde orekarako baitezpadako euskarria denaren adibidea da.

# euskal HIRIGUNE ELKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### LURRALDEa KALITATEZKO HELBIDERATZEKO PLAN BATEZ HORNITU

Helbideratzearen definitzea eta eguneratua atxikitzea zerbitzu publikoen ibilmolde onerako erronka nagusia dira, baina baita lurraldeko herritarren eta enpresen egunerokoarentzat ere. Erreferentziazko oinarri den Frantziako Helbideen Datu-basea (BAN) horren elikatzeak helbideen erabiltzaile guzietan kontsultatu ahal izatea ahalbidetzen du: sokorri zerbitzuak, Posta, zuntza, uraren eta hondakinen zerbitzuak, etab.

Herriko Etxeen eskumenekoa, Euskal Hirigune Elkargoak 2019az geroztik lurraldeko herriak laguntzen ditu haien helbideratzearen gauzatze eta hedapenean.

#### ZENBAKI BATZUK

2022 BUKAERAN

**euskal ELKARGOKO HERRIEN  
%60ak**

HAREN HELBIDEAK FRANTZIAKO HELBIDEEN  
DATU-BASEAREN (BAN) BAITAN HEDATUAK DITU  
%27 FRANTZIAN eta  
%32 AKITANIA BERRIAN

2022 URTEAN ZEHAR LAGUNDURIKO

**32 HERRIREN**

HELBIDERATZEAK PIKOAN EMANAK  
ETA BANEN HEDATUAK

## 2. EKINTZA

### ERAIKIN PUBLIKO GUZIETAN HELGARRITASUNA HOBETU

Euskal Hirigune Elkargoak eraikin publikoen helgarritasunaren aldeko ekintzarekin segitzen du.

Eraikin ikuskatzeak egiten ditu. Herriko Etxeetako idazkarientzako informazio bilkurak antolatzen ditu (auzapezaren ardura, helgarritasun programaturiko agenden jarraipena, hirigintza eta helgarritasuna) eta Euskal Hirigune Elkargoko eta hunkituak diren 144 herrietako helgarritasun batzordeak biltzen dituen sareak plantan ezartzen ditu. Parte-hartze funtsa gisa ekartzen den diru mailako laguntzaren esleitzearekin segitzen da.

#### ZENBAKI BATZUK

**19 HERRIK**

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN LAGUNTZA  
ESKURATU DUTE, HELGARRITASUN  
PROGRAMATURAKO AGENDAREN  
PLANTAN EZARTZEKO, HAIEN PROIEKTUEN  
AZTERKETARAKO ETA OBREN GAUZATZEKO

PARTE-HARTZE FUNTSEN BAITAN EGINIKO

**115 eskaera**

AZTERTUAK IZAN DIRA

**1,3 MILIOI €  
BAINO GEHIAGO**

ENGAIATUAK IZAN DIRA PARTE-HARTZE  
FUNTSEN BAITAN

### 3. EKINTZA

## HERRIEI ZERGA-INGENIARITZA ARLOKO ADITU-AZTERKETA ZORROTZA eskaini

Herriekin partekatzen den eta Euskal Elkargoak 2018az geroztik bereganatu duen behatoki fiskalaren lehentasunetako bat tokiko zuzeneko fiskalitatearen zerga-oinarriak fidagarri bilakatzea da. Herri gehiago ingeniariak horretaz baliatu dadin, 2022 urtetik baliabide honen hedapena eremu geografiko bereko herriak biltzen dituzten lantaldeen osaketaren bidez ere egiten da. Gisa horretan, Amikuzen eta Xiberoan, herri batzuk zerga-oinarri fiskalen fidagarri bilakatzekeo desmartzan elkarrekin engaiatu ziren. Herri horientzako ekoizturiko diagnostiko fiskalak, engaiatu beharreko lan ardatzak hautetsiekin identifikatzea ahalbidetzen du eta laneko denbora erregularrei bide ematen die beharrezkoak diren sustengu metodologiko eta teknikoak eskaintzeko eta, gisa horretan, departamenduko finantza publikoetako zuzendaritzako zerbitzuekin elkarlanean, tokiko errealitatearen ezagutza balioesteko.

#### ZENBAKI BATZUK

LAGUNTZA MOTA ORO NAHASIRIK, 2022an  
HERRIKIN GIDATURIKO FIDAGARRI  
BILAKATZEKO LANEN ONDORIOZ:

**1.016 KASU**

AZTERTU DIRA EGOITZEN EBALUAKETA ETA  
HAUEN OKUPATZE GISA IDENTIFIKATURIKO  
LANEKO ARDATZEN BAITAN.

**744 seinalamenduren  
FORMALIZAZIOA EGIN DA**

### 4. EKINTZA

## HERRIEI ANTOLAKETA MAILAKO SUSTENGUA eskaini

2017tik aitzina, herriei eskainiriko lurralde ingeniariak zerbitzu baten plantan ezartzeak lurraldeko hautetsiek adieraziriko behar bati erantzutea ahalbidetu du, guttienez elkargoko politika publiko baten baitan, bereziki bizilekuaren politikaren baitan, sartzen diren eta trantsizio energetikoan parte hartzen duten herrien proiektuen sustenguari bidez.

Epe ertaineko proiektuak izanki, 2022 urtea herrien eskari berriek ezaugarritu dute, baina baita abiatuak ziren proiektuekin segitzeak ere. Aitzinetikako azterketa horientzako sustengua, libratzen ahal diren finantzamenduen identifikatzeko laguntzekin batera heldu da, proiektuen gauzatzea erraztuz.

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 2. ardatzarekin lotua da: "Antolatu – Artatu: karbono ondoko lurraldea planifikatu eta eraiki".

Herrietako hirigintza proiektuetarako eskuragarri den ingeniariak indartzen duen laguntza horri esker, ingurumen erronken kontuan hartzea proiektuaren urrats guzietan erraztua da.

#### ZENBAKI BATZUK

**27** HERRIREN  
ESKARIAK

**50** TXOSTEN  
AKTIBO

LAGUNDURIKO PROIEKTUEN BANAKETA:  
%40 BIZILEKUA, %30 EREMU PUBLIKOAK  
ETA %30 EKIPAMENDUAK

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### ELKOR ETA ENTZUMEN URRIKO PERTSONEN TELEFONO BIDEZKO ETA PAREZ PAREKO HARRERARAKO ATERABIDEAREN BALTSAN EZARTZEA: ELIOZ

Araudiak kolektibitateek elkor eta entzumen urriko pertsonentzako harrerarako zerbitzu egokituia plantan ezartzea aurreikusten du. Zerbitzu hori zeinu hizkuntzako interpreteen urruneko plataforma baten erabilpenean datza.

Helgarritasun sareko kide diren hautetsiek galdeginik, Euskal Hirigune Elkargoak aterabidearen baltsan ezartzeren interesa frogatzea ahalbidetzen duen azterketa egin du. 5.000 biztanle baino gehiagoko herriek eta Euskal Hirigune Elkargoak finantzaturik, Elio aterabidea aintzat hartu eta urririk 5.000 biztanle baino gutiagoko herrientzako eskuragarri ezarria izan zen 2022an.

## 2. PROIEKTUA

### BITHIRIÑAKO HERRIKO HIRIGINTZA PROIEKTUAREN LEHEN FASEAREN FINITZEA HAREN HIRI-ERREFERENTZIA PLANAREN BAITAN

Bithiriña herriak 2019an eginiko lehen eskari batek, haren herriburuaren mailako ekintza-fitxa bati loturiko erreferentzia plana izan zuen ondorio. Desmartxa aurreikustaila horrek herriko hirigintza proiektua segurtatzea ahalbidetu du, bereziki diruari dagokionez. Lehen fase batean Herriko Etxea eta helburu sozialeko etxebizitza bat integratzeko apezetxea berregituratu da eta baita 6 bizilekuko apartamendu eraikin bat eraiki ere. Bi operazio horiek 2022an bururatu ziren. Aldi berean, Herriko Etxeak, herriei eskainiriko lurralde ingeniari-tza zerbitzuaren laguntzarekin, aktibitate anitzeko gela baten, jantoki baten eta joko eremu baten eraikuntzarekin loturiko hausnarketekin segitu du, erreferentzia planean eta obragintza laguntzarako programan bermatzen direnen finantzamendu txostenak eginez.



## KULTURA PARTAIDETZAK



### IKUSPEGIAREN eta engaia menduen OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Aniztasun linguistiko, kultural eta soziologikoan hain aberatsa den Ipar Euskal Herria bezalako lurralde batean kultura eskubideen alde ekitea, bakoitzak bere kultura eta besteena eskuragarri ukaitea ahalbidetzea da eta jatorri soziala edo bizilekua edozein izanik haietan parte hartzea. Euskal Hirigune Elkargoak 2022an onartu zuen kultura politika berriaren xedea da.

#### 20. engaia mendua

##### BIDEZKOA DEN IRAKASKUNTZA ARTISTIKORAKO eskaintza LURRALDE OSOAN EGITURATU

bereziki lurraldean progresiboki hedatuko den Maurice Ravel Eskualde mailako Kontserbatorioan eta Euskal Elkargoak sustengatzen dituen elkarte egituretan bermatuz.

#### 21. engaia mendua

##### HAURREI ARTE eta KULTURA HEZKUNTZA IBILBIDEAK SEGI DITZATEN AHALBIDETU

gazteei zuzenduriko ikusgarrien sorkuntzarako diru laguntzaren bidez, sorkuntza erresidentzian harrera eginez, ikusgarriak hedatuz eta bitartekaritza proiektuen bidez.

#### 22. engaia mendua

##### HURBILEKO eskaintza KULTURALA BERMATU LURRALDE EKITATEA ZAINDUZ

lurraldeko operadoreen egituraketari eta kultura eragile nagusien laguntzari esker, azken hauek Ipar Euskal Herri osoan heda daitezten.

##### ANTTON CURUTCHARRYREN HITZA,

##### Lehendakariordea, Kultura

Urte guziz arte eta kultura hezkuntza proiektuak antolatzen dira Ipar Euskal Herriko eskoletan, Euskal Elkargoak proposaturiko ikusgarrietara 10.000 ikasle agertzen dira eta haien lehen emozio artistikoak bizitzeko parada dute.

Euskal Elkargoaren kultura politikak obrak biztanleengandik ere hurbiltzen ditu, gure herri eta hirietara maila handiko talde artistikoak ekarraraziz, “le temps d’aimer la danse” eta karrika-arteko “Point de vue” festibalekin gertatzen den bezala.

# euskal HIRIGUNE elKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK EGITURATU

Arte eta Kultura Hezkuntzako (AKH, fr. EAC) ibilbideak ikasleen ikasturtea animatuko duten proiektu berdingabeak sortzeko parada dira. Proiektu bat eraman edo gai bat landu nahi duen irakaslearen borondateari erantzuten diote. Ibilbide horiek Euskal Elkargoaren kultura sasoaren egitarauarekin lotura eginez eraikiak dira. Artista batek Ikasgelan egiten duen 12 (ama eskolentzako) edo 18 orduko esku-hartzearen inguruan eta bi obren deskubritzean, hauetako bat bederen sasoiko ikusgarria, artikulatzen dira. 2022/2023 sasoirako 75 Arte eta Kultura Hezkuntza proiektu burutu ziren eskoletan, hauetarik 18 ama-eskolako ikasleekin eta 57 lehen mailakoekin, eta 36 artista partzuerren parte hartzearekin.

#### ZENBAKI BATZUK

**75** AKH IBILBIDE

**70** emanaldi  
ESKOLA GARAIAN

**10 700**

HAURREK IKUSGARRIA IKUSI ZUTEN

## 2. EKINTZA

### IKUSKIZUN BIZIAREN EREMUKO SORKUNTZA ARTISTIKOA SUSTENGATU

Euskal Hirigune Elkargoaren sustenguari esker Malandain Ballet Biarritzek eramaniko "Le Temps d'Aimer" dantza festibalaren 32. edizioa lurralde osora hedatu da. Biarritzen, Angelun, Bardozen, Baionan, Maulen, Donapaleun, Senperen, Donibane Garazin... 82 hitzordu 31 konpainiarekin eta 450 artista baino gehiago egitarauaren baitan. Festibalak handitzen doan arrakasta du, 28.000 ikuslerekin hauetarik 18.000 aretoetan eta 10.000 kanpoan. Eta gero eta herri gehiagok parte hartzen du arrakasta horretan, herritarrek festibalaren baitan Biarritzen programatuak diren ikusgarriak deskubritzeko parada ukan dezaten autobusak antolatuz.

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Festibalak lanbidearen baitan hausnarketa komunaren elikatzean parte hartzen du, ikuskizun biziaren karbono aztarna apaltzearen inguruko profesionalen topaketa antolatuz.

#### ZENBAKI BATZUK

**5 HERRI BERRITAN**  
FESTIBALAREN PRESENTZIA

**82 IKUSGARRI**  
BIZTANLEENGANDIK HURBIL

**60 000€-ko**

EUSKAL ELKARGOAREN FINANTZAMENDUA

“

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

”

## 1. PROIEKTUA

### BIARRITZEKO ATABAL GAUR EGUNGO MUSIKEN ESZENATOKIAREN HANDITZE ETA MODERNIZATZEA

2005ean irekia, Biarritzeko Atabal Ipar Euskal Herriko gaur egungo musiken eszenatokia da. Elkargoarena den ekipamendu horrek 700 lekuko hedapenerako gela bat, 3 entsegurako estudio eta musika eskola bat barne hartzen ditu. 2022an azterketa bat burutu zen, ikusgarrien gela handitu eta mila ikusle inguru hartzeko gaitasuna ukaiteko eta musika praktikatzeko beste 2 entsegurako estudio gehiago sortzeko handitze proiektua pentsatzeko helburuz. Proiektu hori 2023tik aitzina garatuko da.



© Guillaume Fauveau

## 2. PROIEKTUA

### KULTURA TOPAKETAK

Haren proiektu kulturalaren ontzearen baitan, Euskal Elkargoak Kultura Topaketak, 100 artista, konpainia eta kultura eragile profesional baino gehiago elkartzen dituen tailerrak antolatatu zituen. 2022ko maiatza eta ekainean Antzerki, musika, dantza eta ikusmen-arte saileko profesionalekin elkartzeko 5 hitzordu izan ziren, beharrak agerrarazteko helburuarekin eta baita eraikitze bidean den kultura politikaren baitan Euskal Elkargoak aktibatzen ahal dituen aterabideak atzemateko pistak eta tresnak haiekin finkatzeko helburuarekin ere.



© CAPB

## 2. HERRITARREZ BETERIKO IPAR EUSKAL HERRI BIZI BATEN ALDE: GURE HIRI ETA HERRIAK BIZKORTU



# HIZKUNTZA POLITIKAK

### IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Ipar Euskal Herriak hizkuntza aberastasuna du. Lurraldearen berezitasunaren eta nortasunaren eraikuntzan parte hartzen dute. Frantsesaren ondoan Euskara eta Okzitaniera-Gaskoia haren lurraldeko hizkuntzak direla ofizialki aitortuz, Euskal Hirigune Elkargoa hizkuntza politika anbiziotsuak abian ezartzera engaiatu da, herrietako eta herriarteko zerbitzu publikoen bitartez hizkuntzen transmisioa eta praktika sustatzeko asmoz. Haren ekintza Euskararen eta Okzitanieraren erakunde publikoenaren osagarri da.

#### 23. engaiamendua

**ZERBITZU PUBLIKO ELEBIDUNEN  
ESKAITZA ERAIKI**

#### 24. engaiamendua

**HERRITARRAK EUSKARAREN  
ERABILPENERA SENTSIBILIZATU**

#### 25. engaiamendua

**OKZITANIERA-GASKOI  
HIZKUNTZAREN ETA KULTURAREN  
TRANSMISIO ETA HEDAPENERAKO  
EKIMENAK SUSTENGATU**

### ANTTON CURUTCHARRYREN HITZA,

#### Lehendakariordea, Hizkuntza politikak

Gure elkargoko hizkuntza politiken baitan, lurraldean euskara eta okzitaniera-gaskoia egunerokoan biziarazteko indarrak egiten ditugu. Horretarako haurtzaindegiekin, aisialdi harrera egiturekin, musika eskolekin, mugikortasun zerbitzuekin, turismo bulegoekin, Gizarte Ekintzako Udal Zentroekin eta, bistan da, herriekin partaidetza anizkoitzak garatzen ditugu. Gure hizkuntzak eremu publikoan biziaraztea, euskara eta gaskoia eskolan ikasten duten belaunaldi gazteei zentzua ematea da.



# euskal HIRIGUNE elKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### EUSKARA SUSTATU

Herriak, biztanleei zerbitzu elebiduneko eskaintza emanez eta, beraz, hurbileko testuinguruan euskara egunerokoan erabiltzeko parada emanez, hizkuntza politikarentzako baitezpadako lotura dira. Partaide diren herrien sarea hedatzeko, Euskal Elkargoak herrien neurri, berezitasun eta xedei egokitu daitezkeen tresnak sortu ditu:

- Normalizazio toponimiko eta terminologikorako zerbitzua, seinaletika eleanitzerako
- Itzulpenerako laguntza, komunikazioan eta eremu publikoan euskara sustatzeko
- Hobekuntza kontratuak, zerbitzu publiko eleanitzak plantan ezartzeko
- Herriko hizkuntza zerbitzuaren sortzea, herriko bizian euskara biziartzeari eskainia zaion animazio baliabidea finkatzeko

#### ZENBAKI BATZUK

### 80 HERRI LAGUNDUAK

- 6K HERRIKO ETXEKO EUSKARA ZERBITZUA SORTU DUTE

- 21 LAGUNDUAK IZAN DIRA EUSKARA HOBEKUNTZA KONTRATUEN BAITAN

- 46 ITZULPENERAKO ETA BERRIRAKURKETARAKO LAGUNTZAZ BALIATU DIRA

- 30 TOPONIMOENTZAKO LAGUNTZAZ BALIATU DIRA, HELBIDERATZE ELEANITZERAKO

## 2. EKINTZA

### EUSKARALDIA ERRONKA ANTOLATU

Euskaraldia euskararen lurralde osoan hedatzen den erronka da, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuekin eta Topagunea eta Euskal Konfederazioa elkarrekin elkarlanean burutzen dena.

#### ZENBAKI BATZUK

euskal elKARGOKO  
**80 agente**

25 "arigune"  
IDENTIFIKATU ZIREN euskal  
HIRIGUNE elKARGOKO ZERBITZUEN  
BAITAN

## 3. EKINTZA

### OKZITANIERA-GASKOIAREN TRANSMISIOA ETA HEDAPENA SUSTENGATU "DE CAP TAU MONDE" PROIEKTU DEIALDIAREN BIDEZ

Euskal Elkargoak okzitaniera-gaskoiaren transmisio eta hedapenerako ekimenak politika publiko desberdinen bidez sustengatzen ditu, herriak eta operadore pribatuak sustengatuz. "De Cap Tau Monde" proiektu deialdiak urtero hizkuntzaren transmisio eta hedapen helburuak horiek berak dituzten operadore pribatuak laguntzea ahalbidetzen du.

#### ZENBAKI BATZUK

25 000€-ko funtsa

6 PROIEKTU SUSTENGATUAK 2022an

# “IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### “EUSKARAZ JOSTA” LABELA GARATZEN DA

2021ean abiatua, Euskaraz Josta aisialdiko harrera elebidun eta euskaldunak labelizatzeko baliabidea da. Honen helburua eskaintza hori garatzean datza, euskaraz eskolatuak diren haurrek denetan euskarazko aktibitatez baliatzeko parada ukan dezaten. Gaur egun, Euskaraz Jostak 7 zentro labelizatu ditu eta 4 labelizatze bidean dira.



## 2. PROIEKTUA

### LEHA HAURTZAINDEGI ELEBIDUN ETA EUSKALDUNEN SAREAREN HEDATZEA

Euskal Hirigune Elkargoak LEHAren baitan labelizatuak diren haurtzaindegi elebidun eta euskaldunak informatzen eta laguntzen ditu. Partaidetza baliabideak Familien Laguntza Kutxa, Hego Akitaniako Laborantza Mutualitate Soziala, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) eta Euskal Hirigune Elkargoa biltzen ditu. Helburua labelizatuak diren haurtzaindegien sarea zabaltzea da, ondotik eskolatzeko elebiduna edo euskalduna faboratzeko gisan. Gaur egun 28 egitura labelizatuak edo labelizatze bidean dira.



Accueil de la petite enfance en langue basque  
Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera



# LURRALDEAREN ANTOLAKETA NUMERIKOA ETA ERABILERA NUMERIKOAK

## IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

### IKUSPEGIA

Trantsizio energetikoaren, mugikortasun iraunkorraren edo, orokorkiago, gure bizimoldeen eta gizartearen bilakaeraren erronken aitzinean, numerikoak Ipar Euskal Herriarentzako aterabide berriak pentsatzea ahalbidetzen du, tokiko eragileak partzuer eginez. Eskala horretan hausnarketa bat eramateak eta estrategia bat plantan ezartzeak mutazio horiek ez pairatzea, Euskal Elkargoaren praktikak egokitu ahal izatea edota lurraldeko eragileak laguntzea ahalbidetzen du. Euskal Hirigune Elkargoak bere egin duen eraldaketa numerikoaren helburua lurraldearen garapenean parte hartzea, tresna numerikotik abantaila guzua ateratzea eta egunerokoan erabilera berriak finkatzea da.

### 26. engaiamendua

#### INTERNETEKO ABIADURA OSO HANDIA DENENTZAKO BERMATU

LaFibre64 Sindikatu mistoaren eta DSParen bitartez TDH64rekin (SFRen adarra) izenpeturiko hitzarmenaren bidez, lurraldeari erabilera berrien garapena ahalbidetuko dion konektagarritasun maila bermatu.

### 27. engaiamendua

#### ERABILERA NUMERIKOEN BILAKAERA SEGITU

hiru xedetan bermatuz: helgarritasuna eta inklusioa, numeriko arduratsua eta aplikazioa eta datuen interoperazionaltasuna.

#### OLIVIER ALLEMANEN HITZA, Kontseilari ordezkaria, Numerikoa eta Lurralde Adimentsua

Gure egunerokoan etengabe handitzen den numerikoaren garrantziak eta ekintza publikoaren gardentasun beharrak lehentasunez gure datuen gobernantzan et kudeaketan lan egitera eramaten gaituzte, erabiltzaileei zerbitzu numeriko segurak eta eraginkorrak eskaintzeko helburuz. Horretarako, gure azpiegiturak erabilera horien bilakaerari egokituko ditugu eta jendea lagunduko dugu Euskal Elkargoak haren lurraldean finkatu duen France Services-en baitan egiten dugun zerbitzu numerikoaren erabiltzean.

# euskal HIRIGUNE elKARGOa aitZina DOa

## 1. EKINTZA

### HERRIAK LAGUNDU

Euskal Hirigune Elkargoak, LaFibre64-en kide gisa, datu pertsonalen babesaren eta zibersegurtasunaren inguruko laguntza eskaintzen die lurraldeko herriei.

Gisa horretan, herriei datu pertsonalei buruzko tailer eta formakuntzak proposatzen zaizkie, arauen araberakotasunarekin bat egiteko parada ukan dezaten.

Bestalde, “ziber-ezkutu” batek haien segurtasun mailaren ebaluaketa egitea eta tresnen plantan ezartzea (antibirusak, asti-spam...) ahalbidetzen die herriei, segurtasun maila hori emendatzeko. Baliabide hori, praktika onetan laguntzeko tailerrekin osatua da.

#### ZENBAKI BATZUK

107

HERRIK RGPD ATALEAN HITZARTUAK

23

HERRI JADANIK ZIBERSEGURTASUNEAN  
FORMATUAK

## 2. EKINTZA

### ERABILERA NUMERIKOA LAGUNDU

France Relance-n eta Ipar Euskal Herrian France Services-en plantan ezartzearen baitan, Euskal Elkargoak aholkulari numerikoak kontratatu ditu. Aholkulari horien egitekoa numerikotik urrun diren erabiltzaileak formatzea eta laguntzea da.

Gainera, France Services-eko harrerako langileak ere laguntza numerikorako formatuak dira, herritarrek anitz jotzen baitute zerbitzu horrengana.

#### ZENBAKI BATZUK

2000

HITZORDU  
BAINO GEHIAGO

AMIKUZEXO FRANCE SERVICES-EN 2022AN



# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK



## 1. PROIEKTUA

### KUTXA GOTOR NUMERIKOAREN HEDATZEA

Euskal Elkargoko Informazio Sistemen Zuzendaritzak eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak, agenteen eta hautetsien dokumentu administratiboentzako kutxa gotor numerikoaren aterabidea hedatu dute (lansari agiriak hastapen batean).

Aterabide horren helburua, eremu individual segur batean dokumentu pertsonal guziki eskuragarri ezartzea eta inprimatzeak eta posta igortzeak molde adierazgarrian apaltzea ahalbidetzea da.

Gaur egun, gotor kutxen %76a agente eta hautetsiek aktibatu dituzte.

## 2. PROIEKTUA

### ELGARWEB-en HEDAPENA

Herri gehienek webgunerik ez dutela egiaztaturik, ANTIC eta Euskal Elkargoko helgarritasun misioak lanean aritu dira eko-eraikia eta eskuragarria den webgune fabrika bat plantan ezartzeko. Elkargoko erabilera numerikoetako bide orriko bi helburuei erantzutea da helburua: helgarritasuna eta numeriko arduratsua.

Lurraldeko herri batekin esperimentazio fasea iragan ondoren, 2022 bukaeran proiektua herri guzietara hedatzeko fasean sartu zen.

Hedatuko delarik ager daitezkeen tresna berezien beharraren arabera bilakaerak gerta daitezke (sare bidezko formularioak, erabiltzaileen espazioa...)



## 2. HERRITARREZ BETERIKO IPAR EUSKAL HERRI BIZI BATEN ALDE: GURE HIRI ETA HERRIAK BIZKORTU



# mendia

### IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Euskal mendiak barnealdeko lurak eta ozeano Atlantikoa lotzen ditu, baina baita Ipar Euskal Herriaren mugakide diren Nafarroa eta Gipuzkoa ere. Hunkituak diren 111 herrientzako erronka nagusia, funtzio askotakoa den eta gero eta jende gehiagok bisitatzen duen mendialde horren erabilpenen kohabitazioa hobetzea eta gatazkak eta istripuak saihestea da. Herrien eta ibarren dinamismoa bermatzearekin batera, jarduera ekonomiko desberdinen eta baliabideen kudeaketa iraunkorraren arteko oreka atzemateaz mintzo gara. Euskal Elkargoak, haren partzuerrekin batera, 2022ko abenduaren 10ean bozkatu zen Mendiari eskainiriko politika gauzatzen du.

#### 28. engaiamendua

### engaiamendua - URTE OSOAN EUSKAL MENDIA BIZIRIK ETA HERRITARREZ BETERIK ATXIKI

ibarren garapen endogenoa lehenetsiz eta eremu kolektiboen kudeaketarako egiturak sortuz.

#### BATTITT LABORDEN HITZA

##### Kontseilari ordezkaria, Euskal Mendia

Mendi eremuko kolektiboren kudeatzaile diren 30 elkargoko hautetsiren eta 21 sozio-profesionalen arteko egiazko eztabaidagune den Mendiaren batzordea animatzeko plazera dut. Gure herrietan leihoak irekiak atxikitzearen, lotura sozialaren, artzain eremuen kudeaketa komunaren eta diru sartzeko duinaren sortzaile diren aktibitateen eta mendialde zainduaren transmisioaren arteko oreken desafioak elkarrekin altxatzen ditugu. Emazte eta gizon oro, gure mendien arkitekto, haren rolean aitortu eta zilegitua izan behar da.

# euskal HIRIGUNE ELKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### LOTURA/LIENS PROIEKTU DEIALDIA

57 proiektu eramailek (%79a elkarteak) hautagaitza igorri zuten LOTURA/LIENSen 2. ediziorako, mendiko lurralde horretan lotura soziala (bir)sortzeko tokiko ekimenen aniztasuna agerian utziz. Tokiko eragilez osaturiko epaimahai parte hartzaile batek (hautetsiak, sozio-profesionalak, gizarte zibileko ordezkariak, 2020ko irabazleak, teknikariak) irizpideei hobekien erantzuten zieten 18 proiektu irabazle hautatu zituen: proiektu kolektibo eta parte hartzaileak, elkartasunean, elkarbizitzan, belaunaldiarteko loturan oinarrituak, emazte eta gizonen arteko berdintasuna eta euskararen erabilpena faboratzen zutenak eta trantsizio ekologikoaren baitakoak zirenak.

### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Hautagaitzarako irizpideetan, proiektua trantsizio ekologiko eta energetikoaren baitan sartu behar zen (energia eta ura aurrezteak, baliabideen berrerabiltzea, berotegi efektuko gasen gutitzea, hondakinen eta xahutzearen gutitzea, zirkuitu laburrean hornitzea, bioaniztasunean eragin baikorra ukaitea...)

#### ZENBAKI BATZUK

**18**  
PROIEKTU

**80 000€**

## 2. EKINTZA

### GIZA BITARTEKARITZA mendien

Abantzu 20 urte dira, erabilpen anitzaren gaia euskal mendiaren garapenaren erronken erdian dela. COVID ondoko garaiak mendien hantatze masiboa ekarri eta aktibitate desberdinen bizikidetzaren problematika indartu zuen (artzaingoa, ibilaldiak...). 2022an, Euskal Elkargoak eta Batzorde Sindikalen Elkarteak mendian bitartekaritza lana plantan ezarri zuten, zerbitzu zibileko gazteekin eta CPIEekin batera. Orotara, udan 43 egunez presente izan ziren, erabiltzaileei mendiarekiko errespetuzko jarrera ukatearen garrantzia oinarazteko.

### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 1. ardatzarekin lotua da: eremu naturalen eta hauekin lotura duten espezieen zaintza

#### ZENBAKI BATZUK

**43** BITARTEKARITZA  
egun

**11** esku-HARTZE GUNE  
mendien

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### EUSKAL MENDIA ESQUALDEKO PARKE NATURALAREN SORTZEA

Euskal Mendia Pertsona-Natura-Kultura triptikoan oinarritzen da. Gisa horretan, gizakiaren eta animalien ekintzak eremu bat eta paisaiak moldatzen ditu, salbuespenezko bioaniztasun eremuen mosaikoa egituratzen du eta trebetasun eta praktika identitarioen transmisioa atxikitzen.

Oreka hori laborantzaren apaltzearen, aldaketa klimatikoaren eta abarren mehatxuek ahultzen dute.

Mendiaren orekarako beharrezkoak diren trantsizioak laguntzeko, Eskualdeko Parke Natural bat sortuko da Batzorde Sindikalekin, Eskualdearekin eta Departamenduarekin elkarlanean.

2022an EPNaren aitzin egituraketarako Sindikatu Misto Irekia sortu zen. Mendiaren aldeko 15 urteko ekintzarako partaidetza proiektu eta plana, Itunaren idazketarako oinarria izanen da.



© Carole Embide

## 2. PROIEKTUA

### GURE MENDIA

Hego Lapurdiko eremuko (Biriatu, Urruña, Ziburu, Azkaine, Sara, Senpere eta Ainhoa) eta Hegoaldeko (Bera, Etxalar, Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan) mendiko herriak Gure Mendia lantaldean bildu dira, Hego Lapurdiko eremuko mugako mendiguneen kudeaketaren inguruan trukatzeko eta prospektiba eremu komun bat garatzeko xedearekin, artzaingoa, oihana, erabilpen anizkoitza, bioaniztasuna edota ondarea gaitzat harturik. Elkarrekin lan egiteko borondate hori Hego Lapurdiko mendiguneak hunkitu zituzten 2021eko otsaileko suteekin indartu zen.

2022an, mendiaren zerbitzuaren animazio bidez, partalier guziek ekiteko dokumentu koadroa ontzat eman zuten. Suteek andeaturiko eremu guzietan landaketak egin ziren, eta mugaz gaindiko artzaintzaren diagnostikoaren ontzea abiatu zen.

Ekintza programa horrek artzaintzaren garapen, Natura 2000 guneen animazioarekin lotuak diren bioaniztasunaren zaintza eta sute segurtasun helburuei erantzuten die.



© Natacha Courdurie





## HIRI-POLITIKA

### IKUSPEGIAREN eta engaiamenduen OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Ipar Euskal Herrian, Baiona da hiri-politikak hunkitzen duen herri bakarra, Hiri Eremu Sentsiblearen erdian (Breuer eta Mounédé) eta San Izpiritu Auzoan. Haren hiri-politikaren bidez, Euskal Elkargoak bi xede handi ditu: auzo behartsuenen eta lurraldeko beste eremuen arteko diferentzia ttipitzea eta tokiko biztanleen bizi baldintzak hobetzea, bereziki diskriminazio mota ororen aurka borrokatuz.

#### 29. engaiamendua

##### HIRI KOHESIOAREN eta AUZO BEHARTSUENEKIKO ELKARTASUN POLITIKAN AKTIBOKI PARTE HARTU

etxebizitza sozialen eskaintza berriz orekatzearen, erdibideko eskaintza baten garapenaren edota bizileku ez duinaren aurkako Protokoloaren eta Interes Orokorreko Programaren bidez.

#### 30. engaiamendua

##### AUZO HORIEN GARAPEN EKONOMIKOAN PARTE HARTU

Gaskoien plazan Ekonomia sozial eta solidarioari eskainiriko poloa sortuz.

#### ROLAND HIRIGOYENEN HITZA, Lehendakariordea, Bizitegia, Hiri-politika, Jende ibiltarien errezibitzea eta bizilekua

Familia batzuk, bereziki prekarioenak, ahultzen ahal dituen testuinguru inflazionista batean, hiriaren politika derrigorrezko elkargoko eskumena da baina, oroz gainera, beharrezkoa eta zeharkakoa. Izan ere, herriarteko lurraldearen baitan eta lokal mailan Baionako lehentasunezko auzoetan desberdintasunen ttipitzean eta bizi baldintzen hobetzean parte hartzen du.

## 1. EKINTZA

**BERPIZTE ekonomikoan  
PARTE HARTU**

Euskal Elkargoa Interes publikoko taldea – Gizarte eta Hirigintza garapenak (GIP DSU) laguntzen du. Egitura partzuerra da eta lokal mailan hiriko politikak plantan ezartzea du helburu. Maila horretan, egunerokoa botere publikoak hiriaren kontratuaren parte dira, hiri-politikaren baitako lehentasunezko auzoetako biztanleak laguntzeko. Esku-hartze horrek forma anitz har ditzake, enplegutik urrundu den jendeak lana eskuragarri izatea faboratzen duen gizarteratze sozialerako klausula bezala edota gizarteratze eta enplegurako tokiko plana bezala, izan lehentasunezko auzoetako biztanleak zein Ipar Euskal Herri osokoak laguntzeko.

Partaidetza egituraren baitan abiatutako proiektu nagusietan, elkargo obragintza pean den ekonomia sozial eta solidarioari eskainiriko poloaren sortzea dugu, eta zehazkiago 2022ko arkitektura lehiaketaren abiatzea.

“**IPAR euskal HERRIA  
ERALDATZEN DUTEN  
PROIEKTU HORIEK**”

## 1. EKINTZA

**ekonomia sozial eta  
SOLIDARIOARI eskainiriko gunea  
Baionan**

Baionako Gurutze Sainduko Gainak auzoan ekonomia sozial eta solidarioari eskainiriko gunearen (ESSG) sortzea Euskal Elkargoak hiri-politikaren baitan eramaten duen ekintzaren proiektu enblematikoa da. 2022an, ESSGa fase operazionalen sartu zen arkitektura lehiaketaren abiatzearekin, zeinari berrogeita hamar hautagaik erantzun baitzioten, eta hauetarik hiru atxiki ziren zirrimarra eta maketak aurkez zituzten. V2S arkitekto kabineteren proiektuak programari hobekien erantzuten ziola erabaki zen, lehiaketaren irizpideetan oinarriturik: energia eta karbono soiltasuna, eraikineren funtzionaltasuna eta hiri-integrazioa. Hiri-politikak aspalditik sustengaturiko auzoko aktibitateak hartuko dituen eremu horren jabetze hobea ahalbidetuko du: sukalde profesional partekatua, sozial web kolektiboa, Otsokop kooperatiba, auzoko mediateka eta ekonomia sozial eta solidarioko egiturak laguntzeko eremua.

**euskal HIRIGUNE  
ELKARGOa  
aitzina DOa****KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA**


Hiriaren berpizte ekonomikoaren baitan, Euskal Hirigune Elkargoak ingurumena errespetatzen duten eraikinen eraikuntza laguntzen du, “Akitania Berriko eraikin iraunkorra” laguntza desmartzaren bidez ESS guneak egiten duen bezala.

**ZENBAKI BATZUK****324 460€**

GIP-DSUARI ESLEITUAK 2022an, HIRI-POLITIKAREN BAITAN ANIMAZIO, HEZKUNTZA ETA GIZARTE KOHESIORAKO EKINTZEN PLANTAN EZARTZEA

**200**

GIZARTERATZE KLAUSULAREN HARTZAILE MERKATU PUBLIKOETAN, OBRATURIKO 80.000 OREN INGURURENTZAT



© CAPB - L.Debray



# GIZARTE KOHESIOA

## IKUSPEGIAREN eta engaia menduen OROITARAZTEA

### IKUSPEGIA

Ipar Euskal Herria lurralde erakargarria da eta hazkunde demografikoaren zergatia familia berrien etortzea da baina errealitate kontrastatuekin jokatzeko du. Euskal Hirigune Elkargoak defendatzen duen gizarte kohesiorako proiektua politika publiko anitzen bidegurutzean da eta berezikiago lehen haurtzaroaren, haurtzaroaren, gazteriaren, autonomiaren, prekaritatearen eta osasunaren inguruan lan egiten du.

### 31. engaia mendua

#### GIZARTE KOHESIOA HELBURU DUTEN PROIEKTU KOLEKTIBO BERRITZAILEAK SUSTENGATU

Ipar Euskal Herrian, Euskal Elkargoak gizarte garapeneraren arloan duen eskumenari esker, esperimentazioak eta proiektu kolektibo berritzaileak faboratzen dira herriarte mailan.

### 32. engaia mendua

#### HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK KUDEATZEKO SUBSIDIARITASUN ETA HURBILTASUN PRINTZPIOEN ARABERA JOKATU

herriarteko zerbitzuetan Euskal Elkargoaren eta EGEZaren esku-hartzearekin; beste leku guzietan Herriko Etxeak eta GEUZak haien zerbitzuak kudeatzen segitzen dute.

#### ARNAUD FONTAINEN HITZA, Lehendakariordea, Gizarte Kohesioa, eta Muriel Houetena,

Erosteko ahalmenak eta bizitegia eskuratzeko zailtasunek xumeenei zuzenduriko ekintza deliberatua sekula baino beharrezkoagoa egiten dute. Prezio egokituak garatuz, herriarteko zerbitzuak berriz hedatuz, eragile anitz sustengatuz, Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herriko gizarte kohesioa faboratzen du.

# euskal HIRIGUNE elKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### PREKARIOENEI ZUZENDURIKO EKINTZETAN INPLIKATU: PREKARIO HANDIEI BIDERATURIKO APAIRU HORNITZEA URTE GUZIRA HEDATU BAIONAN.

Lehen aldiko, neguan prekaritate egoera larrian diren pertsonen apairu beroak hornitu ohi dizkien La Table du Soir elkarteak zerbitzua urte guzira hedatu du. Horretarako Baionako Point d'Accueil Jour elkartearen eta Sokorri Katolikoko boluntarioen mobilizazioan bermatu da eta, apairuen prestatzeko, 2 soldatapekoetan. Horretaz 70 pertsona baliatu dira egun guziz eta emazteen proportzioa neguan baino %30 inguru handiagoa izan da. Euskal Elkargoak zerbitzu berri hori osoki finantzatu du.

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Elikagai-Bankuarekin eta BAB sektoreko beste karitatezko elkarteekin den partaidetzak sargaien kudeaketa ahal bezain ona segurtatzen du, galtze gutirekin eta hondakinen kudeaketa optimizatuarekin. Gisa horretan, ekintza horrek LuKAEPeko "Ekonomia zirkularerako trantsizioa, hondakinen kudeaketa" ardatzean parte hartzen du.

#### ZENBAKI BATZUK

BATEZ BESTE EGUNEKO

**70 ONURADUN**

**39 700€-ko kostua**  
EUSKAL ELKARGOAK FINANTZATUA

## 2. EKINTZA

### IPAR EUSKAL HERRI BARNEALDEKO LURRALDEETAN GAZTEEN HARLEKUEK HEDATZEA PIKOAN EMAN

Aisialdi harreraren osagarri, Euskal Hirigune Elkargoak haren esku-hartze lurraldeetan publiko nerabearentzako harrera eskaintza bereziki egokitua proposatzeko xedea du.

2022an gazteentzako animatzaileen kontratazioak eta eskainiriko lekuen erabiltzeak Ipar Euskal Herri barnealdeko lurraldeak 5 gazte harlekuren inguruan saretzera (Bidaxune, Donapaleu, Maule, Irisarri eta Donibane Lohizune) heltzea ahalbidetu du. Leku horietan, gazteen harrera profesionalek egiten dute eta hauek hezkuntza eskaintza bat proposatzen diete eta haien ingurumenarekin, beharrekin eta bizitze lurraldearekin lotura duen proiektuak sortzen laguntzen dituzte.

Horren baitan, gazteria animazio taldeak plantan ezartzen du:

- "Murriz kanpoko" animazioak lurralde bakoitzean;
- 12 eta 17 urte arteko gazteek adin tarte horretakoentzat antolaturiko egonaldiak gaualdiekin
- Sare sozialetan presentzia, eta hartara Promeneurs du Net departamenduko sareko kide aktibo dira.

Gazte harlekuen ekintza partaidetza logika baten baitan kokatzen da (ikastetxeekin, Tokiko Misiorekin, Adoneniarekin...) eta orientazio eta prebentzio mailako lotura garrantzitsuak osatzen dituzte.

#### ZENBAKI BATZUK

**220 GAZTERI**

HARRERA 2022AN

**170 000€-ko**

FUNTZIONAMENDURAKO AITZINKONTUA CAFAK  
ETA MSAK FINANTZATURIK (BASERRIALDEAN  
HANDITU -GRANDIR EN MILIEU RURAL-  
PROIEKTU-DEIALDIA)

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK



## 1. PROIEKTUA

### PREKARITATEEN BEHATOKIAREN

#### 1. EDIZIOA

Prekaritateen Behatokiaren helburua, lurraldeko prekaritate egoeren aniztasunaren analisia partekatzea, horretarako jadanik dauden baliabide estatistiko eta dokumentalak balioztatzea eta, beraz, kontzientzia hartzeko eta erabakitzeko tresnak ukaitea da, analisia horiek gehiengo handiari jakinaraziz (elkargoko eta Herriko Etxeetako hautetsiak, publiko zabala).

Ipar Euskal Herriko EGEZaren batzorde berezi batek gidatua, urte guziz gai desberdin bat lantzen du. Behatokiak Ipar Euskal Herrian aise zabaltzen den xede pedagogikoko sintesia dokumentu baten ekoizpena ekartzen du. 2022ko udaberrian, lehen edizioak ostatatzearekin eta etxebizitzarekin loturiko prekaritate handia izan zuen aipagai.



## 2. PROIEKTUA

### EGEZ-eko agenteen

#### PREKARITATEK ATERATZEA

Prekaritatek ateratzeak agenteen enplegarritasuna segurtatzea du helburu, bai asteko lan ordutegi mailan (oren oinarri, laneko ziklo finkoa...) bai kontratu motaren bilakaera perspektiba mailan (enplegu iraunkorra lan kontratu mugagabearen perspektibarekin, titularizatzea...) gutieneko kontratu bermeak emanez. 2 urtez, EGEZak 17,25 Lanaldi Osoaren Baliokide (ETP) sortu ditu, agente titularren edo jadanik lanpostua zuten kontratupekoen lan orenak emendatuz. 2020 eta 2021ean jadanik ontsa aitzinatua, mugimendu bertutetsu hori 2022an handitu zen, +4,05eko ETParekin haien lan orenak emendatu zituzten enplegu iraunkorren ziren 20 kontratupeko agenteentzat, +0,63ko ETParekin haien lan orenak emendatu zituzten 2 agente titularrentzat, +1,4ko ETParekin 2 agente ikaslerentzat (titularizatzeke menturarekin) eta +1,65eko ETParekin lan kontratu mugagabea egin zitzaizen 4 agenterentzat.

## 3. PROIEKTUA

### LEHEN HAURTZAROA LEIHATILA BAKARRAREN PLANTAN EZARTZE ESPERIMENTALA

Lehen haurtzaroko harrera galdeei eskainia zaion leihatila bakarra Errobi lurralde eremuan esperimentatua da. Proiektu horrek 3 helburu nagusi ditu:

- Burasoentzako desmartzak sinplifikatzea lurraldeko harrera mota guzientzako aitzinetikako izen-emate txosten bakarrarekin; gainera Lehen Haurtzaroaren bitartekaritza-guneak ematen duen informazio guzia eskuratzen dute haien hautu eta desmartzetan laguntzeko gisan;
- Elkargo eta elkarte hartzaindegien baitan lekuen esleipenerako baliabide bat eta irizpide harmonizatu eta gardenak ukatea;
- Eskaintzarekin lotua den harrera eskaeren behatoki zehatz eta eguneratua ukaitera heltzea.

Lekuen esleipenerako 1. batzorde bakarra 2022ko ekainaren 1ean iragan zen, proiektuaren plantan ezartzeko garrantzitsua den etapa markatuz.

Esperimentatze horrek Euskal Hirigune Elkargoari tresna hori lurraldeko beste eskumenen mailan garatzea ahalbidetuko dio.

## 2. HERRITARREZ BETERIKO IPAR EUSKAL HERRI BIZI BATEN ALDE: GURE HIRI ETA HERRIAK BIZKORTU



# KIROL, KULTURA eta HERRITARRENTZAKO ZERBITZU EKIPAMENDUAK

### IKUSPEGIAREN eta engaiamenduen OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Oro har Ipar Euskal Herria ekipamendu eta zerbitzu mailan ongi hornitua da. Hala ere, lurralde mailako desberdintasunak agertzen dira eta ardatz egituratzaileetatik kanpo diren zenbait leku hauskortasun egoeran dira. Euskal Elkargoak lurralde osoan lan egiten du beharrezkoak diren orekatzeak egiteko. Xede hori elkargo ekipamenduak eraikiz edo parte hartze funtsen bidez herrien proiektuak lagunduz gauzaten da.

#### 33. engaiamendua

##### IPAR EUSKAL HERRIA PUBLIKOARENTZAKO ZERBITZU-ETXEEZ SARETU

Nor berak bere urraspide administratiboan egiteko ahala ukan dezan

#### 34. engaiamendua

##### IPAR EUSKAL HERRIKO HAUR GUZIEK ESKOLAREN BAITAN IGERI EGITEN IKAS DEZATEN AHALBIDETU

kirol ekipamenduen antolaketa eskema bat onduz.

#### 35. engaiamendua

##### ORORENDAKO KIROLA SUSTATU LURRALDE OSOAN

kirol-instalazioen eskema bat landuz

#### 36. engaiamendua

##### KULTURA EKIPAMENDUEN BIDEZKO ESKURAGARRITASUNA BERMATU

Ipar Euskal Herriko herritar guziek kalitatezko eskaintzak errazkiago eskuragarri ukan ditzaten.

##### ARNAUD FONTAINEREN HITZA, Lehendakariordea, Gizarte kohesioa, prekaritatea eta osasuna

2.400 kirol ekipamendu eta gunee bano gehiagorekin, Ipar Euskal Herria sekulako joko eremua da diziplina guzientzako. Ur biziak edo itsasoa aipatzen ditugula, ureko aktibitateak zentralak dira. Horregatik igerilekuen plana xede zentral baten inguruan eraiki dugu: Ipar Euskal Herriko haur guziek seigarrenera iritsi aitzin igeri egiten ikastea.

# euskal HIRIGUNE ELKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### IGERIKETAREN IKASKETA BERMATU: IPAR EUSKAL HERRIKO IGERILEKUEN PLANAREN ONARPENa

Biztanleen eta ur ekipamenduen munduko eragileei eginiko kontsularen segidan, Euskal Elkargoak denen beharrei erantzutea ahalbidetzen duen Igerilekuen Plana sortu du. Helburua, ingurumen sano batean kalitatezko kirol ekipamenduak eskuragarri direla bermatzea da. Lehentasunez, Ipar Euskal Herriko haur guziek seigarrenera iritsi aitzin igeri egiten ikas dezaten ahalbidetzeaz eta denentzako kirol-osasun eta aisialdiko aktibitateak garatzeaz mintzo gara, energia eta aitzinkontu soiltasunaz axolaturik kostua menperatzearekin batera.

Igerilekuen planak elkargo intereseko ekipamenduak 3 irizpideren arabera (ekipamenduaren eskola hedapena, lehen mailako eskola igeriketarako tarteen esleipena eta ekipamendutik 5 minutura bizi den biztanle dentsitatea) finkatzen eta programatzen ditu, eta lehen mailako eskolaren baitan igeriketa irakaskuntzan parte hartzen duten ur ekipamenduak zaharberritzen dituzten herrientzat parte hartze funtsen politika bat proposatzen du.

#### ZENBAKI BATZUK

**18 UR EKIPAMENDU IPAR  
EUSKAL HERRIAN, HAUETARIK 8  
EUSKAL ELKARGOARENak**

ELKARGOAREN UR-EKIPAMENDU PROIEKTU  
BERRIA ERROBI- ATURRIKO EREMUAN

**28,5 MILIOI€**

AURREIKUSIAK URTE ANITZeko INBERTSIO  
PLANean

## 2. EKINTZA

### FRANCE SERVICES HEDATU HURBILEKO ZERBITZU PUBLIKOEN ESKURAGARRITASUNA BERMATZeko

France Services-ren helburua, leihatila bakarrari esker hurbileko zerbitzuak indartuz erabiltzaileak haien desmarxa administratiboetan laguntzea da. Espazio horrek, Finantza publikoak, CAFa, Erien asurantz, Erretreta asurantz, barne ministerioa, Pôle emploi, Laborantza Mutualitate Soziala etab. bezalako antolakundeen zerbitzuak eskuragarri ukaitea ahalbidetzen du. Aholkulari numerikoez ere publikoa laguntzen dute, tresna numerikoen erabilpenean formatuz. Euskal Elkargoak, Estatuarekin lotura eginez, lurraldearen saretzea France Services-ren bidez segurtatzen du, herriekin, elkarteekin edota Postarekin elkarlanean. 2022an, Euskal Elkargoak zuzenean eraman zituen Bardozeko eta Atharratzeko Zerbitzuen etxeak Mauleko eta Donapaleukoak osatzera jin ziren.

#### ZENBAKI BATZUK

**IPAR EUSKAL HERRIAN  
LABELIZATURIKO**

**12**

**FRANCE-SERVICES ETXE**

## 1. PROIEKTUA

### BAIONAKO René cassin LIZEOKO EZKERPARETAREN ZAHARBERRITZea

Nazioarteko Pilota Federakuntzaren arauen arabera eman ahal izateko René Cassin Lizeoko ezkerparetako kirol eremuaren zaharberritze lanak egin ziren, 2022ko Munduko Txapelketako 30 eta 36 m-ko ezkerparetako partidak hartzeko helburuz. Ekipamendu hori Frantziako Pilota Federakuntzaren eta lizeoko ikasleen eskuragarri da.

**IPAR euskal HERRIA  
ERALDATZEN DUTEN  
PROIEKTU HORIEK**

**3. IPAR  
EUSKAL  
HERRI  
ENGAIATU  
BATEN  
ALDE: GURE  
GARAPEN  
EREDUAK  
BERRIZ  
ASMATU**





## IKUSPEGIAREN eta engaia menduen OROITARAZTEA

### IKUSPEGIA

Ipar Euskal Herriko dinamika sozio-ekonomikoa historikoki lurraldean errotuak diren bi aktibitate zutabetan bermatzen da: ekoizpen zutabea eta bizitegi zutabea. Tokika balore gehigarria sortzeko gai diren enpresen instalazioaren bidez egiten den Ekonomiaren finkatzea baitezpadakoa da Ipar Euskal Herrian iraunkorki enplegua segurtatzeko. Formakuntza eskaintzaren eta langile kalifikatu beharraren arteko uztartzea ere erronka handia da iraultza numerikoaren eta trantsizio ekologikoaren ikuspegitik.

### 37. engaia mendua

**ekonomia ekoizlea FAVORATU GIZARTEAREN GIZARTE, LURRALDE eta INGURUMEN mailako ASPIRAZIO BERRIEI ERANTZUNEZ**

### 38. engaia mendua

**EKINTZA ekonomikoa BEREZITU 8 EKOIZPEN ADARRETAN:**

hazkunde urdina, aeronautika, mekanika, robotika, laborantza-elikagaigintza, eraikuntza jasangarria, numerikoa, osasuna, logistika, ekoizpen eskulangintza.

### 39. engaia mendua

**EREDU TEKNOLOGIKOAN BERMATU**

teknologiaren eskualdatzea eta eragile guzien arteko ongarriztatzea errazteko eta elkarrekintzak faboratzeko, tokiko gaitasunak eta trebetasunak balioztatze gisan.

### **SYLVIE DURRUTYREN HITZA, Lehendakariordea, Ekonomia eta berrikuntza**

Kolektibitateak lurraldeko eragile ekonomiko emankorrak haien garapenean eta praktiken aldaketan laguntzen ditu, gaur egungo ingurumen eta gizarte erronkak barneratu ditzaten. Tokiko ehun ekoizlea sustengatzen du prozeduren deskarbonizazioan, ondasun komunetan duen eraginaren ttipitzean (lur-funtzen, uraren, energiaren... arrazionalizatzea). 2022an kolektibitatearen palanka efektua adierazgarria izan zen: 1 euro publiko = 13 euro enpresen inbertsioa lurraldean

# euskal HIRIGUNE ELKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### GURE BALIABIDEAK ZAINDU ETA GURE GARAPEN EREDUAK BERRASMATU: UHINEN ENERGIA

“Euskal kostaldeko itsas zabalean uhin-energia fabrika finkatzeko azterketa” proiektua 2017az geroztik Akitania Berria Eskualdearen eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean abiatua den partaidetza pean da. Proiektuaren helburua helburua 2050ean lurraldeko behar energetiko guztiak energia berriztagarri bidez asetzea da. Aktore zientifiko eta teknikoak elkartuz, lurraldearentzako argindar berdea eskala handian ekoiztu beharko duen gisa horretako proiektu bati harrera egiteko gune egokia hautatzeko beharrezkoa zen azterketa egitea ahalbidetu du partaidetza berri horrek.

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 7. ardatzari dagokio: energia berriztagarriaren ekoizpena emendatu: beharrak tokiko baliabideen balioztatzearen bidez ase, zeinak “ekoizpen hidroelektrikoa sustengatu eta Garapenerako perspektibak aztertu” fitxari erantzuten baitio.

#### ZENBAKI BATZUK

# 3 URTE

ADITU ETA PROFESIONAL TALDEAK ALDEZ  
AITZINETIK ERAMAN DUTEN EGINGARRITASUN  
AZTERKETAREN IRAUPENA

# 500 GWH/URTEKO

IDENTIFIKATURIKO GUNEAN UHIN-ENERGIA  
MOTORE PROIEKTU BATEK URTEAN EKOIZTU  
DEZAKEEN ARGINDAR EKOIZPEN GAITASUN  
GORENAREN ESTIMAZIOA, HOTS, IPAR EUSKAL  
HERRIAREN KONTSUMOAREN %30a.

## 2. EKINTZA

### TRANSIZIOAK AURREIKUSI ETA PROIEKTU ARDURATSUA BERMATU: ZUZENeko LAGUNTZEN BALIABIDE BERRI BATEN eta eKO-SOZIO- BALDINTZATASUN IRIZPIDE BATEN FINKATZEA

Ingurumen dimentsioa barne hartzen duten praktikak eta molde sortzaileak sustatu eta balioztatzeko, kolektibitateak haren Enpresa higiezinrentzako laguntza araudian eko-baldintzatasun irizpidea sartu du.

Gisa berean enpresak laguntzeko baliabide berria onartu du: Erresilientzia eta Emaizta Kontratua, emaitza industrial laguntzea, ingurumen aztarnaren ttipitza eta enpresetan eragin sozial baikorra sortzea du helburu.

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza horrek LuKAEParen 6. ardatzari erantzuten dio: beste molde batez ekoiztu eta kontsumitu: baliabideak zaindu, hondakinei, eta berezikiago alfer utziei, aurreikusi eta balioa eman:

- Berrerabiltzeen eta material birziklatuen sailen garapena lagundu
- Ekonomia zirkularraren garapena lagundu, eraikuntza eta obra publikoen sailetan
- Ipar Euskal Herria lurralde eredugarria bilakatu, lantegi iraunkorren eta haren enpresa industrial arduratsuen haztegiaren bidez.

#### ZENBAKI BATZUK

HIGIEZINENTZAKO LAGUNTZA ARAUDIA 2022RA  
ARTE: 17 ENPRESA ONURADUN, 2,23 M€-KO DIRU-  
LAGUNTZA (%50 EUSKAL ELKARGOAREN GAIN)  
25 M€ ENPRESEN INBERTSIOA

ERRESILIENTZIA ETA EMAITZA KONTRATUA:  
200 K€ ARTEKO DIRU-LAGUNTZA ENPRESA  
BAKOITZEKO 3 URTEREN BAITAN.



# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK



## 1. PROIEKTUA

### TURBOLABEN ERAIKUNTZAREN ABIATZEA

TURBOLAB: Industria / Ikerkuntza / Irakaskuntza entsegu plataforma, AKIRA, Compositadour et Addimadour (Estia) eta Euskal Hirigune Elkargoa 3 eragileen artean aeronautikako ekoizpen berritzaileko partekatua.

TURBOLABek aireko mugikortasunaren deskarbonizazioaren zerbitzura diren aterabide teknologiko berritzaileak baldintza errealetan entseatzea ahalbidetuko du, hegazkin komertzialentzako eskalan ezarri baino lehen. Ikusmolde berritzaile eta arin hori garapen betean da aeronautika sailean, sailaren garapen teknologikoen kostua eta karbonoaren eragina ttipitzea ahalbidetu nahi baita.



© Cabinet Alaman Mac Donald Architects

## 2. PROIEKTUA

### LARRAMENDIA LAN EREMUAREN ANTOLAKETA (AMIKUZeko EREMUA)

Garapen ekonomikoaren eskumenaren baitan, Euskal Elkargoa sorkuntza, antolaketa, mantentzea eta lan eremuen kudeaketarako eskuduna den instanzia bakarra da.

2022an, Euskal Elkargoak Larramendia Lan Eremua antolatu zuen Amikuzeko Aiziritzeko herrian. 7 ha baino gehiagoko eremuan, Euskal Elkargoak hiru proiektu mota hartuko ditu:

- Laborantzako produktuen transformatzeari eskainiriko lurraldeko lehen gaikako enpresa mintegia: "elikagaigintzako enpresa mintegia"
- 11 tailerreko Ofiziale herrixka, bakoitza 150 m<sup>2</sup>-koa, ofizialei saldu edo alokatzeko prest. Proiektu horrek 3.660 m<sup>2</sup>-ko eremu batean 11 enpresa finkatzea ahalbidetzen du (8.000 m<sup>2</sup> inguruko lur-funtsaren arrazionalizazio eta aurrezteak)
- Neurri handiagoko 17 ekoizpen eta ofiziale enpresei harrera horretarako eskainiak diren loteetan



© CAPB

### 3. IPAR EUSKAL HERRI ENGAIATU BATEN ALDE: GURE GARAPEN EREDUAK BERRIZ ASMATU



## GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA, IKERKETA eta FORMAKUNTZA

#### IKUSPEGIAREN eta ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

##### IKUSPEGIA

Goi-mailako Irakaskuntzaren eta Ikerketaren garapena lurraldearen garapen ekonomikorako eta erakargarritasunerako ezinbesteko baldintza da.

Gaur egun, Ipar Euskal Herrian den goi-mailako formakuntza eskaintzak ez ditu lurraldearen behar eta eskizak behar bezala betetzen.

Erroka nagusi horretaz jabeturik, elkargoak haren estrategia Garapen Unibertsitariorako Eskema baten ontzearekin koherentzia ezartzea deliberatu du.

2025ean 10.000 ikasleri harrera egiteko gai izanen den Ipar Euskal Herriko Campusa eraikitze bidean da.

#### 40. ENGAIAMENDUA

**10.000 IKASLERA IRITSI 2025ean eta AKITANIA BERRIKO BIGARREN INGENIARI FORMAKUNTZA EREMUA BILAKATU.**

#### 41. ENGAIAMENDUA

**IKASLEEI KALITATE HANDIKO ZERBITZUAK eskaini GAIAKAKO CAMPUS ERAKARGARRIETAN.**

#### Jean-PIERRE LaFLAQUIÈREN HITZA,

Lehendakariordea, Goi-mailako Irakaskuntza eta Ikerketa

Formakuntzarekin loturik eta bikaintasunaren tematikaren inguruan eragileak federatuz ikerketa eta berrikuntza lagundu, horiek dira Goi-mailako Irakaskuntza eta Ikerketarako Zuzendaritzaren egiteko handietarik batzuk.

Proiektu deialdi forma pean esleituriko finantzamenduekin, eskura utziriko egoitzekin eta eraikin berrien eraikitzearekin, helburua gure ikasleentzako eta gure lurraldeko unibertsitateko langileentzako zinezko “unibertsitateko bizia” garatzea da.

# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK AITZINA DOA

## 1. EKINTZA

### LEHENTASUNEZKO EREMUETAN IKERKETA ETA BERRIKUNTZA LAGUNDU

Bikaintasun Elkarlaneko Ikerketa Ekimenetarako Deialdiak nazioartean aitortza eta ikusgarritasuna irabazteko parada ematen die lurraldeko ikerketa laborategiei, eta baita urte anitzeko lankidetzako proiektu egituratzaileak plantan ezartzeko ere. Proiektu horien finantzazio osoa edo parte bat haren gain hartuz, baliabide horrek ikertzaileen ahalmena bikaintasunaren eremuetan indartzea ahalbidetzen du, lurraldeari egiazko berezitasuna ematearekin batera.

Aurten Euskal Hirigune Elkargoak lagunduko dituen proiektuak ondoko gaien ingurukoak dira:

- Europa burujabearen inguruko hausnarketa egituratzailea, Nazioarteko katedra baten baitan,
- Ipar Euskal Herriko eleaniztasunaren inguruko ikerketarako laborategi esperimentalak eraikitzeak laguntza

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Euskal Hirigune Elkargoak lurraldearen gizarte erronkei erantzuten dioten 4 eremu estrategikotan Ikerketa sustengatzeko hautua egin du

- Nazioarteko ikasketak,
- Ingeniaritza eta Numerikoa
- Eraikuntza eta antolaketa iraunkorra
- Ingurumena eta itsasoa

#### ZENBAKI BATZUK

# 446 800€

ESLEITUAK (TESIAK ETA DOKTORETZA ONDOKOAK)

## 1. EKINTZA BIS

### LEHENTASUNEZKO EREMUETAN IKERKETA ETA BERRIKUNTZA LAGUNDU

2017an E2S “Energiaren eta Ingurumenarentzako Aterabideak” proiektuari esker I-SITE\* (Initiative Science Innovation Territoire Economie) bikaintasunaren labela eskuratu zuen Frantzia mailako 9 unibertsitateetarik bat izan ondoren, 190 milioiko kapitalarekin UPPA behin betiko labelizatua izan zen 2022an eta, oraindik, ofizialki Frantzia mailako bikaintasuneko unibertsitateen zerrendan (IDEX eta I-SITE) sartua da.

Euskal Hirigune Elkargoak Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearen eraldaketan lagundu zuen 2018an, Ipar Euskal Herriaren faboretan dinamika berri bat bultzatzea ahalbidetu zuen diru mailako laguntza handiarekin.

*\*Bikaintasunaren I-SITE\* labela (Initiative Science Innovation Territoire Economie), Plan Investissement Avenir (PIA 2) frantses taldearen eta Plan Investissement 2030en ekintza da, unibertsitate mailako ikerketa indartzea ahalbidetzen duena*

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Euskal Hirigune Elkargoak laguntzen dituen Katedra guztiak energia eta ingurumeneko trantsizio gaien ingurukoak dira: biologikoan inspiraturiko materialak, Euskal Kostaldearen kudeaketa iraunkorren aldeko modelizazio numeriko aitzinatua, etab.

Molde berezian, ekintza horrek LuKAEParen 1. (klima aldaketari egokitu: lurraldea, haren biztanleak, baliabide naturalak, haren aktibitateak zaindu), 3. (Bizi: soiltasun eta eraginkortasun energetikoa lagundu) eta 8. (Elkarlanean aritu: partaidetza eta tokiko ekintza gidatu eta animatu) ardatzei erantzuten die.

#### ZENBAKI BATZUK

# 5

IKERKETA KATEDREI SUSTENGUA  
+ 1 DESAFIO ZIENTIFIKO

# 23

DOKTORETZA ETA  
DOKTORETZA-ONDOKO IKASLE  
LURRALDEAN FINANTZATUAK

**2. EKINTZA****GOBERNANTZA ANTOLATU eta ERAGILEAK FEDERATU**

Garapen Unibertsitarioaren Eskemaren baitan finkaturiko helburu eta orientabideak, lurraldeko eragile guzietan hori lortzeko beharrezkoak diren bitarteko guziaz mobilizatzen badituzte baizik ezin dira irudikatu.

Ipar Euskal Herriko Campusa izatez eragile desberdinez (unibertsitateak, ingeniari eskolak, arte eskolak, lizeoak, ikastetxe pribatuak...) eta eremu anitzez osatua den diziplina anitzekoa izanki, eragile guzietan arteko elkarrizketa Ipar Euskal Herriaren lurralde mailan sustaturiko harreman eta hausnarketarako eremu baten bidez faboratua da, eta hori Ipar Euskal Herriko Konferentzia Unibertsitarioaren urteroko antolaketarekin gauzatzen da.

**KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA**

Ipar Euskal Herriko Konferentzia Unibertsitarioak eragile eta partaide guzietan arteko lankidetzan ahalbidetzen du, lurraldean ikasketekin segitzearekin eta hau errealitate sozio-ekonomikoaren mundura egokitzearekin loturiko erronkak tokikoek gidatu eta animatu ditzaten.

**ZENBAKI BATZUK**

**3. EDIZIOA**  
2022KO AZAROAREN 18AN

**BERROGEITA HAMAR PARTE HARTZAILE INGURU**

**3. EKINTZA****LURRALDEKO IKASLE BIZIAREN PROIEKTU EGITURATZAILEAN LAGUNDU**

Euskal Hirigune Elkargoak Ipar Euskal Herriko Campuseko ikasleen elkarte engaiamendua laguntzen eta sustatzen du, helburutzat proiektuen plantan ezartzen laguntzea duen Ikasle Iniziatiba Deialdiaren bidez:

- Formakuntza ibilbidearekin loturiko proiektu pedagogikoak
- Garapen kolektibo eta solidariorako proiektuak
- Kultura sorkuntza eta ondarearen balioztatzea lehen tokian ezartzen duten proiektuak
- Kirolaren eta elikaduraren bidez osasun ona sustatzea xede duten proiektuak

Lagunduriko elkarten kokapena da:

- Errobiko Campusa (Baiona)
- Montaury Campusa (Angelu)
- Izarbel gune teknopolitana (Bidarte)

**ZENBAKI BATZUK**

**15** HAUTAGAITZA TXOSTEN ESKURATUAK

**12** PROIEKTU ATXIKIAK

**23 490€**  
ESLEITUAK

#### 4. EKINTZA

### LEHEN-FORMAKUNTZA eskaintza eta HONEN IKUSGARRITASUNA INDARTU

Euskal Elkargoak lurraldeko goi-mailako irakaskuntzako zentroi zuzenduriko haren Formakuntza proiektu Deialdia urte anitzeko formula berriari buruz bilakarazi du, lehen-formakuntza berrien abiatzea eta indartzea, eskaintzaren dibertsifikatzea eta Baxoa+5 arteko ibilbidearen jarraitasunaren faboratzea ahalbidetzeko gisan.

Aurten lagunduriko proiektuak ondokoei buruzkoak dira:

- ISA-BTP eskolaren baitan diplomadun formakuntza berriak irekitzeko aukeren azterketa bat
- Baiona Ipar Euskal Herriko Teknologiako Unibertsitate Institutuan (IUT) lehen-formakuntza berriak irekitzeko prospektiba azterketa bat
- Paueko eta Aturrialdeko 2EI Kolegioan Baxoa+3 eta Baxoa+4 formakuntzen sortzea
- "Bachelor" diploma eskuratzeko aldizkako ikasketen irekitzea Largenté lizeoan (Baiona)
- Lizentzia profesional baten irekitzea Errecart lizeoan (Donapaleu)
- Bordeleko Unibertsitateko STAPS ingeniari-tza proiektuaren sustengatzea

#### ZENBAKI BATZUK

**10** HAUTAGAITZA TXOSTEN ESKURATUAK  
**7** FORMAKUNTZA BERRI IREKIAK LURRALDE OSOAN

**192 500€**  
ESLEITUAK

#### 4. EKINTZA BIS

### LEHEN-FORMAKUNTZA eskaintza eta HONEN IKUSGARRITASUNA INDARTU

Formakuntza ibilbide desberdinetako ikasleak enpresa munduari sentsibilizatzeko eta lurraldean proiektu berritzaileak sustengatzeko parada ematen duen Créathon Pays Basque-n 1. edizioaren antolatzea.

Gaia biomimetismoari buruzkoa zen, tokiko ingurumen problematikari erantzuten dion proiektu berritzaileak sortzeko bizirik denaren funtzionamenduan inspiratzen den diziplina anitzeko ikuspegia.

#### KLIMA, airea, energia PLANAREKIN LOTURA

Gertakari honek bizirik denaren ikuspegi zientifikoan inspiraturiko berrikuntzarako sentsibilizazioa proposatzen du, gizakiaren aktibitateak ingurumenean duen eragina eta honek herritar gisa ekologia eta ingurumen mailako trantsizioari egiten dion ekarpenaren kontzientzia hartzea kontuan hartuz.

Ekintza horrek LuKAEParen 1. ardatzari erantzuten dio: klima aldaketari egokitu: lurraldea, haren biztanleak, baliabide naturalak, haren aktibitateak zaindu

#### ZENBAKI BATZUK

**1 KONFERENTZIA**

(160 LAGUNEKO ORATORIA, HAUETARIK 60 PROFESIONAL)

**117 IKASLE**

ETA 11 FORMATZAILE (IRAKASLE ETA IKERLARI)

**14 PROIEKTU**

AURKEZTUAK ETA 10 STARTUPEKO PITCHAK

# “ IPAR euskal HERRIA eraLDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK ”

## 1. PROIEKTUA

### ERAIKUNTZA ET HERRI-LANEN (BTP) INGENIARI ESKOLA ETA LABORATEGI PARTZUERRAK OSTATATZEN DITUEN ISALAB ERAIKINAREN ESKUETARATZEA

ISALAB operazioa, Arkinova gune teknopilitanoa abiarazi duen Cœur de Campus proiektuaren baitan sartzen da.

Helburu nagusia, biharko eraikuntzaren erronkei erantzunen dien eraikuntza eta antolaketa iraunkorreko Frantzia mailako bikaintasun poloa bilakatzea da.

Horretarako presente diren indar bizietan bermatzen da (Nobatek baliabide teknologikoetako zentroa, ISA BTP ingeniari eskola, UPPAko laborategiak, Cantau lizeoa, Eraikuntzako Lanbideen “Compagnonsen” Federakuntza)

ISALAB eraikinak biltzen ditu:

- Formakuntza aktibitateak: ISA BTP, ingeniari eskola publikoa 5 urtez, UPPAko adarra, 300 ikasle 45 berezitasunen inguruan formatzen ditu: eraikuntza, bizileku & energia, ingeniari zibil eta itsas ingeniari zibil, bide & sareak,
- 2 ikerketa laborategiren inguruan antolaturiko ikerketa aktibitateak (SIAME eta LHC-R) eta baita partzuer diren katedrak.

Euskal Hirigune Elkargoaren Garapen Unibertsitarioaren Eskemaren baitan parte hartzen du, 2025erako Akitania Berriko bigarren ingeniari eremua bilakatzeko eta 10.000 ikasleren muga gainditzeko helburuz.



© CAPB - C.Latxague

ISALAB eraikina, 4.200 m<sup>2</sup>-ko hedadurakoa, 2022ko uztailan eskura eman zen, ikasleei 2022-2023 ikasturteko sartzeari egoitza berria egitea ahalbidetuz.

Operazioaren kostua: 12 milioi euro, 2015-2020 Estatu Eskualdea Plan Kontratuaren baitan


Finantzatzaileak: FEDER Europako funtsak – Estatu – Akitania Berria Eskualdea – Euskal Hirigune Elkargoa – Angeluko herria.



© Patrick Arotcharen Architects



## AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNAK



### IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Euskal Hirigune Elkargoak, haren tresna operazionala den Ipar Euskal Herriko Mugikortasunen Sindikatuaren bidez (mugikortasunak antolatzen dituen autoritatea), lehengo herriarteko perimetroak (hots, 161 herri, hauen artean Euskal Elkargoari buruz itzuliak diren Landetako hiru herri) gainditzen dituzten bizi eremuen eskalan ulertzen ditu mugikortasunak.

#### 4. engaiamendua

#### AUTO INDIBIDUALAREN ALTERNATIBA DIREN MUGIKORTASUN ESKAINTZA GUZIEN ESKURAGARRITASUNA ERRAZTU

bereziki TxikTxak sare guziraiko prezio harmonizatu eta solidarioak plantan emanaz.

#### 4. engaiamendua

#### AUTO INDIBIDUALAREN BALIATZEA TTIPITU (2030EKO EPEMUGAN HERENERA APALTZEKO XEDEA)

horretarako Mugikortasun Planean finkaturiko 114 neurrietan bermatuz.

#### Jean-François IRIGOYENEN HITZA,

Lehendakariordea, Mugikortasun iraunkorrek eta berritzaileak, eta Mugikortasunen Sindikatuaren Lehendakaria

2022an, TxikTxak sareak 11 milioi bidaiari eraman zituen, bere eskaintza %10ez areagotuz 2021 urteari alderatuz. Eraitza pozgarri hori lortu da izari hortako lurralde batean eskaintza berri bat garatu baita eta muga-zergen multzo bakarra eta solidarioa sortu baita. Lan honek “pass d’or “Ville, Rail & Transports” aitzortzaren bidez aitortua eta saritua izan da. Urtez urte jarraitu behar dugu biztanleriaren itzaropenei eta lurraldearen erronkei erantzuteko: auto-pilaketaren kontrola, lurralde osoko garraio zerbitzua, garraio eskaintza egokitu baten bidez, trantsizio ekologikoa eta energetikoa. 2022-2030 mugikortasun planak, urte anitzeko inbertsio planarekin batera, ondoko urteetarako gure mugikortasunen politikaren ikuspegia finkatzen du.

# euskal hirigune elkargoa aitzina doa

## 1. EKINTZA

### GARRAIO PUBLIKOAK GARATU - EUSKAL ELKARGOAK TXIK TXAK HEDATZEN DU: eskaera BIDEZKO GARRAIOEN HEDATZE ESPERIMENTALA LURRALDEETAN

Denei zuzenduriko eskaera bidezko garraio zerbitzu bat (EBG) esperimentu gisa abian da Xiberoko, Amikuzeko eta Iholdi-Oztibarreko lurraldeetan. Jadanik plantan diren mugikortasun zerbitzuen osagarri da: Ekialdeko TXIK TXAK hiriarteko lineak (L10, L11, L15) eta "Roulez en Amikuze" elkarteak gauzaturiko zerbitzua. Eskaera egiten duten erabiltzaileak etxetik haren bizi eremuko interes guneetara garraiatzea ahalbidetzen du (saltegi, Herriko Etxe, Osagarri-etxe, etab.).

## 1. EKINTZA BIS

### GARRAIO PUBLIKOAK GARATU - EUSKAL ELKARGOAK TXIK TXAK SAREA HEDATZEN DU: GUNE MULTIMODALAK (TME) eta HURBILEKO EREMUEK TXIK TXAK ZERBITZUAK BESTE GARRAIO ESKAINTZEKIN LOTZEA AHALBIDETZEN DUTE

Donibane Lohizuneko Antolaketarako Partaidetza Planaren baitan, Mugikortasunen Sindikatuak 2022ko uztailaren 27an Donibane Lohizuneko Laiatzen Ilargia aldiriko aparkalekua martxan eman zuen. Honek hiri sartzean aparkatzeko eta Donibane Lohizunera heltzeko parada ematen du garraio publikoari (L3, 43 eta 51) eta udako N40 joan-jinkariari (Erromardi, Lafitenea, Maiarko, Zenitz hondartzak lotzen dituenari) esker. Antolaketa horrek auto partekatzearen bidez A63an ibiltzea ere ahalbidetzen du.

## KLIMA, airea, energia PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori Euskal Elkargoaren Klima, Airea, Energia planari dagokio:

- Mugitu: "osasun" onurak eskuratzeko praktikak aldatu, zeinaren baitan "egin, deskubritu, esplikatu, mugikortasun praktika alternatiboentzako zaletasuna piztu" fitxari erantzuten baitio.
- Elkarlanean ari izan: partaidetza eta tokiko ekintza gidatu eta animatu. Zeinaren baitan "Ipar Euskal Herriko Klima Ekintza komunikazio plana ondu eta plantan ezarri" fitxari erantzuten baitio.

### ZENBAKI BATZUK

# 2050

## BIDAIARI 2022an

(2021eko abendutik 2022ko irailera)  
XIBEROKO, AMIKUZEKO eta IHOLDI-  
OZTIBARREKO EBGARI DAGOKIONEZ.

## KLIMA, airea, energia PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori Euskal Elkargoaren Klima, Airea, Energia planeko 2. ardatzari dagokio: karbono ondoko lurraldea planifikatu eta eraiki. Zehazkiago ondoko fitxei erantzuten die:

- Lurraldea antolatu Ipar Euskal Herriko antolaketa eta garapen Itunaren orientabideen errespetuan.
- Trantsizio ekologiko eta energetikoak elkargo-intereseko antolaketa operazioetan integratu.

### ZENBAKI BATZUK

200 lekuko aparkalekua

2 milioi euro Mugikortasunen Sindikatuak finantzatua, Estatuak Donibane Lohizuneko APParen (France Relancerako hautagarri) eta Garraio Publikoei eskainiriko guneen Proiektu deialdiaren baitan %54ko heinean parte hartu du, eta baita Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Donibane Lohizuneko herriak ere.

# « IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK »

## 1. PROIEKTUA

### GARRAIO PUBLIKOKO SARE GUZIEN BATERATZEA, ZEINAK TXIK TXAK BILAKATZEN BAITIRA, IPAR EUSKAL HERRI MAILAKO SARE BAKARRA PREZIO SINPLEAGO ETA SOLIDARIOAGOAREKIN

Txik Txak proiektuak Mugikortasunen Sindikatuaren lurralde osoaren baitako mugikortasun zerbitzu guzia TXIK TXAK marka bakarrean biltzea ahalbidetu du. Horretarako prezioen gama, txartelen sistema, informazio tresna numerikoak, marka mundua eta merkataritza politikaren kudeaketa bateratuak izan dira. Hemendik aitzina, lurraldeko biztanle guzietan mugikortasun zerbitzuak baldintza beretan eskuratzen dituzte, haien bizilekua eta mugitzeko eremua edozein izanik ere, lurralde berdintasunaren izenean.

Txik Txak proiektuak Euskal Elkargoaren eta Mugikortasunen Sindikatuaren hizkuntza politikari dagozkion engaiamenduak aplikatzen dituzte, frantsesa/euskara elebitasuna sistematikoki aplikatuz eta, noiztenka, frantsesa/euskara/gaskoia hirueletasuna ere.

- 10.746.492 bidaia Txik Txak sarean eginak 2022an
- Bidaien baliozkotzea banku txartel bidez TXIK TXAKen: salmenta operazioen %21a 2022ko uztailetik
- Bidaien baliozkotzea SMS bidez: %5a urte osoaren baitan (salmenta kopuruari dagokionez)



© L.Tomassi

## 2. PROIEKTUA

### INTERESA ADIERAZTEKO DEIALDIA (IAD, FR. AMI) AUTOZERBITZUKO BIZIKLETA ELEKTRIKOEN ALOKAIRU AKTIBITATERAKO

Ipar Euskal Herria-Aturriko mugikortasunen Sindikatuaren helburua da, 2030erako bizikletaren parte modalaren %8ra iristea. Helburu hori betetzeko, zerbitzu sorta ahal bezain zabala eskaini nahi die erabiltzaileei, eta Interesa Adierazteko Deialdi (IAD) bat abiarazi estaziorik gabeko autozerbitzuko bizikleta alokatze operadore baten finkatzea ahalbidetzeko. Hautagaiek 2022/12/05era arte zuten haien txostena pausatzeko.

500-600 bizikletako flota bat espero da zerbitzua berantengatik 2023ko ekainean plantan izateko.



© CAPB/JL Huppé

### 3. IPAR EUSKAL HERRI ENGAIATU BATEN ALDE: GURE GARAPEN EREDUAK BERRIZ ASMATU



## LABORANTZA, ELIKAGAIGINTZA, ARRANTZA

### IKUSPEGIAREN eta ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Politika publiko honen erronkek laborantza, arrantza eta elikagaigintzaren ehunaren mantenu eta garapenean dautza. Euskal Elkargoak, ekonomia eskumenaren bidez baina baita hautuzko laborantza lur-funtsen zaintza eskumenaren bidez ere, tokiko elikadura eskaerari erantzuten dion laborantza agroekologiko baten proiektu anbiziotsuaren aldeko lana egiten du. Tokiko ekoizpenari balioa ematea, laborantza dinamika sendoaren mantentzea eta ondasun komunen zaintza erronka estrategikoak dira gure lurraldearentzako.

#### 44. ENGAIAMENDUA

##### LABORARIEN IRABAZIAK HOBETU

kalitatearen adierazle ofizialen garapenean eta hauek merkatuetara eta egungo erronketara egokitzearen bidez, gorabidean diren sailen inimizazio eta egituraketaren bidez, banaketa zirkuitu berriak xerkatuz eta aktibitateak dibertsifikatuz.

#### 45. ENGAIAMENDUA

##### LABORANTZA-ETXALDEEN INSTALATZEA eta TRANSMISIOA FAVORATU

bereziki lur-funtsen problematikarekin loturiko erronkak segituz.

#### 46. ENGAIAMENDUA

##### LUR-FUNTSAK eta URA DIREN ONDASUN KOMUNAK ZAINDU

#### 47. ENGAIAMENDUA

##### LABORANTZAK eta LABORARIEK LURRALDEAN DUTEN TOKIARI INDARRA eman

laboraria eta laborantza euskal gizartearen erdigunean berriz kokatuz, laborantza egungo erronkei egokitzen laguntzarekin batera.

#### 48. ENGAIAMENDUA

##### LURRALDEAN ARRANTZA SAIL DINAMIKOA MANTENDU

produktuen balioztatze eta belaunaldien arraberritze mailako erronkei begira.

#### ISABELLE PARGADEN HITZA, Lehendakariordea, Laborantza eta geroko elikamoldea

Laborantza eta elikagaigintzari dagokionez, Euskal Hirigune Elkargoak sortze beretik laborariei eta elikagaigintzako transformazio enpresei balioa emateko sail eta desmarta kolektiboak teknikoki eta diru mailan laguntzeko jarrera hartu nahi izan du. Horretarako proiektu deialdiak eta jagoitik ekobaldintzatua den enpresa higiezinak laguntzeko araudia bezalako ingeniari eta baliabideak hedatzen ditu. Euskal Hirigune Elkargoa eraikitzailea da ere, mintegi bat, laborantza inkubagailu bat edo tailer kolektibo bat eraikitzen duelaik edo hiltegiak sustengatzen dituelarik. Gisa horretan zirkuitu laburretako eta hurbileko eragileen ingurumen tekniko eta teknologikoa indartzen du.

# euskal hirigune elkargoa aitzina doa

## 1. EKINTZA

### LABORANTZA BIOLOGIKOA GARATU

Euskal Elkargoak laborantza biologikoaren garapena haren “laborantza saila” bide orriko lehentasunetan finkatu du. 2022an gauzatu zituen ekintzak ondokoak dira:

- Helburu eta baliabideen inguruko 2 urteko hitzarmena BLE elkartearekin (Ipar Euskal Herriko Civam Bio), formakuntza kolektiboaren eta diagnostiko indibidualen bidez laborantza biologikoko proiektu-ekarleak laguntzeko xedez.
- IPARLAB Distribution elkartearen abiarazteko laguntza. Elkarte honek elikaduraren kalitate desmartaxaren baitako etxaldeko eta tokiko ekoizpenak, besteak beste %100 barazki biologikoak, proposatzen dituen profesionali zuzenduriko eskaintza garatzen du.
- Elkargoko lur-funtsen gaineko zerga dispentsarako deliberoa, eraiki gabeko lur-funtsetan lehen aldiko ustiaturiko laborantza biologikorako (2023an indarrean sartua).
- Frantzia mailako Bio Lurralde pilotuen Sarean engeiatzeko Ituna FNABarekin (Fédération Nationale d'Agriculture Biologique) izenpetzea 2022-2026 epealdirako.
- Ipar Euskal Herrian biologikoaren behatokiaren sortzea Open Data ZABALen bidez.
- Ipar Euskal Herrian Laborantza Biologikoko landare ekoizpenerako baliabideen zentro baten egingarritasun azterketaren abiatzea.

### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 5. ardatzari dagokio: “Lurra landu hobe jateko: elikadura praktikak eta laborantza ekoizpen mota jasangarriak faboratu” eta berezikiago ondoko ekintzak:

- Elikadura sailen garapena eta egituratzea lagundu, tokiko eskaerari hobe erantzuteko.
- Karbonoaren metaketarako onak diren laborantza ekologikoko eta laborantza-basozaintzako praktiken garapena lagundu

### ZENBAKI BATZUK

**420 etxalde biologikoan** (hots, + 15 etxalde 2021az geroztik), 8.973 ha (hots, ELEaren (Erabilitako Laborantza Eremua, fr. SAU) %7,5, bazka eremuak kanpo)

**66 234,49€**-ko dirulaguntza emana izan zaio IPARLAB Distribution elkarteari bere jarduera abiatzeko (50 laborarietarik %80 bio moduan daude)

**65 531,02€**-ko dirulaguntza emana izan zaio BLEri 2021-2022rako (2022an: 120 formakuntza-egun 35 proiektu-eramaileei finantzatuak, 30 instalazio-diagnostiko edo AB moduan aritzeko diagnostiko eginak).

## 2. EKINTZA

### BERRITU ETA GARATU: 3 PROIEKTU DEIALDIREN ABIATZEA

2022an hiru proiektu deialdiren 8. edizioaren abiatzea izan zen: Ekoizpen berriak, Zirkuitu Laburrak eta Etxalde Berritzaileak eta Praktika Agroekologikoak. Laborariei (indibidual eta kolektibo) eta elikagaigintzako enpresei zuzenduak dira.

Proiektu deialdi horien helburu nagusiak lurraldean berrikuntza sustatzea, praktika agroekologikoak, zirkuitu laburrak eta tokiko laborantza ekoizpenen transformazioa garatzea eta, ekoizpenen balioztatzearen eta etxaldeen autonomiaren bidez, laborarien irabaziak hobetzea dira.

### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Proiektu deialdiak LuKAEParen lehen orientabide estrategikoarekin lotuak dira: “Denen osasuna eta ondare naturala zaintzen duen lurralde erresilientea izan”.

Proiektuak iraupen irizpideen arabera hautatuak dira: ingurumen-eraginaren hobetzea, ur baliabideen zaintza, etxaldeen sargaien erabiltzearen ttipitzea, klima aldaketari egokitzea... Proiektu deialdi horien DNA bioaniztasuna eta ur baliabideak zaintzeko eta karbonoa biltzeko xedea duen laborantza erresilientearen sustengua ahalbidetzea da eta, aldi berean, laborarientzako giza mailakoa eta ordain duinekkoa izanen den etxaldeen ekoizpena faboratzea.

### ZENBAKI BATZUK

**19 laborantza** proiektu lagunduak 2022an

**154.000 €**-ko laguntzak esleituak

**7 proiektu** laborantza biologikoaren garapenari lotuak, **64.000€**-ko laguntzekin

**8 proiektu** etxalde ekoizpenaren garapenari lotuak, **63.000€**-ko laguntzekin

# euskal hirigune elkargoa aitzina doa

## 3. ekintza

### LABORANTZARAKO LUR-FUNTSAK ATXIKI

2022an Euskal Hirigune Elkargoak Laborantza lur-funtsen biltzarra antolatu zuen Donapaleun, laborantzako eta instituzioetako eragile guzien aitzinean. Hartan laborantzarako helburua duten lur-funtsen atxikitzeko lehentasunezko erronkaren inguruan urte batez eramaniko lanaren aurkezpena egin zen. Horren baitan abiatutako talde eta partaidetzako desmartzaz gain, ondorioztatu ziren neurri desberdinak aurkeztu ziren, hauetarik batzuk sekula ikusi gabeak.

Lehenak, laborantza lurren salerosketetan praktikatzaren diren prezioen moralizatzea zuten helburu. Euskal Elkargoaren eta SAFERaren artean "lur-funtsen zaintza eta menperatzeari" dagokion hitzarmena izenpetua izan zen. Laborantza lurren salmenta prezioak SAFERak finkaturiko erreferentziazko balorea gainditzen duelarik Euskal Elkargoaren izenean SAFERaren erosteko lehentasunaren aplikazio automatikoa finkatzen du bereziki.

Hautetsiei zuzenduriko agenda bat ere ondua izan zen eta Biltzar horretan aurkeztua. Ezagutzera emateko ardura harturik, hautetsiek haien herrietan dituzten laborantza lur-funtsak zaintzeko tresna guztiak zerrendatzen ditu eta adibide eta esperientzia kontakizun anitz aurkezten. Euskal Elkargoak, laborantza lurren geroari buruzko hausnarketa inposatzen du orain, Zeharkako Antolakuntza Eremu (ZAE, fr. ZAD) baten sortzearen baitan.

2022an Vincent Bruk eta Jean-Bernard Sempastous diputatuek bi atalen inguruan pausatu zuten lege proposamenean ere parte hartu zuen Euskal Hirigune Elkargoak: baserrialdeko kodean laborantzaren eta itsas-arrantzaren interes orokorreko izaera aitortzea eta SAFERaren erosteko lehentasunaren indartzea.

Azkenik, laborantzako lur-funtsen elkargo baten aukera aztertzeke beharra haren partzuerrekin egiaztatzen zuen.

## KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Laborantzarako lur-funtsen prezioaren menperatzea eta haren zaintzea LuKAEParen ekintzeekin zuzeneko loturarik ez duten zeharerronkak dira, baina "Lurra landu hobe jateko: elikadura praktikak eta laborantza ekoizpen mota jasangarriak faboratu" LuKAEParen 5. ardatzaren helburuak erdiesteko ezinbesteko baldintza dira.

Ondasun komunak, lur-funtsak eta ura barne, zaintzea helburu duen Euskal Elkargoaren laborantza politikaren ardatz nagusietako batez mintzo gara.

## ZENBAKI BATZUK

EROSTEKO LEHENTASUN SISTEMATIKOKO  
URTEKO

**20** TXOSTEN

SAFERAREN ESKUTIK, ERAIKI GABEKO  
LABORANTZA LURSAILAREN SALMENTA  
TRANSAKZIOAK 50.000 € GAINDITZEN  
DITUELARIK

# “ IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK ”




## 1. PROIEKTUA

### AGRIZARBEL PROIEKTUAREN ABIARAZTEA

Euskal Hirigune Elkargoak laborantzako entsegu guneak biderkatzeko nahikaria du, laborarien instalatzea laguntzeko. Bidarteko herriarekin partaidetzan hautagaitza deialdia hedatu du, Izarbel Teknopoloko 1,65 hektareako lursail batean laborantza inkubagailu bat biologikoan finkatzeko. Hautagaitza deialdi horrek baratzegintza aktibitate bat instalatzea du xede, lurraldean gai horretan egiaztatu den eskasiarekin koherentzian. Anna Stinglhamber da gune horretan entsegua egiten ari den baratzegaina. Euskal Elkargoak negutegiak finkatzeko teknikoki eta diru aldetik lagundu du eta, ureztatze sistema eta tokiko ustiaketa segurtatzeko aterpe baten eraikuntza diruztatuz, kolektibitateak entsegua finitzean alokatuko duen lursailaren antolaketan inbertitu du.



© CAPB



© CAPB

## 2. PROIEKTUA

### HURBIL PROIEKTUAREN PLANTAN EZARTZEA

HURBIL leku bakar batean laborantza produktuen transformatzeko tailerra eta ondoko etxalde ekoizpenen denda plantan ezartzen dituen proiektua da.

Proiektua Hurbil izeneko laborari kolektibo baten eta Hego Lapurdiko eremuaren (Euskal Elkargoa sortu aitzin) arteko elkarlanak abiarazi zuen. Euskal Hirigune Elkargoak segida hartu zuen honen obratze operazionalerako.

Tailerra eta denda Senpereko Lizardia lan eremuan kokatua da. Laborari alokatzaile horiek sorturiko bi sozietateek ustiatzen eta kudeatzen dituzte. Euskal Elkargoak eraikina eraiki du eta, ondotik, laborariek behar zituzten ekipamenduekin antolatu dute.

Gaur egun SASaren baitan partzuer diren 9 laborariei haien etxalde ekoizpenak transformatzeko eta saltzeko parada ematen die. Epe laburrean, salmenta zerbitzuan lurraldeko laborariak hartzen ahalko ditu, haiek ere ekoizpenei balioa eman ahal izateko gisan.



© Mathieu Prat

### 3. PROIEKTUA

## ELIKAGAIGINTZAKO MINTEGI PROIEKTU BATEN ABIARAZTEA AMIKUZEN

Euskal Hirigune Elkargoaren elikagaigintzako mintegi proiektuaren helburua, haien ekoizpenak pikoan ezartzeko laguntza baliabiderik ez duten lurraldeko elikagaigintzako enpresen beharrei erantzun bat ematea da. Amikuzeko bizi eremua bereziki dinamikoa den laborantza eremu baten erdian da, zeinean bai laborariak, bai ofizialeak, bai kooperatibak, bai enpresa ttipi zein ertainak eta baita talde industrial handiak ere atzematen baitira. Lurralde horrek eskainiriko formakuntza eskaintza, elikagaigintzako teknologia plataforma bat, enpresa sortzaileentzako laguntza zentro bat eta aktibitate berriei harrera egin dakieken lur-funtsa erreserba baditu ere.

Mintegi mistoen proiektuak Aiziritzeko Larramendia gunea eta elikagaigintzako mintegi teknopolitano bat elkartzea ahalbidetuko du. Ipar Euskal Herriko Teknopolooaren baitan sartua, lurraldean gaur arte existitzen ez diren bi neurriko transformazio tailerrak hartuko ditu:

- Orotako ohiko mintegi bat, bulego eta tailerrekin,
- Coworkingerako gunea eta baltsako bilkura eta formakuntza gelak

Proiektu hori, "Belaunaldi berriko" elikagaigintzako eraikin bat eskura izateko helburuarekin, plano energetiko eta termikoan Euskal Elkargoaren xedearen baitan osoki sartzen da (baldintzen bilduma "energia eta ingurumen mailako emaitza engaiamendua" irizpidean oinarritzen da).



© XB Architecte

### 4. PROIEKTUA

## HILTEGIEI BURUZKO AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN GAUZATZEA

Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herriko hiltegiei buruzko ikerketa estrategikoa burutu du (egoera, perspektibak, ereduak). Hausnarketa hori lehen aldiko Ipar Euskal Herri osoaren heinekoa izan da, zailtasunetan den Frantzia mailako testuinguruan mota horretako espezie-anitzentzako tresna publikoak atxiki dituen lurralde bakanetakoa izanki. Tokiko laborantza ekoizpenei balioa emateko baitezpadakoak diren tresna horien sustenguz Euskal Elkargoaren teknika eta diru mailako laguntza sendotzea ahalbidetu du. Helburua, balio gehituriko gure tokiko sailen garapenerako beharrezkoa den lehiakortasuna atxikitzea denei ahalbidetuko dien urte anitzeko inbertsio plan baten bidez sustengu hori gauzatzean datza.



## MUGAZ GAINDIKO ETA EUROPAREKIKO LANKIDETZA



### IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

150 km mugarekin eta geografikoki Europa mendebaldeko bidegurutzean kokaturik, gure lurraldeak esperientzia luzea du mugaz gaindiko lankidetzan. Geografia baino historia, identitatea, hizkuntza eta kultura dira Hegoaldearekin partekatzen ditugunak. Euskal Elkargoak mugaz gaindiko lankidetzari gorputz ematea du xede, Europako agertokian dagokion rola berea gain hartuz eta mugaz gaindiko europar kolektibitatea izanez, zeina bizi eremu horrek muga izaera administratibo soilean uzten baitu.

#### 49. engaiamendua

### TRANSMISIOA ETA KOHESIOA GURE LANKIDETZA GUZIEK BAITAN SARTU

Klima, Aire, Energia Planarekin koherentzia ekologika eta ingurumen trantsizioaren alde ekiteko xedearekin eta, mugaz haratago doazen partekatze baloreen bidez, gizarte eta lurralde kohesiora heldu.

#### 50. engaiamendua

### MUGAZ GAINDIKO ETA EUROPAR MAILAN GEHIAGO GOAITATU GABE EKIN

biztanleen eta enpresen bizia errazteko, balore eta ordezkaritza komunak garatu, trantsizio ekologikoaren eta gure baliabide eta eremu partekatuen erronkei buru egin, bikaintasuna eta mugaz gaindiko lurralde ospea sustatu.

#### 51. engaiamendua

### GURE XEDEEN ARRAKASTARAKO BALDINTZAK SORTU

irakurgarriago, herritarrengandik hurbilago, eraginkorrago izanen den mugaz gaindiko gobernanzarako joera ukaitea, maila guzietan partaidetzak indartzea, elkarren ezagutza faboratzeko tresna mutualizatuak sortzea eta proiektuaren zerbitzuko barne eta kanpo baliabideak mobilizatzea helburutzat finkatuz.

#### 52. engaiamendua

### MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA ANBIZIOTSUA SORTU PROIEKTU KOMUNAK GARATZEKO

### JOSEBA ERREMUNDEGUYREN HITZA,

#### Kontseilari ordezkaria, Mugaz gaindiko, Europako eta nazioarteko lankidetzak

2022a, hauteskunde aitizineko urtea Bidasoaz beste aldean, trantsizio urtea eta mugaz gaindikoari dagokionez dentsoa izan zen: 2014-2020 POCTEFA proiektuen bururatzea, Lehen Mugaz Gaindiko Topaketen eta Udako mugaz gaindiko Unibertsitateen abiaraztea Baionan. Hiru urteko agintaldiaren ondotik, mugaz gaindiko lankidetzarako baldintza errazak eraiki ditugu. Gure lurraldeetako biztanleen zerbitzura izanen diren proiektuak gauzatzeko hiru urte gelditzen dira orain.

# euskal HIRIGUNE ELKARGOa aitzina DOa

## 1. EKINTZA

### MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA LURRALDEAN SUSTATU ETA LAGUNDU

2022ko uztailaren 12an bozkatu zen Esku-hartze Araudiaren baitan, Mugaz Gaindiko Ekimenentzako Sustengu Funtsak mugaz gaindiko lankidetzaren indartzean parte hartu nahi zuten eragileen 5 proiektu sustengatu zituen: Bidaia, euskal kulturaren historiaren kontakizuna egiteko soinu eta argi ikusgarria (Hendaia eta Donibane Lohizuneko herriarteko orkestra) – Industriaren eta zerbitzuen sektoreko mugaz gaindiko lankidetzaren (Hazparneko San Josepe lizeoa) – Mugaz Gaindiko Artzaingoaren Diagnostikoa (Urruñako herria) – Tokiko ekoizleen merkaturia Maulen (Mauleko herria) – UNUM mugaz gaindiko udako ikastaroak – Euroeskualdeko unibertsitate eta ikerketa zentro desberdinen artean (Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU-UIK).

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio “Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu” eta zehazkiago “elkargoko eta herrietako mailen arteko lankidetzaren indartu eta partzuer eta auzoekin lankidetzaren garatu” fitxari.

Izan ere, FSITaren plantan ezartzeak auzoen arteko lankidetzaren indartzean du eta, bestalde, LuKAEParen lehentasunei erantzuten dieten proiektuentzako notazio akuilatzailea proposatzen du.

#### ZENBAKI BATZUK

# 60.000 €-KO

DIRU-LAGUNTZA BAINO GEHIAGO  
ESLEITUAK LURRALDEKO MUGAZ  
GAINDIKO EKINTZAK SUSTENGATZEKO

## 2. EKINTZA

### EUSKAL ELKARGOAREN OSPEAN ETA POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN PARTE HARTZEN DUTEN MUGAZ GAINDIKO ETA EUROPAR PARTAIDETZAK ETA SAREAK SORTU

Mugaz gaindiko Udako Unibertsitateen lehen edizioa 2019az geroztik Euroeskualdeko unibertsitate eta ikerketa zentroyen artean antolatzen diren topaketen emaitza izan da: Bordeleko Unibertsitatea (UB), Bordeleko Moutaigne Unibertsitatea (UBM), Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatea (UPPA), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), UPV/EHUren Udako Ikastaroak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Euskampus Fundazioa eta CNRS/IKER, eta lurralde kolektibitateen partaidetzaren emaitza: Gipuzkoako Foru Aldundia, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea eta baita Euskal Hirigune Elkargoa ere. Proiektu esperimentalak, udako ikastaro horiek gehiengoarentzako eskuragarri ezartzen dituzte ezagutza akademikoak eta mugaz gaindikoarekin lotuak diren lurralde politikak. Uztailaren 18tik 22ra, diziplina anitzeko 7 ikastaro eskaini ziren Baionako Arteen Herrixkan.

#### KLIMA, airea, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio “Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu” eta zehazkiago “elkargoko eta herrietako mailen arteko lankidetzaren indartu eta partzuer eta auzoekin lankidetzaren garatu” fitxari.

Mugaz gaindiko partaidetza berrien sortzeak klimaren aldeko sinergia bertutetsu berriak eraikitzeke parada ematen du. Bestalde, udako unibertsitate horiek publikoak Klimaren aldeko borroka ekintzetara sentsibilizatzeko gune pribilegiatua dira.

#### ZENBAKI BATZUK

## 675 PARTE HARTZAILE

## 86 ESKU HARTZAILE

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 3. EKINTZA

### EUSKAL ELKARGOAREN OSPEAN ETA POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN PARTE HARTZEN DUTE PARTAIDETZAK ETA SAREAK SORTU ETA INDARTU

Urriaren 5 eta 6an, “Mugaz gaindiko lankidetzak, Europa berriaren motore” Mugaz Gaindiko Topaketen lehen edizioak Europa osotik jiniako esku-hartzaile eta parte hartzaileak Iñigo Urkullu eta Jean-René Etchegaray Lehendakarien inguruan bildu zituen, europaren eraikuntzak mugaz gaindikoak duen garrantzia oroitazteko. Michel Camdessus (Altxor Publikoaren zuzendari, Frantziako Bankuko gobernadore eta Nazioarteko Diru Funtzako Zuzendari nagusi ohia) sar hitzaren ondotik 4 eztabaida aldik bizi eremu bakar gisa biharko lankidetzak irudikatzeke ekintza publiko berritzailearen laborategiak diren mugako eremuak izan zituzten aipagai.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio “Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu” eta zehazkiago “elkargoko eta herrietako mailen arteko lankidetzak indartu eta partzuer eta auzoekin lankidetzak garatu” fitxari.

Mugaz gaindiko topaketa horiek publikoak Klimaren aldeko ekintzetara sentsibilizatzeko estrategia komunak sortzeko gune pribilegiatuak dira ere

#### ZENBAKI BATZUK

**162 PARTE HARTZAILE**

**HOGETA HAMAR EUROPAR ESKU HARTZAILE BAINO GEHIAGO**

## 1. PROIEKTUA

### MUGAZ GAINDIKO LEHEN OBRATZE HANDIA: HENDAIKO GUNE MULTIMODALA EKAINAREN 27AN ESTREINATU ZEN

Europak (FEDER-POCTEFA) kofinantzuriko 10,7 M€-ko aitzinkontuko Transfermugarrekin proiektuaren bururatzearrekin, lurraldeak mugaz gaindiko geltoki berria du Hendaian: SNCF eta Euskotrenen arteko mugaz gaindiko intermodaltasuna segurtatu eta errazteko berrantolaturiko ataria. Euskal gobernuaren, Euskal Elkargoaren eta Mugikortasunen Sindikatuaren arteko lankidetzak hertsia fruitu, proiektu anbiziotsu horrek biztanleen zerbituko diren partaidetzak harremanak gauzatzen ditu.



© CAPB - Coté Sud Photo

## 2. PROIEKTUA

### IPAR EUSKAL HERRIKO LURRALDE ESTRATEGIAREN ONTZA


Euskal Elkargoa, 2022ko azaroaren 7an Akitania Berriko Hautagaitza deialdiaren baitan hautatua izan zen Ipar Euskal Herriko eragileentzako Lurralde Estrategia Integratuaren eramaile da. 6 hilabetez 132 parte hartzailek eta 56 egiturak hitzarturiko estrategia batera heltzeko 600 ekintzarako pistak formulatu zituzten.

Jagoitik, Ipar Euskal Herriak haren lurraldeari eskainirik europar eta eskualde finantzamenduak lehenesteko koadro estrategikoa du. Gisa horretan, 2027ra arte Euskal Elkargoak europar diru-laguntzako 10,8 M€-ko aurrekontua kudeatuko du, estrategia horri erantzuten dioten proiektuak garatzeko.



© CAPB

### 3. IPAR EUSKAL HERRI ENGAIATU BATEN ALDE: GURE GARAPEN EREDUAK BERRIZ ASMATU



## HONDAKINEN PREBENTZIOA, BILKETA, BALORIZAZIOA ETA TRATAMENDUA

#### IKUSPEGIAREN eta ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

##### IKUSPEGIA

Euskal Elkargoak hondakinen kudeaketa koherentearen eta eraginkorraren aldeko lana egiten du ekonomia zirkularra errealitate bilakatzeko, haren Klima Planarekin eta Garapen ekonomikoko eskemarekin koherentzian izateko. Ipar Euskal Herri osoan hondakinen bilketaren harmonizazioak eraginkortasun handia, zerbitzuen kalitate hobea eta lurralde osoan politika publiko anbiziotsuaren hedatzea ahalbidetzen du. Politika publiko hori Ipar Euskal Herriaren heinera hedatzeko, Euskal Elkargoak buruturiko bilketa ekintzak Bil Ta Garbi Sindikatuaren ekintzen osagarri dira.

##### 53. ENGAIAMENDUA

#### HONDAKINEN POLITIKA TRANTSIZIO ENERGETIKOAN ETA EKONOMIA ZIRKULARREAN SARTU

##### 54. ENGAIAMENDUA

#### BEREIZKETA GARATU ETA HONDAKINEN BALORIZAZIOA FAVORATU

bilketa zerbitzuak optimizatuz eta hondakindegien sarea modernizatuz

#### Jean-Yves BUSSIRONEN HITZA, Lehendakariordea, hondakinen bilketa eta balorizazioa

Gure herritarrek duten haien hondakinen kudeaketari buruzko ikuspegia aldatu behar dugu, jagoitik berrerabilpenaren eta birziklatzearen bidez zaindu beharreko baliabidea baita. Bakoitza, haren eguneroko jokabidearen bidez, baliabide horren zaintzaren eragile izan behar da. Euskal Hirigune Elkargoak denak informatzeko, esplikatzeko, sentsibilizatzeko baina, batez ere, tokian berean berrerabiltzeko eta bereizteko baliabideak emateko ahalegina egiten du, bilketa eta bereizketa molde sinplifikatuei eta etengabe modernizatzen diren hondakindegiei esker ingurumen aztarna ttipitzeko.

# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOa AITZINA DOa

## 1. EKINTZA

### HONDAKINEN EKOIZPENA SAHESTU: DOHAINITZEI ESKAINIRIKO GUNEAK ELKARGO-HONDAKINDEGIETAN

Eman-Hartu sistemaren esperimentazioa egina izan da Atharratzen eta Maulen. Horri eskainiriko trukaketarako eremuetara edonor joan daiteke gehiago erabiltzen ez duen objektu bat uztera eta/edo berrerabiliko duen objektu bat hartzera. Esperimentazio hori 2023an betikotuko da. Beste hondakindegietan berrerabilpenerako beste egitura batzuekin partaidetzak plantan dira eta hauek ere objektuak berreskuratzea ahalbidetzen dute.

Horretarako, 2022 urtean AIMA elkartearekin partaidetza berri bat izenpetu zen Donibane Lohizuneko hondakindegia begira. Autonomia-laguntzarako materialaren eta beste altzari eta objektuen bilketari eremu bat eskainia izan zaio AIMARI esker. Bilketak igurikatze guztiak gainditu ditu, bai bildu diren objektuen kalitateari eta kantitateari dagokionez.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Prebentzio ekintza hori LuKAEParen 53. engaiamenduaren baitan sartzen da (ekonomia zirkularra). 6. ardatzari erantzuten dio: Beste molde batez ekoiztu eta kontsumitu: baliabideak zaindu, hondakinak saihestu eta balorizatu eta berezikiago "berrerabilpenaren eta material birziklatuen sailen garapena lagundu".

#### ZENBAKI BATZUK

2022an MAULEKO HONDAKINDEGITIK

**3,5T** OBJEKTU

BAZTERTU AHAL IZAN ZIREN  
EMAN-HARTU GUNEARI ESKER.

## 2. EKINTZA

### HONDAKINEN EKOIZPENA SAHESTU: AMIANTOAREN KUDEAKETA ONERAKO GIDA

Partikularrei zein profesionali zuzenduriko amianto hondakin kudeaketa onari buruzko gida bat argitaratua eta hedatua izan da. Herriei helarazia izan zaie hondakin-erreferenteen bidez, bai eta Herriko Etxeetako harrerei ere. Gidaliburuxka horrek, hornitzaileen kontaktuak, segurtasun-aholkuak etab. biltzen ditu.

[https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Dechets/guide-amiante-FR-Communauté d'Agglomération Pays Basque-0622.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Dechets/guide-amiante-FR-Communauté d'Agglomération Pays Basque-0622.pdf)

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Amiantoaren kudeaketa onak hondakin ontzietan akatsak saihestea eta gehiago balorizatzea ahalbidetzen du (LuKAEParen 54. engaiamendua). 6. ardatzari erantzuten dio: baliabideak zaindu, hondakinak saihestu eta balorizatu.

#### ZENBAKI BATZUK

HONDAKINEN

**%68**

BALORIZATUAK 2022an  
(%68 2021ean ere)

# IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK

## 1. PROIEKTUA

### BEREIZKETA AGINDUEN HEDATZEA (BAH, FR. ECT)

2023 urtarrilaren 1etik derrigortua den plastikazko estalkien bereizketa aginduen sinplifikatzea, gure lurraldeko hondakinen balorizatze politikan etapa garrantzitsua da. Plastikazko hondakinen bilketa handitzea ahalbidetuko du baita sail berrien garapenaren bidez hauen birziklatzea ere. Erabiltzaileak aldaketa horretara prestatzeko, taldeak 2022 urte osoan edukiontzia egokitzeko, informatzeko, sentsibilizatzeko eta komunikatzeko lanean aritu ziren, bereziki publiko zabalari zuzenduriko kanpaina baten bidez.

Hartara, bereizketa aginduak Ipar Euskal Herri guzira harmonizatu dira: 2023az geroztik estalkiak eta papera elkarrekin botatzen dira.



## 1. PROIEKTUA

### BILKETA ERREFORMEKIN SEGITZEA

2021eko bizileku tipologiaren araberako bilketa eskemaren onarpenaren ondorioz, Euskal Elkargoak progresiboki bilketa moldeari buruzko erreformak egiten ditu lurralde osoan, osasuna segurtasuna desmartzaren baitan sartuz. 2022an, bilketaren erreforma garrantzitsua gauzatu zen Ziburuko herrian: bilketa zakueta egitearen finitzea. Borondatezko ekarpenerako 24 puntu finkatu ziren iraulki-kamioiz iristeko zailak ziren hiri-zentroa eta bizileku kolektiboko eremuak bezalako eremu dentsuetan. Etxe indibidualak edukiontzi indibidualez hornitu ziren etxe hondakinenzako eta etxe estalki-paperezako. Ziburuko bilketa tornada berriak 2022ko maiatzean hasi ziren. Zenbaki itxaropentsuak: 77 kg estalki eta paper bizt/urt Ziburun 2022an eta 50 kg estalki eta paper bizt/urt Hego Lapurdin 2021ean, Ziburuko emaitzek erreformaren ondorio onak eta eraginkortasuna agerian uzten dituzte.



## TURISMO IRAUNKORRA



### IKUSPEGIAREN ETA ENGAIAMENDUEN OROITARAZTEA

#### IKUSPEGIA

Arduratsuagoa izanen den eta lurraldea errespetatuko duen Ipar Euskal Herriko turismoaren aldeko estrategia plantan emanen da 2023an. Gune jendetsuenetik gutiago ezagutzen diren bideetarako birbidaltzea faboratuz, lurralde osoan jarioak hobe partekatzea ukanen du xedetzat, eta baita sasoz kanpo bisitariak hartzea ahalbidetzen duten aktibitateak sustengatuz urte osoan zehar jario turistikoa hobe partekatzea ere. Ezingo zaie erronka horiei buru egin lurraldeko eragileak federatuko dituen gobernantzarik gabe.

#### 55. ENGAIAMENDUA

### IRAUNKORRA DEN ETA BIZTANLEEN BIZI INGURUNEA ERRESPETATZEN DUEN TURISMOA BERMATU

#### DANIEL OLÇOMENDIREN HITZA, Lehendakariordea, Turismo iraunkorra,

Euskal Elkargoaren lurralde proiektuaren zinezko deklinatzea den Ipar Euskal Herriko Turismo estrategiak, lurraldeko biztanleak eramaten diren politiken erdian ezartzen direla zainduko du. Logika horretan, antolaketa, profesionalen sustengu eta bisitarien sentsibilizazio mailako ekintzez haratago, Turismo politika Bizileku politikaren ondoan azkarki engaiatu zen 2022an, Ipar Euskal Herriko tentsio eremuetan bizitegi mublaturak hobe erregulatzeko xedez eta, gisa horretan, aktibitate turistikoa biztanleen bizi kalitatearen kaltean ez dela garatzen zainduz.

# EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA AITZINA DOA

## 1. EKINTZA

### IPAR EUSKAL HERRIARENTZAKO TURISMO ESTRATEGIA BAT ONDU

Lurralde osoan tailer forma pean antolatua zen kontzertazioa 2021ean abiatu zen eta 2022an bukatu. Hartan Ipar Euskal Herriko Turismo estrategiaren ardatz nagusiak finkatu ziren eta partzuerrei aurkeztu. Estrategia 2023an pikoan eman, aurkeztu eta bozkatuko da.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Turismo estrategiak, karbonorik gabeko turismoa lehenestean, bisitarien karbono aztarna ttipitzea du helburu (publikoari eta biziki hurbileko publikoei zuzenduriko lurraldearen balioztatzea, garraio publiko eta molde ezti bidez eskuragarri diren bisiten proposatzea...), osasuneko profesionalak haien eskaintzaren trantsizio ekoarduratsuan lagunduz (eko-baldintzaturiko laguntza baliabideak), lurraldean aktibitate turistikoak duen eragina hobetuz (segimendurako neurgailu berrien inguruko lana) eta bisitariak praktika onetara sentsibilizatuz (bitartekaritza, hondakinen bereiztearen inguruko komunikazioa, mugikortasuna, energia...).

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio: Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu” eta zehazkiago “Turismo jasangarria lagundu” fitxari.

#### ZENBAKI BATZUK

# 200

PARTE

HARTZAILE INGURU ESTRATEGIAREN  
ONTZE DESMARTXAREN 14 TAILERRETAN.

## 2. EKINTZA

### OINEZKO IBILALDIETARAKO IBILBIDE BERRIAK ETA MENDIKO BIZIKLETEN ETA LAGUNTZA ELEKTRIKOKO BIZIKLETEN SAILA ANTOLATU

Euskal Hirigune Elkargoak Tokiko Ibilaldi-Plana (PLR) osatu nahi du, PLR 1aren osagarri liratekeen oinezko ibilaldientzako ibilbide berriak antolatuz eta Frantziako Txirrindularitza Federazioaren (FFC) inguruan mendiko bizikletentzako (MB) eta laguntza elektrikoko bizikletentzako (LEB) ibilaldi eskaintza antolatuz.

2022ko lehen hiruhilekoan lurralde eremu bakoitzaren baitan bilkura teknikoak antolatu ziren herrien proiektuak biltzeko asmoz. Ehun proiektu kualitatibo inguru bildu ziren eta, ikerketa bulego bat kontratatuz asmoz, baldintzen bilduma idazteko oinarri gisa hartu ziren. Eskakizuna lurralde berrorekatzea zaintzea, laborantzako eta artzaintzako aktibitateak eta eremuak zaintzea eta MBen eta LEBen praktiken garapena kontuan hartzea da.

2022ko ekainaz geroztik FFCak labelizaturiko MBen gune baten entsegu proiektu bat abian da Xiberoan. Xiberoko eremuaren proposamenetan oinarrituriko ikerketa batek MBen eta LEBen praktikari eskainiriko hogeitaz ibilbide inguruko aitzin-proiektu bat identifikatzea ahalbidetu du. Baliabide hori Amikuzeko, Bidaxuneko eta Iholdi-Oztibarreko eremuetan labelizaturiko beste MBentzako gune batzuetara hedatzera xedatua da, PLR 2aren baitako etorkizuneko Ipar Euskal Herriko MBentzako eremuan.

#### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio: Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu” eta zehazkiago “Turismo jasangarria lagundu” fitxari.

Konkretuki, oinezko eta bizikleta bidezko aisialdi eskaintza garatzeaz eta antolatzeaz mintzo gara, publikoa eremu natural zaugarrietatik bazter bideratuz: ibilbide anitz, Txik Txak sareak geltokiak dituen herri anitzetan daude.

#### ZENBAKI BATZUK

# 922

KM BIDEXKA

ETA BIDE ANTOLATUAK DIRA IPAR EUSKAL  
HERRI OSOAN, 93 IBILBIDE BALIZATUETAN.



### 3. EKINTZA

## EKO-BALDINTZATASUN IRIZPIDEA INTEGRATU OSTATATZE TURISTIKOAREN LAGUNTZA BALIABIDEAN

Ostatu emaileak haien aktibitatearen trantsizioan laguntzeaz arduraturik, Euskal Elkargoak ostatu emaile profesionalen (kanping eta hotelak) eta laborantza-turismoan eskaintza eskasa duten eremuen aldeko laguntzarako araudi berria plantan ezarri du. Laguntza horiek eraikuntza eta kudeaketa ekologikoaren irizpidearen jarraitzeari baldintzatuak dira.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 6. ardatzaren ekintzari dagokio: Beste molde batez ekoiztu eta kontsumitu: baliabideak zaindu, hondakinak saihestu eta balorizatu.

Baliabideak 11 eko-baldintzatasunen artean 5 puntu eskuratzera behartzen du (kontzepzioa, suntsiketa, obra handia, zureria, aitzinaldea, isolamendura, barneko estaldura, elektrizitatea, ura, berogailua, teilatua) diru-laguntza baterako hautagai izan ahal izateko.

#### ZENBAKI BATZUK

LEHEN HIGIEZINEN LAGUNTZARAKO ARAUDIAREN BAITAN OSTATATZE TURISTIKOKO  
**15 PROIEKTU**

SUSTENGATUAK 2019 ETA 2021 ARTEAN,  
164.950 €-KO ESLEITZEAREKIN

2022AN BOZKATU ZEN BALIABIDE BERRIAREN BIDEZ LAGUNDUAK IZATEKO PROIEKTU BATZUK IDENTIFIKATU DIRA, LAGUNTZA HORI 2023TIK AITZINA GAUZATUKO DA

### 4. EKINTZA

## TURISMORAKO ETXEBIZITZA MUBLATUEN GARAPENA ARAUTU

Turismorako mublaturen alokatzearen garapenaren eta etxebizitzaren inguruko etengabeko tentsio handitzearen aitzinean, Euskal Hirigune Elkargoak "tentsio eremuan" kokatuak diren 24 herrietako turismorako mublaturen erabilerari buruzko araudi aldaketa bozkatu zuen 2022ko martxoan.

Araudi horrek turismorako mublaturak arautzen ditu, etxebizitza eskasiaren aurka borrokatzeko eta denentzako eskuragarri izanen den eskaintzaren mantentzea bermatzeko. Honen indarrean sartzea 2023ko martxoaren 1erako finkatua da. Data horretatik aitzina bizileku egoitza bat turismorako mublatura aldatzeko baimena konpentsazio printzipioaren menpe izanen da.

### KLIMA, AIREA, ENERGIA PLANAREKIN LOTURA

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio: Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu eta zehazkiago "Turismo jasangarria lagundu" fitxari.

Araudi horren xedea bizitegiak alokairuaren merkatuan berriz sartzea da, biztanleek etxebizitza bat alokatzeko parada ukan dezaten. Azken hauek, gaur egun, haien lantokitik gero eta urrunago bizitzera behartuak dira, itsasbaterrean bizitegi eskasia baita. Bizilekua lantokitik hurbiltzean, neurri horrek joan-etorrien denbora eta karbono aztarna ttipitzen ditu.

#### ZENBAKI BATZUK

TURISMORAKO MUBLATUEN ALOKATZEAREN

# %130<sub>eko</sub>

EMENDATZEA 2016 ETA 2020 ARTEAN, 2016AN ZEUDEN 7.150 IRAGARKI AKTIBOETATIK 2020EAN 16.440 IZATERA PASATUZ.

IRAGARKI AKTIBOEN %67A URTEAN 4 HILABETEZ BAINO GEHIAGO LIBRO DIREN BIZITEGIAK ZIREN 2020AN. 2020KO IRAGARKIEN %95 BIZITEGI OSOENTZAT ZIREN.

## 5. EKINTZA

**KARBONO APALEKO BISITA ETA EGONALDIAK PROPOSATU**

Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuarekin, turismo bulegoekin eta partaide turistikoekin elkarlanean, Euskal Hirigune Elkargoak bisitariak autoaren alternatiba den mugikortasun-egonaldiak erabil dezaten bultzatzeko lan bat abiatu du: turismo bulegoetako langileak Txik Txak garraio publikoari sentsibilizatzea, bulego batzuen baitan “mugikortasun kornerren” sortzea, Txik Txaken eta Ipar Euskal Herriko Turismo bulegoko webgunean atzematen den eta garraio publikoari esker eskuragarri den bisita / ibilaldia eskaintzari balioa ematea, “Karbono apaleko Ipar Euskal Herria” esperimentazioaren abiaraztea Turismoaren Eskualde Batzordearekin, Ademekin, Turismoaren Departamenduko Agentziarekin eta turismo bulegoekin (“autorik gabeko” egonaldien merkaturatzea).

**KLIMA, airea, energia PLANAREKIN LOTURA**

Ekintza hori LuKAEParen 8. ardatzari dagokio: Elkarlanean aritu: tokiko partaidetza ekintza gidatu eta animatu eta zehazkiago “Turismo jasangarria lagundu” fitxari.

Neurri horien xedea egonaldien karbono aztarna apaltzea da, bisitariak molde ezteie eta garraio publikoari buruz bideratuz (trena eta autobusa).

**ZENBAKI BATZUK****26 IBILALDI****TXIK TXAK SAREARI ESKER ESKURAGARRI****PARTZUERREK “KARBONO APALEKO IPAR EUSKAL HERRIA” ESPERIMENTAZIOAREN BIDEZ PROPOSATURIKO****18 EGONALDI****“IPAR EUSKAL HERRIA ERALDATZEN DUTEN PROIEKTU HORIEK”**

## 1. PROIEKTUA

**IPAR EUSKAL HERRIKO TOKIKO IBILBIDE-PLANAREN BERRIZ EGITEA ETA 93 IBILBIDEREN BERRANTOLAKETA, HOTS, 922 KILOMETRO BIDEXKA SEINALATUAK LURRALDEAN**

Ipar Euskal Herriko Tokiko Ibilaldi-Planaren berriz egitearen eta ibilbideen antolaketa mailako eskumenaren baitan, Euskal Elkargoa 93 ibilbide berrantolatu ditu, orotara eta lurraldean osoan 922 kilometro bidexka seinatu. Urtero kontrolatuak eta zainduak dira tokiko Chantier Insertion elkarteekin den urte anitzeko partaidetzari esker.

Lau ibilaldirako giden bilduma bat argitaratu da, sareen eta lurraldeen aberastasunak agerian ezartzeko xedez (turismo bulegoetan salgai). Ibilaldien fitxak eta GPX aztarnak ere Euskal Elkargoaren, Ipar Euskal Herriko turismo bulegoaren eta ADT64ren webguneetan telekargaturik eskuragarri dira.

## Operazioaren kostua:

- Antolaketa, seinaletika eta seinalatzea: 193.400 €
- Ibilaldien gidak: 42.260 €
- Zaintza: 80.000 € / urtean



**HIRUGARREN atala:**

**JITEKOAK  
DIREN  
memento  
azKARRAK**

# 2023

## URtARRILA



### ANTOLAKETA

(Baionako) Ipar-Ekialdeko Cadrran eskema nagusiaren onte misioaren abiatzea, diagnostikoaren gauzatzearen bidez. Ondotik agertuko diren gertakizunek lehen lurraldearen analisia hori osatuko dute, eskema nagusira iristeko.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

Estalkien eta paperaren bereizteko agindu berri bateratu eta zabalduaren hedatzea Euskal Elkargoaren lurralde osoan: estalki eta paper guziak bereizten dira.

## OTSAILA



### LABORANTZA

Instalatzeko eta transmisiorako laborantza lur-funtsen zaintza bidezko esperimentazioaren abiatzea Xiberoan.



### JENDE IBILTARIA

Familia lursail baten eskuetaratzea Baionako herrian.



### BIHARKO HIRI TTIPIAK

Donapaleuko herrian garapenaren ahalmenei eta mugei buruzko azterketaren abiaraztea AUDAParekin, egungo eta biharko herrien hirigintza erronkak kontuan hartzeko.

## MARTXOA



### TRANTSIZIO EKOLOGIKOA eta ENERGETIKOA

- Trantsizio Energetikoaren eta Planifikazio Ekologikoaren Idazkaritza Nagusiaren sortzea: 2018az geroztik Trantsizio Ekologikoaren eta Hirigune Herriarraren Zuzendaritzak eta Ondare Eraikien eta Baliabide Orokorren zuzendaritzak buruturiko soiltasunari eta eraginkortasun energetikoari, energia berriztagarrien hedatzeari eta trantsizio energetikoaren planifikazioari dagozkien ekintzak SG TEPEK gidatuko ditu aurrerantzean.

- Martxoaren 8ko emazteen eskubideen eguna kari komunikazio kanpaina "ezin ez ikusiarena egin" lemapean, Ipar Euskal Herriko lau pertsonalitate argitan ezarriz.

- Trama berde eta Urdinei buruzko lan mintegia (bioaniztasun biltegiak eta korridore ekologikoak) Amikuzeko, Xiberoko eta Baxenabarreko hTHPetako hautetsiekin.

- Klima Planaren Partaidetza Batzordea martxoaren 30ean. Klima Planaren aitzinatzeari (barnekoa eta kanpokoak) buruzko puntua egitea. Ekintzen %90a jadanik abiatuak.



## LUR-FUNTSAK/ LABORANTZA

Laborantza eremuetako lur-funtsei dagokien zaintza eta menperatzeari buruzko hitzarmen koadroaren izenpetzea SAFERaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean.



## BIZILEKUA

Turismorako mublaturak arautzen dituen erabilpen aldaketarako araudiaren indarrean sartzea, 2022ko uztailean onartua.



## BIHARKO HIRI TTIPIAK

Hendaiaiko herrian zirkulazio eta aparkatzeko plan baten ontzearen aitzinetikako azterketaren abiaraztea.



## HONDAKINEN KUDEAKETA

Profesionalei zuzenduriko “zerbitzu zerbitzu-zerga berezia” gidaren egitea.

## APIRILA



## HONDAKINEN KUDEAKETA

Baiona hiri barneko borondatezko ekarpen bidezko kontainerizazio obren lehen atal nagusiaren bukatzea.



## TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

- Tokiko faunaren inbentario parte hartzailearen berrabiatzea, hTHPen Trama Berde eta Urdinen obren baitan.

- Lehen “ikuskatze energetiko eta arkitekturen” ikerketa teknikoen abiatzea ELENA programaren baitan.



## BIHARKO HIRI TTIPIAK ETA ANTOLAKETA

Mauleko Agerria eremuaren balioztatzeari dagozkion bokaziozko pisten ontzat ematea, proiektuari loturiko elkargoko politika desberdinak barne hartzen dituen zeharkako desmartzaren baitan.

## maiatza



## MUGIKORTASUNAK

Ibilbidea kalkulatzeko eta denbora errealean ordutegiak jakitea ahalbidetzen duen TXIK TXAK mugikortasun aplikazioaren abiaraztea, 50.000 telekargatze lehen hiru hilabeteetan.



## ELIKADURA

Défi Déclics Alimentation desafioaren abiaraztea.



## HONDAKINEN KUDEAKETA

Bereizturiko hondakinen bilakatzeari buruzko komunikazio kanpaina.



## TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

- Ipar Euskal Herriaren historiak ahantziriko emazteen argitara ekartzeko lanaren eskuetaratzea, Bask'ellosekin lotura eginek lurraldeko kolegioetako eta lizeoetako ikasleek egina.

- Bordelen maiatzaren 23tik 25era antolatutako Trantsizio Energetikoaren Europako Biltzarrean parte hartzea: “eroste arduratsua” misioaren esku hartzea eskaera publikoaren tailerraren baitan; eta ELENA europar programari buruzko tailerraren antolatzea zeinean Euskal Elkargoak baliabideari buruzko esperientzia eta iritzia partekatu ahal izan dituen.

- Elkargoaren eraikinen suntsitzetik heldu materialaren enkantetan saltzea, ekonomia zirkularraren logikaren baitan.

- Ipar Euskal Herriko eguzki kadastroaren eguneraketa, lurraldeko teilatu guzien eguzki energiarako potentziala ezagutzea ahalbidetzen duen sarean den tresna.

- Lurraldean trantsizio ekologiko eta energetikoaren aldeko proiektuak burutzen dituzten elkarte eragileak diru mailan sustengatzea ahalbidetzen duten Trantsizio Ekologiko eta Energetikorako laguntza Funtsaren Elkargoko Kontseiluko maiatzaren 13ko esleitzea.

# 2023

## ekaina



### TRANSIZIO EKOLOGIKOA eta ENERGETIKOA

Herriei zuzenduriko komunikatzeko kit baten eskura uztea, festetan bortizkeria sexualen eta sexisten aurka borrokatzeko.

Lurraldean energia berriztagarri termikoen garapena zalutzea xede duen "Energia berriztagarri (EnB) termikoen garapenerako kontratua" balia bidearen abiaraztea.



### LUR-FUNTSa/ ANTOLAKETA

Ziburuko Encan auzoko hirigintza berregituraketarako eta zaharbertzerako beharrezkoa den lursail eta higiezinaren erostea interes publikoko gisa deklaratzeko.



### GIZARTE KOHESIOA

La Table du Soir eta Point Accueil Jour elkartzeko dituen Baionako Prekaritatea polo baten programaketarako misioaren abiaraztea.

## UZTAILA



### Finantzak

2023ko uztailaren 1a, Energia berriztagarriak aitzinkontu gehigarriaren sortzea.



### URa: IDORTE Planaren HEDATZEA

Pbaliabideen eskuragarritasuna optimizatzeko, soiltasuna antolatzeko, elkartasuna bermatzeko (prezio sozialak, laborarientzako eta anitz kontsumitzen duten enpresentzako laguntzak) eta aterabide alternatiboentzako eta praktiken aldaketarako berrikuntzak sustatzeko.



### HONDAKINEN KUDEAKETA:

- udako kanpaina (uztaila & agorrila), bereizketa agindu berrien orotaraztea (helburua turistak eta bigarren bizitegiak).
- Zerbitzu-zergaren menpe diren profesionalentzako aktibitate sektorearen (7) araberako hondakinen saiheste eta apaltze fitxen sortzea.
- Laneko Osasuna eta Segurtasuna COPIL desmartxa – 3. Fasea planaren eta ekintza fitxen balioztatzea.

## agORRILA



### LABORANTZA eta ELIKAGAIGINTZA

Bidaxunealdeko lurraldean tokiko elikadura ekoizpenen zirkuitu laburreko merkaturatze proiektuaren plantan ezartzea.



### ANTOLAKETA eta GARAPEN ekonomikoa

Irisarriko Jarduera Ekonomikoko Eremuaren antolaketa lanen bururatzea.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

erabiltzaileen identifikatzea duen borondatezko ekarpeneko bilketaren erreformaren plantan ezartzea, Amikuzeko eremuan.

## IRAILA



### LUR-FUNTSa/ ekonomia

lurraldearen garapen ekonomikoarekin loturiko erronkak barne hartzen dituzten “Aktibitate ekonomiko emankorarentzako zein leku?” tailerren abiaraztea.



### LABORANTZA eta ELIKADURA

- PAT1aren (1. Lurralde-Elikadura Proiektua) bilana eta PAT2aren (2. Lurralde-Elikadura Proiektua) moldatze lanen abiaraztea (Elkargo Kontseiluko bozka, 2025 hastapenerako).

- 2025eko zerumugan laborantza eta elikamolde erresilientziarako estrategia zehazteko azterketaren plantan ezartzea



### BIZILEKUA

lurraldearen etxebizitza mailako beharrekin egokitasunean diren operazioak faboratzen dituen alokatzaileen, promotoreen eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko itunaren izenpetzea.



### TRANTSIZIO ENERGETIKOA eta PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

- EnB termikoen garapenerako Kontratuaren izenpetzea ADEMEkin.

- Sozialki eta Ekologikoki Arduratsuak diren Erosketen Promozioko Eskemaren (SPASER) onarpena Elkargoko Kontseiluan.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

5 sektoreri egokituriko hondakindegien gidaren gauzatzea.

## URRIA



### PARTAIDETZA eta FINANTZAMENDUAK

urriaren 6a: “Ipar Euskal Herriarentzako finantzamenduak” baliabidearen abiarazte ofiziala.



### TRANTSIZIO ENERGETIKOA eta PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

Klima 2023 astea urriaren 9tik 15era, “ura klima aldaketaren parean” gaiaren inguruan.



### Garapen ekonomikoa

Turbolaben martxan ezartzea eta Irisarriko AEEaren eskuetartzea.



### KULTURA

Points de Vue, Baionako karrika artearen festibala Burgue-Erreitira, Senperera eta Uhartehirira ere iristen da

## azAROA



### saneamendua

Senpereko ur araztegiaren obren finitzea eta abiarazte epearen (3 hilabete) hastapena.



### HIZKUNTZA POLITIKA

Euskaraldia #7, eremu publikoan eta zerbitzu publikoetan euskararen erabilera garatzeko mugaz gaindiko erronka.

## abENDUA



### saneamendua

Errobi Helbarrun interkonexioaren abian ezartzea eta Donibane Lohizuneko araztegia eraikitzeko eraikuntza baimenaren pausatzea.



### TRANTSIZIO ENERGETIKOA eta PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren berritzea.

# 2023KO azken HIRUHILEKOA



## PLANIFIKAZIOA

Lapurdi Ekialdeko eta Mendebaldeko bi hTHPen preskripzioa, jadanik preskriptuak diren Amikuzeko, Xiberoko eta Hego Baxenabarreko hTHPei gehitzen zaiena.



## Jende IBILTARIA

Pasaia eremuaren zaharberritzea Senpereko herrian.



## BIZILEKUA

- Herriarteko esleitze hitzarmenaren izenpetzea, alokatzaileen etxebizitza ibilbidea errazteko helburuz etxebizitza sozialen promozioa, alokatzaileen jarraitutasuna lortzea edota alokatze eskaintzaren bilakaera bezalako helburu operazionalen plantan ezartzea ahalbidetzen duena.

- Gune anitzeko Bizilekuaren Operazio Programatuaren azterketa aitzin-operazionalaren abiaraztea lurraldeko 11 herritan: Ahetze, Bokale, Kanbo, Itsasu, Bastida, Baigorri, Atharratze-Sorholüze, Uharte Garazi, Urruña, Ahurti eta Uztaritze.



## ONDAREAREN eta Paisaiaren BABESA

Ondare-atlasaren itzultzea, herriarteko Tokiko Hirigintza Plan desberdinen ontzean integraturiko 108 herriren partaidetza desmartzaren baitan inbentarioa egin ondoren.



## LABORANTZA

- Open DATA ZABAL. 2020ko Laborantza Errolda Orokorren datuen inguruko behatokiaren sortzea.

- Hiltegien sustengatzeko planaren plantan ezartzearen abiatzea (modernizazioa, zaharberritzea, urte anitzeko inbertsioa) (urte zonbait).



## GIZARTE KOHESIOA / ONDARE ERAIKIA - ERAIKIN BERRIEN ERAIKITZEA

Ezpeletako Marrumak haurtzaindegi berriaren eta, Aiziritzen, Amikuzeko diziplina anitzeko osagarri-etxearen irekitzea. Euskal Hirigune Elkargoak nahi izan duen bezala, eraikinak ingurumen eta energia eredugarritasunari dagokionez aitzindariak dira.



## KIROL EKIPAMENDUAK

Baigorriko etorkizuneko kirol gelaren arkitektura proiektuaren hautaketa. Hiriburuko etorkizuneko elkargoko ekipamendu akuatikoaren programatze azterketaren abiatzea.



## ANTOLAKETA

- Biarritzeko Irati sektorean gida-plan baten ontzearen abiaraztea, eremu estrategiko horren hirigintza zaharberritze proiektuaren baitan, bai herri mailan eta baita elkargo mailan ere.

- Ziburuko Zokoako Gotorlekuaren zaharberritzeko xedez eta 2022an abiatutako aitzin-programaketaren jarraitutasunean, egingarritasun azterketaren abiaraztea.



## KULTURA

Hendaian eta Donibane Garazin Maurice Ravel kontserbatorioaren adarren programaketa azterketaren abiatzea.



## LURRALDE INFORMAZIOA

Lurraldeko 158 herrien helbideratzeen lehen bertsioaren hedatzea Frantziako Helbideen Datu-basean (BAN).




# URTE OSOAN ZEHAR



## BALIABIDE OROKORRAK

Ibilgailu parkearen elektrifikatzearekin segitzea, ibilgailu elektriko arinen %20a erdiesteko helburuz.



## MUGIKORTASUNAK ETA AZPIEGITURAK

- Euskal Elkargoak arauzko azterketa egiten du, mugikortasunen Isurtze Apaleko Eremua (IAE, fr. ZFE) plantan ezartzeko.
- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, aldiriko aparkalekuen antolaketarekin segitzen du.
- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, San Leon eta Teknohiriaren arteko Tram'busaren lanekin segitzen du.
- Euskal Elkargoak Maignoneko PEMaren azterketa egiten du (autobus geltokiak, 440 lekuko aldiriko aparkalekua eta etorkizuneko Mugikortasunen Sindikatuaren egoitza barne hartzen dituena).
- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, Baiona-Hendaia itsasbazterreko 3 linea zaluaren azterketa abiatzen du.



## ONDAREA

Ondarearen inbentarioarekin segitzea Euskal Hirigune Elkargoaren perimetroan.



## GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA

- Ipar Euskal Herriko Kirolen Campusa sortzeko egokitasun ikerketaren itzultzea.
- Agora plazaren landareztatzearen aldeko desmartxa parte hartzailea (Angeluko Montaury campusa)
- Creathon Pays Basquen 2. Edizioa: ikasleei zuzenduriko inspirazio eta adimenerako aldi kolektiboa.
- Etorkizuneko numerikoaren ingeniartzako eskola formakuntza hartuko duen ISANUM (Angeluko Montaury campusa) eraikinaren eraikuntzarako obragintza lehiaketaren abiaraztea.
- Goi-mailako irakaskuntzako eta ikerkuntzako eragile guziak biltzen dituen Ipar Euskal Herriko Konferentzia Unibertsitarioaren 4. edizioa.



## LUR-FUNTSA, ANTOLAKETA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

Euskal Elkargoaren bokazio ekonomikoko sektoreetako egingarritasun azterketarekin segitzea 20 gunetan (Arbona, Beskoitze, Kanbo, Ezpeize-Ündüreine, Gixune, Liginaga-Astüe, Larresoro, Baigorri, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Eiheralarre, Samatze, Sara, Zuraide, Urepele, Urruña eta Uztaritze).



## ANTOLAKETA

Aturri Eskuinaldea proiektuaren baitan biztanleriarekin elkar aditzea, 2022ko irailean abiatutako hirigintza programaketaren azterketarekin batera.



## BIHARKO HIRI TTIPIAK

Donibane Garaziko biztanleekin hitzarturik hiriaren zeharkatzearen segurtatzeari eta lasaitzeari buruzko ikerketa baten egitea, hiri eremuko osasunaren inguruan kokaturiko desmartxaren baitan.



## HONDAKINEN KUDEAKETA

- Prebentzio laguntzaileen sarearen animatzea, lantaldeekin eta dokumentu bakarraren ontzearekin segitzea, ekintza planaren eta laneko istripuen analisisen planifikazioaren plantan ezartzea.
- Etxe hondakinak ez diren hondakin ekoizle handientzako zerbitzu-zerga bereziaren hedatze progresiboa.
- Bio-hondakinak jatorrian bereizteko xedearen areagotzea, auzoetako eta eraikin azpiko konpostatze operazioen biderkatzearekin.

# 2024

## URTARRILA



### EKIPAMENDUAK

Zaharberituriko esnetegi zaharrean Garaziko zerbitzu poloaren eskuetaratztea. Atharratzeko kirol gelaren zaharberritu ondoko eskuetaratztea eta hedapen ikerketaren abiaraztea.

## MARTXOA



### LABORANTZA

AGRIZARBEL baratzezaintzarako aterpearen eskuetaratztea.



### ELIKAGAIGINTZA

Aiziritzeko Larramendia eremuko elikagaigintzako mintegiaren eskuetaratztea.



### HIZKUNTZA POLITIKA

Korrika, helduek euskara ikastearen aldeko ekimen erraldoia.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

Erabiltzaileen identifikatzea duen borondatezko ekarpeneko bilketaren erreformaren bururatztea Xiberoko eta Garazi-Baigorriko eremuetan.

## URTARRILETIK APIRILERA



### HONDAKINEN KUDEAKETA

Borondatezko ekarpen bidezko kontainerizazio programaren hedatzea Biarritzeko hiri barnean.

## MARTXOTIK EKAINERA



### HONDAKINEN KUDEAKETA

Borondatezko ekarpen bidezko kontainerizazio programaren hedatzea Hazparnen

## URRIA



### TRANTSIZIO EKOLOGIKOA ETA ENERGETIKOA

Klimaren Astearen 4. edizioa

## URTEAN ZEHAR



### MUGIKORTASUNAK ETA AZPIEGITURAK

- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, hurbileko guneen azterketa eta antolaketarekin segitzen du (Milafranga, Itsasu, Ahurti).

- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, Maignon – Sutar sektorea eta Basusarriko Makilako aldiriko aparkalekua antolatzen ditu, T2 tram'busaren hegoalderako luzatzearen menturan.

- Euskal Elkargoak Maignoneko PEMaren gauzatzeko ardura duen enpresa izendatzen du.

- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, garraio kolektiboen zerbitzu ustiatze kontratuak berritzen ditu. Horren kariatara, eskaintza lurralde eremuen eskaerak kontuan hartuz lurralde osoaren arabera egokitua da, Mugikortasunen Sindikatuaren diru ahalen muga. Eskaintza partikularki Ipar Euskal Herriko barnealdean eta kostalde ondoan %75ez emendatua da. Eskaera bidezko garraio zerbitzua lurralde osora hedatua da, ohiko lineen osagarri gisa.



### PARTAIDETZAK ETA FINANTZAMENDUAK

Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturala Aitzin-Itzuratzeko Sindikatu Mistoaren sortzea.



## LUR-FUNTSAK

Lur-funtsen eta higiezin merkatuen analisia eta lurraldeko lur-funtsen eskuragarritasuna integratzen dituen bizilekuaren eta lur-funtsen behatokiaren plantan ezartzea.



## LABORANTZA

Ipar Euskal Herriko landare ekoizpen biologikoen Zentro batentzako azterketaren abiaraztea.



## GARAPEN EKONOMIKOA

- MedTech mintegiaren abian ezartzea
- Xibetek plataformaren 1. Fasearen abian ezartzea
- Larramendia Ofiziale herrixkaren eskuataraztea



## saneamendua

Bildoze kovaraztegiaren obren, Donibane Lohizuneko Artxiloa araztegiaren baimen emate txostenaren eta Hendaia araztegiarako itsasoko mandatariaren lanen abiatzea.



## BIHARKO HIRI TTIPIAK

Bizilekuaren hobetzeko operazio programatuaren abiaraztea, 2022ko irailean abiatutako azterketa aitzin-operazionalaren ondorioen arabera.



## HIRI-POLITIKA

2024 – 2027 epealdirako den hiri-kontratu berriaren plantan ezartzea.



## BIZILEKUA

Bizilekuarekin eta etxebizitzarekin loturiko galdera ororentzako publikoari zuzenduriko harrera eta informazio gunea osatzen duen Bizilekuaren eta Energiaren Etxearen sortzea Baionako eta Donapaleuko herrietan.



## ONDAREA

- Paisaia planaren onartzea Euskal Elkargoko 158 herrien heinean.
- Artzaingoaren inguruko gaikako inbentarioaren gauzatea, lurraldeko 10 herritan.



## GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA eta IKERKETA

- Adierazpen Plastikoko Goi-mailako Diploma Nazionalaren irekitzea (Master maila) Euskal Elkargoko Goi-mailako Arte-eskolan.
- ISANUM numerikoaren ingeniartza formakuntzaren irekitzea (Angeluko Montaury campusa).
- Landareztaturiko Agora plazaren eskuataraztea (Angeluko Montaury campusa).
- Aquitaine Multilingual Experimental Lab-en eskuataraztea (Baionako Errobiko campusa) IKER ikerketa laborategiarentzako.

- CROUS jatetxearen 2. egoitzaren irekitzea Ikasleen Etxean (Angeluko Montaury campusa).



## TRANSIZIO ENERGETIKOA eta PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

Klima Planaren bide erdiko ebaluaketa (2024 bukaera / 2025 hastapena)



## LURRALDE INFORMAZIOA

Aireko argazki hartzeen eskuraztearen eta Karrika Atalen Plano Sinplifikatua (KAPS, fr. PCRS) ortoargazki-planoen ekoizpenaren bururaztea.



## HONDAKINEN KUDEAKETA

- Prebentzio laguntzaileen sarearen animazioa, dokumentu bakarraren ontzearekin segitzea, laneko istripuen analisisien ekintza eta planifikazio planaren plantan ezartzea.
- Milafrangako eta Donapaleuko araztegiaren handitze eta modernizatzea.
- Bio-hondakinak jatorrian bereiztearen orokortzea, auzoetako eta eraikin azpiko konpostaztearen areagotzearekin; konpostatze indibidualerako kanpainak.
- Etxe hondakinak ez diren hondakin ekoizle handientzako zerbitzu-zerga bereziaren hedatze progresiboa.

# 2025

## 2025 HaSTapena



### BIZILEKua

Gune anitzeko Bizilekuaren Operazio Programatuaren azterketa aitzin-operazionalaren abiatze operazionala lurraldeko 11 herritan: Ahetze, Bokale, Kanbo, Itsasu, Bastida, Baigorri, Atharratze-Sorholüze, Uharte Garazi, Urruña, Ahurti eta Uztaritze.

## maRTXoa



### TRANTSIZIO enerGETIKoa eta PLANIFIKAZIO EKOLOGIKoa

ELENA programaren bururatzea.

## IRaila



### KOHESIO SOZIALa

Xitoak hartzaindegiaren hedatzearen eskuetatratzea.

## URRIA



### TRANTSIZIO enerGETIKoa eta PLANIFIKAZIO EKOLOGIKoa

Klimaren Astearen 5. edizioa.

## URTEAN ZEHAR



### MUGIKORTASUNAK ETA AZPIEGITURAK

- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, Tram'bus 2 linearen Basusarri-Makila arterako luzatzea bukatzen du (CD64rekin elkarlanean D932 ondoko gunerako).
- Euskal Elkargoak Maignoneko PEMaren lanak abiarazten ditu, 2 urteko iraupenerako.
- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, Baiona-Hendaia itsasbaterreko linea zaluaren azterketa bururatzeko du, ondoko agintaldian obrak egiteko helburuz.



### GARAPEN EKONOMIKOA

Olha Heren-lekuaren zerbitzuan ematea.



### ELIKADURA

Lurraldeko Elikadura Proiektua 2ren bozka eta ekintza programaren plantan ezartzea.



### saneamendua

Hendaiaiko araztegiko lanen abiatzea



### GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA

Curie Institutuaren adarra den Iker Herria ikerketa laborategiaren irekitzea (Bidarteko Izarbel gunea)



### KOHESIO SOZIALA - PETITE ENFANCE

Bankako Baleako Haziak haurtzaindegitoaren hedatzearen eskuataratzea.



### KULTURA - EUSKAL ERAKUSTOKIA

Dagorette Etxearen hedatze obren abiatzea Baionan eta adarra baten sortzea Maulen.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

- Prebentzio laguntzaileen sarearen animazioa, dokumentu bakarraren ontzearekin segitzea, laneko istripuen analisien ekintza eta planifikazio planaren plantan ezartzea.
- Mauleko hondakindegia handitze eta modernizatzea.
- Hendaiaiko hondakindegia berreraikitzea
- Bio-hondakinak jatorrian bereiztearen orokortzea, auzoetako eta eraikin azpiko konpostatzearen areagotzearekin; konpostatze indibidualerako kanpainak. Bio-hondakinaren bilketa entseguaren egitea.
- Etxe-hondakinak ez diren hondakin ekoizle handientzako zerbituzerga bereziaren hedatze progresiboa.



### LURRALDE INFORMAZIOA

- Aireko argazki hartzeen Karrika Atalen Plano Sinplifikatuaren baitako eguneraketa, balizko bideetako aldaketak kontuan hartzeko gisan.
- Géobasque datu geografikoen azpiegituraren lanbide aplikazio guzien hedatzea eta Euskal Elkargoko partaide desberdinei datuaren eta tresnaren irekitzea

# 2026

## URTARRILA



### KULTURA

Biarritzeko Atabal gaur egungo musiken eszenatokiaren handitze eta modernizatzeko obren bururatzeko. Hendaia eta Donibane Garaziko CRRaren adarren arkitektura proiektuen hautaketa.

## URRIA



### TRANSIZIO ENERGETIKOA ETA PLANIFIKAZIO EKOLOGIKOA

Klimaren Astearen 6. Edizioa.

## URTEAN ZEHAR



### MUGIKORTASUNAK ETA AZPIEGITURAK

- Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuaren bidez, Biarritzeko gune multimodalaren lehen atala eskuetaratzen du.

- Euskal Elkargoak Maignoneko PEMaren obrekin segitzen du.



### PLANIFIKAZIOA

Amikuzeko, Xiberoko eta Hego Baxenabarreko hTHPen aurreikusiriko onartze data



### GARAPEN EKONOMIKOA

- Xibetek 2. Fasea plataformaren abian ezartzea.

- Eco Circulaire mintegiaren abian ezartzea.



### SANEAMENDUA

Bildoze eta Hendaia araztegi berrien abian ezartzea.



### GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA

- Numerikoko ingeniarien formakuntza eta learning center bat hartzen dituen ISANUM eraikinaren eskuetaratzea (Angeluko Montaury campusa).

- Baionako Aprendizien Formakuntzarako Zentroaren lekualdatzea, indarrean diren arauak betetzen dituen eraikin batean (Qualiopi).

- Kudeaketa Eskola Unibertsitario bat 5 urtetan Baionan eraikitzeko Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateak eginiko azterketaren itzultzea.

- Ikerlariak, ikasleak eta enpresak biltzen dituen ID Ocean eraikinaren eskuetaratzea (itsaso teknologien eta itsas bio-mimetismoaren zerbitzura den berrikuntza poloa).

- Ipar Euskal Herriko Kirolen Campusaren irekitzea (kokapena zehazte bidean).



### KIROL EKIPAMENDUAK

Hiriburuko eta Hazparneko ekipamendu akuatikoen, Baigorriko kirol gelaren eta Atharratzeko kirol gelaren hedatzearen eskuetaratzea.



### HONDAKINEN KUDEAKETA

- Prebentzio laguntzaileen sarearen animazioa, dokumentu bakarraren ontzearekin segitzea, laneko istripuen analisisien ekintza eta planifikazio planaren plantan ezartzea.

- Urruñako hondakindegia lekualdatze eta eraikitzea.

- Etxe-hondakinak ez diren hondakin ekoizle handientzako zerbitzuzerga bereziaren hedatze progresiboa.

# **eLKARGOKO adminISTRAzioa 2022an**

## GURE ANTOLAKETA: POLITIKA PUBLIKOEN ETA ELKARGOKO POLITIKEN GARAPENA LAGUNDU

### GIZA BALIABIDEAK

2022an Euskal Hirigune Elkargoak politika anbiziotsua eraman zuen giza baliabideei dagokionez, besteak beste elkarrizketa sozialaren baitan 2021ean eztabaidaturiko eta onarturiko proiektuen plantan ezartzearekin: ordainsarien araubidea (esperientzia profesionalaren eta urteroko ordainsari osagarriaren -CIA- baliabideekin), telelanaren araudia edo laneko bizi kalitatea. Bestalde, Euskal Hirigune Elkargoak 2021ean sortu zen eta kolektibitatearen giza baliabideen politikako atal guztiak berriz hartzen dituzten Kudeaketarako Gidalerroak (LDG) deklinatu ditu.


Euskal Hirigune Elkargoak hein bateko soldata masaren (eta 2022an aitzinkontuan eragina izan zuten kanpoko arauz haratago) bilakaera ere beregain hartu behar izan du, politika publiko eta elkargoko proiektuen garapen mailan eginiko hautuekin bat eginez.

### LANGILEEN EGITURAKETA 2022KO ABENDUAREN 31N

ESTATUTUAREN ARABERAKO BANAKETA




KATEGORIAREN ARABERAKO ENPLEGU IRAUNKORREN BANAKETA






enPLEGU KATEGORIAREN ARABERAKO BANAKETA




SEXUAREN ARABERAKO enPLEGU IRAUNKORREN BANAKETA



FORMAKUNTZAK 2022an

FORMATURIKO agente KOPURUA	<b>1248</b>	FORMAKUNTZA egun KOPURUA	<b>2512,5</b>
----------------------------	-------------	--------------------------	---------------

BEDEREN FORMAKUNTZA EGUN BAT SEGITU DUTEN agenteen BANAKETA



## KARREREN KUDEAKETA

Euskal Elkargoaren baitan xedaturiko Kudeaketa Gidalerroek ibilbide profesionalen promozio eta balioztatzeen printzipioak finkatzen dituzte.

2022an giza baliabideen zuzendaritzak 478 maila igotze egikaritu zituen (bereziki B eta C kategoriako agenteei aplika dakieken karreretan eta taula indiziaroetan eragitera jiniko arauzko neurriekin), 87 gradu aitzinatze eta 9 izendatze barne promozioaren bidetik.

Gainera, 23 agente goragoko enplegu gradu edo koadro batean izendatuak izan dira, lurraldeko funtzio publikoko konkurtso baten ondotik.

## KONTRATATZEAK

2022 urtean zehar, 177 kontratatze prozedura formalizatuaren pean izan ziren (116 enplegu iraunkorrean eta 61 enplegu ez iraunkorrean 3 hilabeteko iraupenerako) eta 11 sasoiari kontratatze kanpaina eraman ziren lanbide desberdinentzat (igerizaintza, harrera-agente, agente tekniko, animatzaile etab.).

5 boluntarioen harrera Herritar Zerbitzuan, animazioaren, ingurumenaren eta euskal mendiaren sailetan, eta baita Frantziako Zerbitzu Unibertsalaren baitako beste boluntario bat ere.

9 aprendiz kontratatuak ziren 2022ko abenduaren 31n, partikularki lehen haurtzaroaren eremuan.

16 emazte eta 8 gizon barne mugikortasunaz baliatu dira.

## EKINTZA SOZIALA

Euskal Hirigune Elkargoaren ekintza sozialerako politikaren oinarriak dira:

- Kolektibitatearen osasun arriskurako eta behar-orduetarako parte hartzea, labelizaturiko kontratu indibiduala duen agente ororentzat;
- 6 €-ko balio nominaleko apairu tiketaren esleitzea (%50 kolektibitatearen gain eta %50 agentearen gain);
- Obra sozialetarako diru dohaintza, Ipar Euskal Herriko GOBarentzako urteroko diru-laguntza dena.

Ekintza Soziala	Urteroko Zenbatekoak 2022
OSASUNA	248 567€
BEHAR-ORDUAK	207 967€
APAIRU TIKETAK	645 174€
GIZARTE-OBRAK	265 820€
<b>OROTARA</b>	<b>1 367 528€</b>

2022an, Euskal Hirigune Elkargoak Ipar Euskal Herriko GOBa lagundu zuen 3 urteko koadro hitzarmenaren baitan oinarrituriko diru-laguntza eta urteroko gehigarria esleituz, 265.820 €-ko zenbatekoarentzako.

## Laneko BIZI-KALITATEA

2022an, Euskal Hirigune Elkargoak apirilaren 1ean indarrean sartu zen telelanaren araudia plantan ezarri zuen.

2022ko abenduaren 31n, 365 agentek telelanaren hitzarmena izenpetu zuten:

- %64 urteko forfaitan oinarrituriko antolaketarekin

-%36 telelan egun erregularretan finkaturiko asteroko antolaketarekin; antolaketa hau hautatu zuten langileen erdiak baino gehiagok asteko 2 eguneko telelana hautatu zuten.

	BANAKETA OSOA							
	Telelan erregularra		Urteko forfaita		Agente kopurutan		%tan	
	Emazteak	Gizonak	Emazteak	Gizonak	Emazteak	Gizonak	Emazteak	Gizonak
<b>HITZARMEN BAT IZENPETU DUEN AGENTE KOPURUA</b>	102	31	150	82	252	113	69%	31%
<b>TELELAN EGUN KOPURUA</b>	4 375	1 451	1 364	655	5 739	2 106	73%	27%

## Laneko Lan-KALITATEA

2020ko konfinamendu garaian agenteen esperientziaren inguruko lehen galdeketa batekin eta laneko bizi kalitatearen dimentsio ororen inguruko inkesta zabalago batekin hasi zen “Laneko bizi kalitatea” desmartxa, 2022an 4 ardatz nagusiren inguruan artikulaturiko diagnostiko baten eta ekintza plan baten ontzearekin bururatu zen:

- Kultura komunaren eta kidetasun-sentimenduaren indartzea
- Barne antolaketaren argitzea eta arintzea
- Agenteen segipen indibidualaren indartzea
- Lan ingurumenaren hobetzea

# eskaera PUBLIKOA

Eskaera publikoaren zerbitzuak haren egituratzearekin segitu zuen 2022an, Euskal Elkargoaren lanbide zuzendaritzaren igurikatzeei ahal bezain ongi erantzuteko gisan.

443 merkatu publiko ordezkatzan zituzten 190 enpresa kontsulta argitaratu ziren urtean zehar (zergarik gabeko 40.000 € baino gehiagoko kontsultak), zergarik gabeko 185.000.000 €-tan estimaturiko kopuru finantzierorako.

Kontsulta horiek ondoko moldean banatuak dira:

- 49 prozedura formalizatuak edo konplexuak

- 141 prozedura egokituriko forman

190 kontsulta horietatik 18 hornikuntza merkatuak dira, 97 zerbitzu emaileak eta 75 obra programak.

Eskaera publiko arduratsuaren ekintzaren baitan, Euskal Elkargoak integrazio profesionalerako klausulak merkatu publikoetan sartzen ditu, enplegutik urrundua den jendeen integrazioa faboratzeko.

Ipar Euskal Herria Baiona GIP DSUak Euskal Elkargoa, enpresak eta enplegu galdegileak desmarta horren plantan ezartzean laguntzen ditu.

2022an integrazte oren kopuruaren handitze argia izan zen Euskal Elkargoarentzako (%68), 23 operaziotan 15.480 oren eginik, nagusiki eraikinen eraikitzearekin eta zaharberritzearekin lotuak, baita ur eta saneamendu sareen operazioekin ere.

# 71

2022an, integrazioarekin loturiko 71 lan kontratu balioztatu ahal izan ziren.

# ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA

## GARAPEN IRAUNKORRA

2023ko otsailaren 4an bildu zen Elkargoko Kontseiluan aitzinkontu norabideen eztabaida aitzin aurkezturiko Garapen Iraunkorraren Txostenak, elkargo eredugarria izateko joeraren engaiamenduaren baitan Euskal Elkargoak 2022an eramaniko ekintzak agertzen ditu.

Euskal Hirigune Elkargoaren webgunean eskuragarri da.

## EMAZTE ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Tokiko bizian emazte eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko europar itunaren izenpetzaile, 2019ko ekainaren 21eko Elkargoko kontseiluak aho batez onartu zuen Ipar Euskal Herrian emazte eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Euskal Elkargoaren ekintza plana.

Urtero, Elkargoko Kontseiluko aitzinkontu norabideen eztabaida aitzin emazte eta gizonen arteko berdintasunaren egoerari buruzko urteko txostena aurkezten da. Txosten hori bi partetan zatitzen da, lehenak Euskal Elkargoaren zerbitzuetako egoera aipatzen du eta bigarrenak berdintasunaren alde plantan ezarri diren politikak.

2022an, Euskal Elkargoak Emazteen Eskubideei Buruzko Informaziorako Zentroak antolaturiko manifestaldiak (2.000€) eta Atherbea elkarteak (1.000 €) diruz lagundu zituen.

2022ko martxoaren 8ko egunaren kariatara, Euskal Elkargoak “Errespetua” izeneko komunikazio kanpaina burutu zuen.



## PARTE HARTZE HERRITARRA

Gobernantza itunak sei erronka nagusi identifikatzen ditu, hauen artean “hautetsien leku zentrala bermatzea eta elkargo herritarra biziartztea” Garapen kontseiluarekin partaidetza pribilegiatuaren baitan eta, haratago, politika publikoen koeraikuntza metodo berriak esperimentatuz.

2018an, Elkargoko kontseiluak Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua elkartean bermatzea erabaki zuen, Euskal Elkargoko garapen kontseiluaren animazioa segurtatzeko gisan. 2020-2023 hiru urteko hitzarmenaren baitan, Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua elkarteari funtzionamendurako

250.000€-ko diru-laguntza esleitu zion, zeinari alokairuentzako 10.000 €-ko laguntza gehitzen baitzitzaion.

2023ko uztaileko Elkargoko kontseiluan aurkezturiko Garapen kontseiluaren 2022rako jarduera bilanak agerrarazten du:

- Borondatezko kideen 2.474 parte hartze oren
- 15 gai garrantzitsu aipatuak (turismoa, gazteen etxebizitza, trantsizioaren ekonomia, hirigune proiektua, estrategia integratua eta kontratuzko politikak, mendia, paisaiak, balioztatzea, LuKE, hTHP, mugaz gaindikoa, gazteen norabidea, emazte/gizon berdintasuna, goi-mailako irakaskuntza...).

- 7 ekarpen lurralde estrategiei ekarpena.

Euskal Elkargoak hitzartzerako tresnak ere hedatu ditu, biztanleei eremu anitzetan politika publikoen koeraikuntzan parte hartzeko parada emateko gisan, arauzko hitzartzearen koadroa gaituz. Azkenik, lurraldeko herritarren ekimenak laguntzen ditu, bereziki diru-laguntzen esleitze edo proiektu deialdi bidez.

## ONDARE ERAIKIA ETA BALIABIDE OROKORRAK

Ondare eraikiaren Zuzendaritzaren misioak eta baliabide orokorrak 2022an:

- Elkargoko eraikinak egoera onean atxiki: 272 elkargoko eraikin erreferentzian ezarriak 150.000 m<sup>2</sup>-ko hedadurarentzako; erdia Mugikortasunen Sindikatuak entretenitua.

- Zaharberritu eta eraikin berriak eraiki: berrogei proiektu inguru aztertze edo gauzatze bidean dira

(haurtzaindegia, enpresa egoitzak, osasun-etxeak, etab.);

- Funtzionatzea ahalbidetzen duten baliabideak kudeatu: energiak (argindarra, gasa, berotze sareak), erregaiak, ibilgailuak (erosketa, alokatzea, salmenta – 265 ibilgailu arin), garbiketa zerbitzuak, bulego eta papertegi hornidurak, babes indibidualerako (eta osasun) ekipamenduak.

2022an, Damaas eraikinen kudeaketa teknikorako programaren garapen handiak tokiko taldeen eskarien intentsitatea argitan ezarri zuen, 800 esku hartze baino gehiagorekin.

# INFORMAZIO SISTEMAK

Erabiltzaile numerikoen bide orriak lehen hiru xede ditu: eskuragarritasun eta inklusio numerikoa, numeriko arduratsua eta sistemen interoperabilitatea, eta hiru ardatzetan artikulatzen da: zerbitzu numerikoak, datua, gobernantza numeriko eta informazio sistemen segurtasuna.

2022an:

- Azpiegituren eta sarearen segurtasuna (babeskopiarako tresna berriak, ekipamendu zaharkituen berritzea, bizi bukaeran diren zerbitzarien aldaketa).
- Bideokonferentzia sistemen bilakaera enpresa mintegietan eta ekipamenduen aldaketa Elkargoko etxeetan. Bideokonferentziako 12 gelen kudeaketa DSIn eskutik.
- Euskal Hirigune Elkargoko agenteentzako Ordenagailu informatikoen, telefonoen eta ekipamendu ttipien erosteko eta berritzeko politikarekin segitzea, ordenagailuen kasuan 4 urteko bizi zikloan oinarritua. Hots, 750 ordenagailu zeinetarik %80 eramangarriak diren COVID krisiaren ondorioz.

- Arlo programa paketeen modernizatzea eta tresna eta prozesuen desmaterializatzea: datu geografikoen azpiegitura, bilketarako tresnen harmonizatzea, arlo aterabideen bilakaera lur-zolaren eskubideari eta eraikuntzarako diru-laguntzei dagokionez, kutxa-gotorren aterabide numerikoak eta dokumentuen kudeaketa elektronikoen proiektuaren berrabiaraztea.

- SAS moldeko programen harpidetza mailan errepikatzen den beharra (IDGaren mantenu eta ostatatzea).
- Gure interkonexioen sarean gune berrien konektatzea (Bardozeke MSAP adibidez), 50 eraikin baino gehiagoren kudeaketa gure guneen interkonexio sareetan.
- Kopiagailu berrien plantan ezartzearen bururatzea, mantenu kontratuekin eta obragintza edo estimatzea laguntzeko gastu batzuekin. Gaur arte, 70 kopiagailu baino gehiago gune guzietan.

- Datuaren heldutasunari buruzko ikuskatzea zuzendaritzen baitan, 2023an datuaren gobernantza koadroa ekoizteko eta datuaren komunitate baten animatzeko.

Antolaketa numerikorako, Euskal Hirigune Elkargoak La Fibre64 sindikatuaren baitan Ipar Euskal Herrian fibra bidezko Interneteko abiadura oso handiaren hedatzean parte hartzen du.

## GURE FINANTZAK

aitzinkontu  
nagusi

1

aitzinkontu  
gehigarri

10

36 628

ORDAINKETA AGINDU GAUZATUAK  
(EZEZTATZE ETA GIBELERA BOTATZEEZ KANPO)

**HAUETARIK** 26 628 **ORDAINDURIKO  
FAKTURAK**

FAKTUREN ORDAINKETARAKO EPE (FOE) OROKORRA

**18,97** egun  
(FINKATURIKO FOEAREN  
GHEIENGOA 30 EGUN)

12 638


DIRU SARTZE AGIRI EGINAK



# 2022KO AITZINKONTUA

## 2022an GAUZATURIKO GASTUAK

### 2022ko inbertsio-gastuak




Aitzinkontu oro nahasirik, eta aitzinkontuen arteko mugimenduak tratatu ondoren, Euskal Hirigune Elkargoak 99,06 M€ inbertitu zituen 2022an, hots, %12 emendatzea 87,82 M€-koa zen 2021ekoarekin konparaturik.

Inbertsio gastuen gehiengoa aitzinkontu nagusian (51,59 M€) eta Edateko uraren eta Saneamenduaren aitzinkontu gehigarrietan (36,24M€) sartu zen.

AITZINKONTUA (M€-tan)	INBERTSIO-GASTUAK, ZORRAREN KAPITALAREN ITZULTZEAZ KANPO ETA AURREKONTUEN ARTEKO FLUXUETAZ KANPO	ZATIA %tan
Aitzinkontu nagusia (1)	51,59	%52,08
Edateko uraren aitzinkontu gehigarria	20,83	%21,03
Saneamendu kolektiboaren aitzinkontu gehigarria	15,41	%15,55
Etxe-hondakinen eta antzekoen aitzinkontu gehigarria	6,91	%6,97
Lan eremuen aitzinkontu gehigarria (1)	2,29	%2,31
GEMAPi-aren aitzinkontu gehigarria	1,65	%1,66
Laket-portuaren aitzinkontu gehigarria	0,18	%0,18
SPANCaren aitzinkontu gehigarria	0,06	%0,07
Aprendizen Formakuntza-Zentroaren aitzinkontu gehigarria	0,09	%0,09
Baigurako aisialdi-gunearen aitzinkontu gehigarria	0,03	%0,03
Ikuskizun-gelaren aitzinkontu gehigarria	0,03	%0,03
<b>OROTARA</b>	<b>99,06</b>	<b>%100,00</b>

Euskal Hirigune Elkargoa, lurraldea sustengatzen duen eragile nagusia: esleituriko 10,2 M€-ko inbertsio diru-laguntzak 99,06 M€-ko inbertsio gastuetatik.

### Funtzionamendu gastuak (zorraz eta aitzinkontu gehigarrien fluxuetaz kanpo)



Funtzionamendu gastuetan, aitzinkontuen arteko kontularitza operazioen ondoriozko doitzeak eginik, gastuak 177,29 M€-koak (hots, +%4.8 2021 urtearekiko) izan dira eta ondoko moldean banatzen dira:

AITZINKONTUA -M€TAN)	FUNTZIONAMENDURAKO GASTU ERREALAK	ZATIA %TAN
<b>Aitzinkontu nagusia (1)</b>	<b>162,35</b>	<b>%58,55</b>
<b>Etxe-hondakinen eta antzekoen aitzinkontu gehigarria (1)</b>	<b>52,29</b>	<b>%18,86</b>
<b>Saneamendu kolektiboaren aitzinkontu gehigarria</b>	<b>28,48</b>	<b>%10,27</b>
<b>Edateko uraren aitzinkontu gehigarria (1)</b>	<b>26,59</b>	<b>%9,59</b>
<b>GEMAPI-aren aitzinkontu gehigarria</b>	<b>3,76</b>	<b>%1,36</b>
<b>Aprendizen formakuntza-zentroaren aitzinkontu gehigarria</b>	<b>1,55</b>	<b>%0,56</b>
<b>Laket portuaren aitzinkontu gehigarria</b>	<b>0,85</b>	<b>%0,31</b>
<b>Spanc-aren aitzinkontu gehigarria</b>	<b>0,64</b>	<b>%0,23</b>
<b>Lan-eremuen aitzinkontu gehigarria (1)</b>	<b>0,51</b>	<b>%0,18</b>
<b>Baigurako atsedeen-gunearen aitzinkontu gehigarria</b>	<b>0,18</b>	<b>%0,06</b>
<b>Ikuskizun gelen aitzinkontu gehigarria</b>	<b>0,09</b>	<b>%0,03</b>
<b>OROTARA</b>	<b>277,29</b>	<b>%100,00</b>

Euskal Hirigune Elkargoa, lurraldea sustengatzen duen eragile nagusia: esleituriko 20,46 M€-ko funtzionamenduko diru-laguntzak 277,29 M€-ren gain.

## FISKALITATEA



# 206 m€

ESKURATUA 2022an

**75,3 m€**  
FAMILIEK ESLEITUAK

**69,5 m€**  
ENPRESEK ESLEITUAK

**61,2 m€**  
ESTATUAK ESLEITUAK



CFE	cvae	IFER	Tascom	Teom	GemAPI	TFB	THRS	TVA-BEZ	FNB
44,6 m€	19,1 m€	2,2 m€	5,4 m€	8,5 m€	5,0 m€	13,7 m€	13,0 m€	47,1 m€	0,8 m€

SAILA	SIGLA	ZERGA	ORDAINDUA/ ESTATUAK ITZULIA
 Enpresen zergak	CFE	Enpresen lur-funtsaren gaineko kotizazioa	x
	CVAE	Enpresen balio erantsiaren gaineko kotizazioa	x
	IFER	Sareko enpresen zerga finkoa	
	TASCOM	Merkataritza-eremuen gaineko zerga	
	VM*	Mugikortasun-ordainketa	x
 Zerga mistoak	TEOM	Etxe-hondakinen biltzeko zerga	
	GEMAPI	Ur-inguruneen kudeaketa eta uholdeen prebentzioa	
	TFB	Jabego eraikien gaineko lur-zerga	
 Familien zergak	THRS	Bigarren bizitegiaren bizitegi-zerga	
	TVA-BEZ	Balio erantsiaren gaineko zerga	x
	TFNB	Eraiki gabeko jabegoen gaineko lur-zerga	
	TAFNB	Eraiki gabeko jabegoen gaineko lur-zergaren zerga gehigarria	

## ZERBITZU-ZERGAK ETA ZERBITZUEN EMAITZAK

Euskal Elkargoak haren zerbitzuen erabiltzaileen partea biltzen du (Ura, Saneamendua, Hondakinen bilketa eta tratatzea, Haurtzaroa, lehen haurtzaroa, Igerilekuak, eremu publikoaren okupazio zerbitzu-zerga...), 92,2 M€ hauetarik 89,54 M€ Edateko uraren eta Saneamendu kolektiboaren aitzinkontuentzat soilik (Uraren Agentziaren zerbitzu-zergak barne)

## ESKURATURIKO DIRU-LAGUNTZAK

Funtzionamenduan, 4,37 M€ ondokoek ordainduak:

- Estatuak eta Frantzia mailako erakundeak 0,95 M€
- Europak 0,93 M€
- CAFak 0,88 M€
- Aturri-Garona uraren agentziak 0,72 M€
- Departamenduak 0,31 M€
- Eskualdeak 0,17 M€
- Beste 0,41 M€

Inbertsioan 9,03 M€ ondokoek ordainduak:

- Estatuak eta Frantzia mailako erakundeak 5,05 M€
- Europak 2,55 M€
- Eskualdeak 0,25 M€
- Herriek 0,2 M€
- Departamenduak 0,16 M€
- Beste 0,82 M€

## maileguak


Dauden zorrak 2022/12/31n: 296,9 M€ (ROB datuak)

Mailegu berriak 2022an: 33,5M€ (bilakaera garbia + 9,7M€)

Biztanleko zorraren ratioa: 917,27 € (biztanleria osoaren arabera 323.687 biztanleko INSEE)

# GEHIGARRIAK

GURE eskumenaK: ZER EGITEN DU EUSKAL ELKARGOAK?



Parte batean haren sortzetik beretik gauzatuak, Euskal Elkargoaren eskumenen alorraren definizio eta balioztatzea lurraldeko hautetsien mobilizazio prozesuaren ondorio izan da, eskuraturiko eskumenei dagokionez hautu anbiziotsu baten bidez islatu dena.

Eskumenen harmonizaziorako erantzun juridiko eta arauzkoa osatzeaz haratago, ariketa hori Euskal Elkargoaren Proiektuak finkaturiko norabide politikoaren perspektibaren baitan ere sartu da. Gisa horretan, Euskal Elkargoak eskumenen betetzearen fasea gainditu du, haren politika publikoen corpusa definituz.

## DERRIGORREZKO eskumenak

### Garapen ekonomikoa

- Aktibitate ekonomikoko eremuen antolaketa eta kudeaketa
- Garapen turistikorako ekintzak
- Tokiko merkataritza politika
- Turismoaren sustatzea



### HIRI-POLITIKA

- Hiri-kontratuak
- Hiriko eta tokiko baliabideen garapenaren animazio eta koordinaketa

### BIZILEKUAREN OREKA SOZIALA

- Bizilekuaren tokiko programaren ontzea
- Elkargo-intereseko etxebizitza politika
- Etxebizitza sozialaren aldeko diru mailako ekintzak eta laguntzak
- Elkargo-intereseko eraikiriko higiezinaren parkearen hobetzea

### JENDE IBILTARIEN HARRERA

- Harrera lursailen eta familia lurren sortze, antolaketa eta kudeaketa
- Pasaia handien kudeaketa

### ESPazioAREN ANTOLAKETA


- Hirigintza dokumentuen ontzea (tokiko hirigintza planak, herri antolaketa kartak)
- Elkargo-intereseko AEEen sortzea

### UR INGURUMENEN KUDEAKETA ETA UHOLDEEN PREBENTZIOA

- Arro hidrografikoen antolaketa
- Ibai-erreken mantenu eta antolaketa
- Uholdeen eta itsasoaren aurkako defentsa
- Eremu hezeen babes eta berrezartzea

### ETXE-HONDAKINEN ETA ANTZEKOEN BILKETA

- Etxe-hondakinen eta antzekoen bilketa (berina, tapakiak, egunkariak)
- Hondakinak saihesteko ekintzak
- Hondakindegien kudeaketa



### URA

- Edateko uraren ekoizpena, babesa, garraioa, bilketa eta banaketa

### saneamendua

- Saneamendu kolektiboa: sareari lotzearen kontrola, ur zikinen garraio eta arazketa
- Saneamendu ez kolektiboa: baliabideen kontrola

### EURI-URAK

- Euri-uren kudeaketa elkargoko lurraldean

### BIDEAK ETA APARKALEKUAK

- Elkargo-intereseko bideen sortze edo antolaketa eta mantentzea
- Elkargo-intereseko aparkalekuen kudeaketa



### INGURUMENAREN BABESA ETA BALIOAN EZARTZEA

- Airearen kutsaduraren eta arrabots trabagarrien aurkako borroka
- Energiaren menperatzeko ekintzak

### KULTURA ETA KIROL EKIPAMENDUEN ERAIKUNTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

- Elkargo-intereseko kultura eta kirol ekipamenduen eraikuntza edo kudeaketa

### EKINTZA SOZIALA

- Elkargo-intereseko lurraldearen garapen soziala
- Elkargo-intereseko biztanleriarentzako zerbitzuen kudeaketa (autonomiaren aldeko ekintzak, prekaritatearen aurkako borroka, lehen haurtzarora, haurtzarora, gazteria, osasuna)

### FRANCE SERVICES HITZARMENA

- France Service-n sortze eta kudeaketa

### EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN SUSTAPEN ETA SUSTENGUA


- Ingeniaritza, partaidetzak
- Sustapen ekintzak

### OKZITANIERA-GASKOIAREN ETA GASKOI KULTURAREN SUSTAPEN ETA SUSTENGUA

- Ingeniaritza, partaidetzak
- Sustapen ekintzak

### URAREN ZIKLO HANDIA

- Kutsaduren aurkako borroka
- Ur baliabidearen eta ur, itsasadar eta itsasbazterreko eremuen kalitatearen zaintza
- Ekintza estrategikoak eta kudeaketa tresna integratuak: SAGEak, Natura 2000 guneak, kostaldeko eta uholde arriskuen kudeaketa



### KULTURA POLITIKA

- Irakaskuntza artistikoak
- Sorkuntza artistikorako laguntzak
- Hezkuntza artistiko eta kulturala
- Irakurketa publikoa

### MISTOTASUN FUNTZIONALA XEDE DUTEN OPERAZIOEN ANTOLAKETA

- Gutenez lau elkargo eskumenen plantan ezartzean parte hartzen duten antolaketa operazioen gauzatzea

## **PAISAIEN ETA ONDAREAREN BALIOAN EZARTZEA**


- Ipar Euskal Herriaren ezaugarri diren paisaien eta arkitektura eta hiri ondarearen zaintzan eta balioan ezartzean parte hartzen duten ikerketa eta programak.

## **IBILALDI BIDEXKEN ANTOLAKETA, KUDEAKETA ETA ANIMAZIOA**

- Ipar Euskal Herriko Tokiko Ibilaldi-planaren sortze eta animazioa
- Ibilbideen antolaketa, kudeaketa eta zaintzea
- Gida liburuxken argitaratzea

## **GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA, IKERKETA, GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA ARTISTIKOA ETA APRENDIZGO BIDEZKO FORMAKUNTZA**

- Goi-mailako irakaskuntzaren eta formakuntzaren garapeneraren sustengua (Euskal Elkargoko Aprestuzen Formakuntza Zentroaren inguruan)



## **TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA ENERGETIKOA**

- Energia berriztagarrien garapena
- Eremu naturalen eta bioaniztasunaren babesa

## **MUGAZ GAINDIKO, EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA**

- Partaidetzen garapena, muntatzea eta mugaz gaindiko proiektuen segimendua
- Europako programen eramate eta kudeaketa

## **HERRIEI ESKAINITAKO ELKARGO-INGENIARITZA, HIRI ETA BASERRI-GARAPENA**

- Kide diren herrien abantailarako sustengua, eremu anitzeko ingeniaritza
- Baltsan emaniko tresnak
- Garapen kolektiboko desmartxak

## **DEPARTAMENDUKO SUTE- eta SOKORRI-ZERBITZUARI EKARPENAK**

- Finantza-ekarpena



## GORPUTZ ERRAUSTEGIEN SORTZE ETA KUDEAKETA


- Ekipamenduen sortze eta kudeaketa

## LABORANTZARAKO LUR-FUNTSEN ZAINZA

- Laborantzarako lur-funtsentzako estrategia baten ontzea
- Zaintza tresnak aitzin irudikatu eta haietan parte hartu

## DENENTZAKO ELIKADURA SANO ETA IRAUNKORRAREN SUSTAPEN ETA SUSTENGUA

- Lurraldeko Elikadura Proiektuaren zehazte eta plantan ezartzea
- Ostalaritza kolektiborako politikaren plantan ezartzean herriak lagundu
- Hobe/ongi jateari publiko zabala sentsibilizatu



## euskal mendia

- Mendiari eskainiriko eta ekintza operazionalan deklinaturiko zeharkako estrategiaren ontze eta animatzea
- Zeharkako eta gai anitzeko desmartxa eta proiektuen eramatea mendiko lurraldearentzat (Leader programa, mendiko praktika onen gida, mendiguneen eskemaren animatzea, Eskualdeko Parke Naturala bezalako garapen iraunkorrerako tresna eta hausnarketak).

## ANTOLAKETA NUMERIKOA:

- Informazio- eta komunikazio-teknologiaren baliabideak eskuratzeko baldintzen hobetzea, lurraldeko biztanleendako (izan partikularrak ala enpresak).



**pays  
Basque  
euskal  
herria**

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION

—  
HIRIGUNE  
ELKARGOA

—  
COMUNAUTAT  
D'AGLOMERACION

Argitalpenaren zuzendaria: Jean-René Etchegaray,  
Euskal Hirugune Elkargoko Lehendakaria

- Diseinu grafikoa eta muntaketa: Studio Waaz
- Inprimaketa: Copytel (64)
- PEFC ziurtagiria duen paperean inprimatua  
(modu iraunkorrean kudeatutako basoetatik datorrena)
- Itzulpenak: Ortzi Idoate (euskara),  
Lo Congrès (okzitaniara gaskoia)